goiena
DEBAGOIENDARROK DIOGUNA
2011-07-01
EGUBAKOITZA
471. ZENBAKIA
11. URTEA
DOANEKOA
GOIENA.NET
TOKIKOM

## Asteburuan jaiak han eta hemen

Eskoriatzan, Aramaion eta Elgetan jai nagusiak izango dituzte | 20, 22 eta 27



Mamu txikiak Eskoriatzan. | E.M.

Egaña eta Lipus 'Erregea eta bufoia' izango dira gaur, Arrasaten | 32



Debagoienerako ospitale ereduak eztabaida piztu du | 2




Arrasateko igerilekuan euskaraz irakurtzeko zerbitzua jarri dute | 12



Iban Velasco eta Markel Irizar, Parisko Eiffel dorrea eskuetan dutela Tourrera abiatu aurretik.

# TOURRERA!

Historian lehenengo aldiz Debagoieneko bi ziklista Tourrean izango dira, Iban Velasco arrasatearra eta Markel Irizar oñatiarra; euren taldeendako lanera doaz biak, lautadan batek eta maldan gora besteak. | 28

XABIER URTZELAI



## UDAKO ARGAZKIEN GOIENA LEHIAKETA

Gaurtik aurrera bidal daitezke argazkiak | 33

# Burdin Aroko herrixka baten aztarnen bila, Aramaion

Astelehenean hasiko dira Aramaion, Murugainen, indusketak egiten. Hilabete inguru emango dute zortzi arkeologok han lanean, eta Burdin Aroko herrixka baten aztarnak eta Espainiako gerrako trintxeren arrastoak topatzen saiatuko dira. | 4

## SINADURAK

JON ETXEBERRIA | 6
6 | EDU MENDIBIL
JON SUINAGA | 16
19 | IÑIGO RAMIREZ DE OKARIZ
NURIA FERNANDEZ DE ARROIABE | 26
40 | XABIER ZUBIZARRETA

ASTEKO GAIA 2 | DEBAGOIENA 4 | IRITZIA 6 | ELKARRIZKETA 8 | HERRIAK 11 | KIROLA 28 | KULTURA 31 | ZURE IRAGARKIAK 35 | TELEBISTA-IRRATIA 36 | EZKONTZAK 37 | ESKELAK 37 | NON-ZER 38






# Debagoienerako eta Arabarako ospitale ereduak eztabaida piztu du

## Ospitale bateratua nahi du Jaurlaritzak; langileen plataformak bi ospitaleei eutsi nahi die

LEIRE KORTABARRIA | ARRASATE

Osasun asistentziarako, debagoiendarrok Gasteizera jo behar izaten dute askotan, eta etorkizunean ere hala izango da. Oraindik argi ez dagoena beste hau da: zehazki ze zerbitzu topatuko duten Debagoieneko eta Araba osoko erabiltzaileek, eta bi ospitale, hiru edo bakarra topatuko duten. Osasun Sailak eta Arabako eta Gasteizko osasun agintariek argi daukate: etorkizunean ospitale bakarra izango da, Arabako Unibertsitate Ospitalea, eta izen eta izaera horren pean batuko dira gaur egungo Gasteizko bi ospitaleak, Txagorritxu eta Santiago Apostol. Horiek, gaixo edo pazientе akutuendako ospitaleei dagokienez; baina Bengoa sailburuaren planak Lezako gaixo kronikoendako ospitaleari ere eragiten dio, nahiz eta oraindik ez dagoen guztiz zehaztuta zelan. Hori dena egiteko, 130.000.000 euroko inbertsioa aurreikusten dute.

Beste aldean daude Santiagoko eta Lezako langileek osatutako plataformako kideak. Langileez eta ELA, LAB, ESK eta CCOO sindikatuez gain, jendarteko beste hainbat elkarte (Gasteizko zenbait auzo elkarte, esaterako) daude ordezkatuta. Euren iritziz, AUO proiektua ez da ez bideragarria ez herritarrondako zein langileondako ona, eta gaur egungo ospitaleei eustea proposatzen dute.

Bitxikeria gisa, Arabako Unibertsitate Ospitaleko gerente izendatu du Osakidetzak ekain hasieran Jon Armentia, bederatzi hilabetez Debagoieneko Ospitaleko gerente izan dena.

**Lau eraikin berri Txagorritxun**

Proiektua 2010eko martxokoa da, eta datozen hilabeteotan fase garrantzitsu baten sartzekoa da. Izan ere, ospitale berrirako lau eraikin berri egin nahi ditu Osakidetzak, denak Txagorritxu Ospitalearen inguruan. Bada, laster hastekoak dira lehenengo obrak. Bestetik, osatu berri da zerbitzu-antolaketa berria, eta uztailean gertu izan nahi du Osakidetzak AUOren plan funtzionalaren lehenengo zirriborroa.

Edozein modutan, proiektuaren zutabeak definituta dauzka Osakidetzak, eta hauek dira: batetik, Arabako Unibertsitate Ospitalaren Akutuen Ospital Orokorra, gaur egun Txagorritxu dagoen lekuan, lau eraikin berrirekin; bestetik, Santiago Ospitalearen hiru pabilioitik bakarra gordeko dute osasun erabilpenerako, beste bat (balio historikoa duena) beste zerbaiterako erabiliko da, eta hirugarrena bota egingo dute. Gordeko den pabilioian gaixo kronikoak edo azpiakutuak ospitaleratuko dituzte.

Azkenik, Osakidetzak bere plana egiteko oinarritzat erabili duen txostenak gomendatzen du Lezako Ospitalea (gaur egun gaixo kronikoendako) "mendekotasunaren inguruko gizarte eta osasun zentro bihurtzea, Osakidetzaren kudeaketatik kanpo". Hau da, zentro pribatu bihurtu edo beste burubide bat eman.

Txagorritxun, honako erreformak egin nahi dituzte: lau eraikin berri egin (anbulatorioko kontsultak eta probak egiteko kabineteak; ama-umeei arretarako eraikina; ebakuntza-geletarako eta diagnosietarako bloke teknikoa; eta Vitoria-Gasteiz Ikerketa Biosanitario Erakundea); gaur egungo eraikina goitik behera berritu; Larrialdiak ere berritu eta Lehen Arretako Larrialdiak ospitaletik atera; eta hezkuntzarako unitatea egokitu.

Santiagoko Ospitaleko hiru pabilioitik bi "osasunerako erabilpenik gabekoak" aitortzen ditu txostenak.

Ikuskaritza-txostenean Osakidetzari esaten zaio Gasteizko osasun zerbitzuak berriz antolatzeko aukera onena horixe dela: ospitale bakarra sortzea. Hainbat abantaila ikusten diote irtenbide horri: "azpiegiturak ez bikoizteak dakarren aurrezpena", "azpiegitura sinpleago batek dakarren eraginkortasun handiagoa" eta "arreta jarraiaren kostua txikitzea".

Txostenak esaten duenez, "ez litzateke langileak kendu beharrik izango, baina bai, seguru asko, aldi bateko langileak".

**Gaur baino zazpi ohe gehiago**

Langileen etorkizuna da, hain zuzen, plataforma osatzen dutenen kezketako bat, hain zuzen, beldur direlako hainbat kaleratze egongo direla. Gaur egun, Txagorritxun 1.568 langile estruktural daude, eta 597 funtzional; Santiagon, 941 eta 582, hurrenez hurren. Esaten dute Osakidetzaren agindua –323 langile gehiago izango direla ospitale bakarrean– ez dutela "sinisten".

Beste kezka bat erabiltzaileak dira, hau da, debagoiendarrak eta arabarrak. Galtzen irtengo direla uste dute plataformako kideek. Edurne Agirre kidearen

**ESANAK**



**"Espainiako 25 ospitale onenen artean izango da Gasteizko ospitalea"**

**"Bertan egingo zaizkie umeei ebakuntzak; ez dute irten behar izango"**

JESUS MARIA FERNANDEZ
OSASUN SAILBURUORDEA




Maiatzaren 7an kale-agerraldia egin zuten Gasteizen, "Debagoienerako eta Arabarako



Araba Euskarazen sinadurak bildu zituzten langileek.



## Debagoiena, Gasteizekiko lotuta



Debagoieneko Ospitale berriak (irudian) "Unibertsitate Ospitalearekiko harreman estua" izango du, apirilean Jon Armentia gerente ohiak eta egungo AUOren gerenteak esan zuenez. Bailarako ospitalearen obra ekainean jasotzekoa zen Osakidetza. Armentiak apirilean aurreratu zuenez, hainbat zerbitzu Gasteizen jasoko ditu bailarak: besteak beste, Zaintza Intentsiboa, tresnen esterilizazioa, hainbat kirurgia mota...

DATUA

**130**

MILIOI EURO

Jaurlaritzak 130 milioiko aurrekontua du orain Arabako Unibertsitate Ospitalearen proiektua aurrera eramateko.

DATUA

**52,5**

MILIOI

Santiago Ospitalea eraberritzen 52,5 milioi inbertitu dira azken 15 urteotan. Instalazio batzuek bi urte dituzte.

DATUA

**1**

EBAKUNTZA GELA

AUO proiektuaren oinarrizko txostenak gomendatzen du 23 ebakuntza-gela, orain baino bat gehiago bakarrik.




ospitale bakarraren" eta Arabako Unibertsitate Ospitalaren proiektuaren aurka. | ARGAZKIAK: SANTIAGO ETA LEZA OSPITALEETAKO LANGILEEN PLATAFORMA

esanetan, "ospitale masifikatua izango da, eta horrek langileoi presa handiagoaz ibili beharra ekarriko digu, eta nahasmenak gerta daitezke. Bestalde, ospitale handiak bezala, despertsonalizatuagoa izango da. Zerbitzuaren kalitatea txikiagoa izango da". Horrez gain, zerbitzuak toki bakarrean izango dira: larrialdiak, Zaintza Intentsiboa... eta hori, plataformaren iritziz, "ardura falta izugarria da, izan ere, katastroferen bat gertatzen baldin bada, larrialdiak kolapsatu egingo dira, ziur".



Langileek jaialdi erreibindikatiboa egin zuten ekainaren 18an.

Guztira izango den ohe kopurua ere ez dute garbi ikusten. Hala, aurreikusten dute 735 ohe Txagorritxun, akutuendako, eta 120 Santiagon, kronikoendako. "Esaten dute Txagorritxuren eta Santiagoren artean akutuendako 728 ohe daudela; hortaz, orain baino zazpi ohe gehiago bakarrik egongo liratekе. Baina Santiago eta Txagorritxu bere edukieraren azpitik erabilita daude: Txagorritxun 700 oherako lekua dute, eta orain 461 dituzte; Santiagon, 316 ditugu, baina 500 batendako lekua daukagu", esaten du Edurne Agirrek. Salatzen dute azken urteotan ospitaleak ohez hustu dituela Osakidetzak, "beste nonbait" egon beharko liratekeen instalazio batzuk ipinita ordez.

Era berean, ebakuntza-gela bakarra gehituko litzateke, txostenaren arabera.

### "Dirua xahutzea da"

Plataformak uste du, gainera, ospitale bakarraren proiektuak "dirua xahutzea" dakarrela: "Txagorritxu eta Santiago, biak dira ospitale onak, eta erabiltzaileak oso gustura daudela esaten dute hainbat inkestak. Biak ospitale berrituak dira. Esaten dute Santiago Ospitalea zaharkituta dagoela, baina ez da egia: azken 15 urteotan, 52,5 miloi euro baino gehiago inbertitu dira. Ospitale bakarrarekin, hori guztia alperrik galduko da. Bestalde, Santiagoko Bake kaletik gertu dagoen pabilioia eraitsita, 40.000.000 euroko balioa duen eraikina galdu egiten da", salatzen du plataformak.

AUO proiektuak 130.000.000 euroko aurrekontua du, eta plataformak galdetzen du "nondik atera behar" duen dirua Osakidetzak. "Gaur egungo Santiagoko 26.000 m2-ak berreginaturatu eta saldu" egingo dituzten beldur da plataforma, "horrela ondare publikoa esku pribatuetan utzita".

### Dagoena ondo erabili

Plataformako kideek hainbat protesta ekintza egin dituzte hilabeteotan; besteak beste, Gasteizen bi akutuendako ospitale egoteare aldeko sinadurak batu dituzte. Euren proposamena hauxe da: "Benetan jendarteak dituen osasun premiei erantzutea eskatzen dugu; eta ez dezatela ospitalerik itxi, baizik eta dagoena aprobetxatu".

Proposatzen dute bi ospitaleak handitzea "jendeak etorkizunean behar izango duenaren arabera", eta, nahi bada, Santiagoko aparkalekuan 10.000 m2 eraikitzea, Osakidetzaren planaren %10ko kostuarekin; halaber, gaur egungo ospitaleei probetxu ateratzea.



LANGILEEN PLATAFORMA

**EDURNE AGIRRE**
SANTIAGOKO LANGILEA

## "Herritarron eta langileon kalterako makro-proiektu bat da"

Langileen plataformako kide horren esanetan, AUO "denon kalterako" da.

**Noiztik zabiltzate mobilizazioekin?**
Iazko martxoan enteratu ginen AUO proiektuaz, prentsatik, eta orduan hasi ginen. Ez dute profesionalekin, langileokin, medikuokin... kontatu plan hori egiteko; inongo kontsentsurik gabe egin dute aurrera.

**Zergatik zaudete AUOren aurka?**
Bengoa sailburuaren makro-proiektu bat da, baina oraindik ez dute ezer finkatuta; joan ahala egiten ari dira. Gure ustez, zerbitzuak eta lantaldeak murriztu egingo dituzte, eta makro-ospitale bat egingo dute, denok kaltetuko gaituena.

**Zer proposatzen duzue?**
Bikoizketak kentzeari ondo deritzogu, baina Arabak eta Debagoienak akutuendako bi ospitale behar dituzte.




Aitor Larrañaga dinamizatzailea, indusketak egiten hasi behar diren tokian. | ARANTZAZU EZKIBEL

# Burdin Aroko aztarnen bila, astelehenetik, Murugainen

## Hilabete iraungo dute Burdin Aroko herrixka eta 36ko gerrako aztarnak topatzeko egingo dituzten indusketek

**MIRIAN BITERI** | ARAMAIO

Astelehenean hasiko dira Murugainen indusketak egiten. Hilabete inguru emango dute zortzi arkeologok han lanean; hain justu ere, uztailaren 29ra arte. Denbora tarte horretan, Burdin Aroko herrixka baten aztarnak eta Espainiako gerrako trintxeren arrastoak topatzen saiatuko dira ikertzaileak. Basarri Barri (ABB) proiektuaren barruan sartuta dagoen Aramaioko Ondarearen Berreskurapen Taldeak (AOBT) eta Udalak sustatu du Murugaingo indusketa proiektua, eta Arabako Arkeologia Institutuak eta Ondare Babesa arkeologia enpresak jardungo dute lanok egiten.

Bestalde, indusketak egiten diren bitartean, herritarrek lan horiek ezagutaraz ditzatela eta parte har dezatela nahi dute, eta, horren harira, hitzordu hirukoitza egin dute. Eguaztenean, uztailak 6, izango da lehena, Sastiñan, 19:00etan hasiko den indusketen aurkezpen hitzaldiarekin. Uztailaren 17 eta 24rako, ostera, trintxerak topatu eta trintxeren mapa egiteko auzolana antolatu dute; udaletxetik abiatuko dira bi egun horietan, 09:30ean. Horretan parte hartzeko interesa dutenek udaletxean eman behar dute izena. Horretaz gainera, uztailaren 31n indusketetara bisita gidatua izango dute Etor Telleria arkeologoarekin. Kasu horretan, pilotalekutik irtengo dira, 11:00etan. Ondare Babeseko kide Etor Telleriak indusketen eta horren ondotik lortutako emaitzen gaineko azalpenak emango dizkie Murugainera joaten direnei. Izena ere eman behar da aurretik.

**Irailean, mahai-ingurua**

Irailean, 36ko gerraren inguruko mahai-ingurua eta Murugainen topatutakoa aztertu eta dokumentazio lanak egingo dituzte ikertzaileek, eta emaitzen berri eman aramaioarrei; dena dela, datak oraindik zehazteke daudela jakinarazi digu Aramaio Basarri Barri proiektuko Aitor Larrañaga dinamizatzaileak. Horrekin batera, azaldu du hiru urteko proiektua dela hori, eta indusketak hiru fasetan egingo direla 2013ko uda bitartean.

Lehen fasearen aurrekontua 45.202 euro da; Arabako Institutu Arkeologikoak 30.000 euro bideratu ditu. Gainerakoa Aramaioko Udalaren eta herrian martxan jarritako hainbat ekimenen bidez lortzeko asmoa dute. Dagoeneko Aramaioko produktuez osatutako otzara zozketatzeko ekintza egin dute, eta aurrera begira, bestelakoak antolatzeko asmoa ere badute.

Proiektu horren helburua da Kristo aurreko lehenengo milurtekoan herrixka harresitu bat zegoela baieztatzea. Lehendik ere egin izan dira lanak bertan, eta berretsi dute Burdin Aroko herri gunea dagoela han. Bestetik, Burdin Aroko herrixkako haserriak aprobetxatuta trintxerak egin zituzten 36ko gerran; aztarnak berreskuratu nahi dituzte.


GOIENA

**ETOR TELLERIA**
ONDARE BABESEKO KIDE

### "10x10 metroko eremua zabalduko dugu Murugainen"

Beste zazpi langileekin batera, hilabete pasako du Etor Telleria arkeologoak Murugainen.

**Nolakoak izango dira egingo dituzuen lanok?**

Indusketa fase batekin hasiko gara aurten. Eremu nahiko handia irekiko dugu; hain justu, 10X10 metrokoa. Jakin badakigu esanahi historikoaren aldetik, Murugainen aztarna esanguratsuak daudela. Burdin Aroko harresia, Gerra Zibileko trintxera eta herrixka horren bizigunea harrapatuko ditugu eremu horretan.

**Elementu interesgarriak topatu ezkero, zer nolako garrantzia izango luke?**

Bi ikerketa lerro daukagu: batetik, Euskal Herriko Burdin Aroko historia osatuko litzateke. Bestetik, gerra aztarnak daude. Orain arte arkeologikoki aztertu ez diren trintxerak daude han.



Bilduko kideak eta hainbat herritar plazako elkarretaratzean. | MIREIA BIKUÑA

## 'Bateragune auzia' epaiketa "politikoa" dela salatu zuten Oñatin egindako elkarretaratzean

**MIREIA BIKUÑA** | OÑATI

Bilduk deituta elkarretaratzea egin zuten astelehenean, *Bateragune auzia*-ren epaiketaren lehen egunean. *Eskubide zibil eta politikoen alde, epaiketa politikorik ez!* lelopean elkartu ziren Bilduko udal taldeko hainbat kide eta herritar. Asteon hasi duten *Bateragune auzia* "epaiketa politikoa" dela salatu zuten: "Herri honetan zabaldu den garai politiko berria oztopatzea eta hau zabaltzen ahalegina egin duten hainbat ordezkari politiko zigortzea da epaiketaren oinarri nagusia", esan zuten.

Oñatiko Bilduk *Bateragune auzia*-n inplikatutakoen "berehalako askatasuna eta absoluzioa" exijitu zuen.

## Gomiztegira eta gatz museora bisita gidatuak daude egunotan

Jardunaldi gastronomikoen barruan, bihar eta etzi, Gomiztegi baserrira bisita gidatua dago. Horrez gainera, bihar, Leintz Gatzagako museoa eta Jakion enpresa ezagutzeko aukera egongo da. Interesatuek 943 79 64 63 edo 943 71 89 11 telefonora deitu behar dute.

EIBARKO HIZKUNTZA ESKOLA OFIZIALA
2011/2012
MATRIKULA OFIZIALA
Ekainaren 30etik uztailaren 14ra

HIZKUNTZAK:
ALEMANA, EUSKARA, FRANTSESA ETA INGELESA

Matrikula egin nahi dutenek **Internetez bakarrik** egin ahal izango dute *www.eoieuskadi.net webgunean.*
**Argibide gehiago:** *www.eoieibarheo.net webgunean edo 943 20 06 18 telefonoan.*

EIBARKO HIZKUNTZA ESKOLA OFIZIALA
Jardineta, 3
20600 Eibar



AMAIA TXINTXURRETA

## Emakume baten heriotza salatu dute ostera

Arrasateko emakumeen aurkarko indarkeriaren kontrako plataformak deituta elkarretaratzea egin zuten martitzenean 25 lagunek, Arrasateko plazan. Ekainaren 16an Durangon hil zen emakumearen heriotza salatu nahi izan zuten bertaratutakoek.

# Esklerosi anizkoitzarengatik "bustitzeko" aukera Arrasaten

## Domekan 'Busti Zaitez–Mojate' kanpaina egingo dute Musakola kiroldegian

MIREIA BIKUÑA | ARRASATE

Esklerosi Anizkoitzaren Fundazioak gaixotasun horrekiko elkartasun eguna egingo du etzi, domeka. *Busti Zaitez-Mojate* delako kanpainaren inguruko informazioa emango dute Arrasaten, Musakolak kiroldegian. Bederatzigarren aldiz egingo dute kanpaina gurean, eta helburu nagusiak dira herritarrak sentsibilizatzea eta gaixotasunari aurre egin ahal izateko ikerketetarako dirua batzea. 2007ko maiatzean ireki zuten Esklerosi Anizkoitzaren eta beste gaixotasun neurologikoen zentroa. Kanpainan batutako dirua horra bideratuko dute. Zentro horrek gaixotasun hori sufritzen duten gaixoendako birgaitze zerbitzua ematen du.

Arrasaten ez ezik, Gipuzkoako beste 16 lekutan egingo dute kanpaina bera. Iaz, 40.000 lagunek parte hartu zuten.



Esklerosi anizkoitzaren gaineko informazio mahaia, iazko kanpainan. | GOIENA

### Igeri egiteko gonbidapena

"Esklerosi anizkoitzaren alde laguntza eman edo kanpainan parte hartu gura dutenek Musakolara joan besterik ez dute, eta igerilekuan mugatuta dagoen tokian igeri egiteko aukera izango dute", esan dute antolatzaileek. Egunaren bukaeran igeri egindako metro guztiak zenbatuko dituzte.

Elkartasun kanpainan hainbat lagunek egingo dute lan. "Udalaren, Aukearen, kiroldegiaren eta Toki Argi boluntario taldeko kideen laguntza izango dugu", esan digute. Eurek ipiniko dute informazio mahaia Musakolan. Gaixotasun sendaezinaren gaineko informazioa emango dute, eta igeri egiten duten lagunei diplomak banatuko dizkiete.

Bestalde, *Busti Zaitez-Mojate* delako kanpainarako hainbat material egin ditu Kukuxumuxuk, eta horiek ere, salgai ipiniko dituzte Musakolan; besteak beste, kamisetak, txapelak, erlojuak eta giltzatakoak erosi ahal izango dira.

### Kanpaina erraldoia

*Busti zaitez-Mojate* kanpaina esklerosi anizkoitzaren alde egiten den kanpaina indartsuena da, bai Euskal Herrian eta baita Espainiako Estatuan ere.

# Udan ere Arantzazu ekimenez beteta "ari da"

M.B. | ARANTZAZU

Arantzazun lan egiten duten erakunde guztiek bat eginda, udako ekintzen agenda bateratua kaleratu dute. Alegia, uztailerako, abuzturako eta irailerako hainbat ekitaldi antolatu dituzte, guztiak ere, "Arantzazu ari" dela esateko.

"Lau urtaro, lau bisita" da eurek proposatzen dutena. Hori horrela, udako agenda ilunbarrarekin eta espiritualtasunarekin lotu dute.

### Askotariko ekintzak

Aste bukaera honetan hasiko dituzte udako ekintzak, ikastaro batekin. Hurrengo astean gogo-jardunak eta tai txi jardunaldiak egingo dituzte. Uztailean, aurrerago, espeleoabentura irteerak egingo dituzte. Bestalde, hil osoan, Debagoieneko jardunaldi gastronomikoen barruan, bisita gidatuak egingo dituzte.

Abuztuan ekintza gutxiago egongo dira, baina badago zer aukeratu: espeleoabentura, gogo-jardunak eta Izan proposamenaren gaineko ikastaroa.

Azkenik, irailean, Arantzazuko Ama Birjinaren egunean hasiko dituzte ekintzak. Handik aurrera, hainbat ikastaro eta tailer egingo dituzte, bestek beste, bio-dantza tailerra.

# Eroskik 93 milioi euro irabazi zituen iaz, 2009ko emaitzen pareko irabaziak

E.AZKARATE/M.BIKUÑA | ARRASATE

Eroski taldeak batzar orokorra egin zuen hilaren 25ean Elorrion, eta 93,2 milioi euroko irabaziak onartu zituzten bazkideek.

Irabazi horiek modu honetan banatzea erabaki zuen kooperatibak: %31 derrigorrezko gastuei aurre egiteko; %20 lan bazkideen artean banatzeko, eta gainerako %49a, erreserba fondorako. Datu horiek 2009koen antzerakoak dira.

Dena den, taldeak 64 milioi euroko galerekin itxi du urtea. Higiezinen balio-galeretatik datorkio. Izan ere, 4.000 euroko inbertsioak ditu Eroskik higiezinetan eta, azkeneko urteotan, behera etorri da horien balioa.



## ZABALIK



**JON ETXEBERRIA**
'http://goiena.net/iritzia/'

# Euskal lehengaia: pertsonak

90eko hamarkadan kanpaina instituzional batek zioen bezala, pertsonak gara gure Herriak duen mundu globalizatuan lehiatzeko "lehengai" bakarra. Pertsonak herrialde guztietako oinarrizko "osagaiak" dira, baina badaude desberdintasun nabarmenak beraien artean, bereziki trebakuntza eta kulturaren ikuspuntutik. Desberdintasun hauek "giza lehengaiaren kalitatean" eta ondorioz gizartean eragin zuzena dute.

Gure inguruan trebakuntza onaren garrantzia barneratua daukagu. Ikastea bizitzan ekonomikoki eta sozialki aurrera egiteko tresna indartsu bat bezala ikusi ohi dugu. Belaunaldi zaharrenendako trebatzeko aukerak nahiko eskasak baziren ere, ondorengo belaunaldiei formazioaren garrantzia transmititzen eta ahalik eta trebatzeko aukera hoberenak eskaintzen saiatu dira gure nagusiak. Ondorioz, estatistikek erakusten duten bezala, gaurko gazteak "historiako gazte trebatuenak" omen dira.

> **"Prestakuntza ez da nahikoa ongizatea bermatzeko"**

Hala ere, prestakuntza ez da nahikoa ongizatea bermatzeko. Izan ere, lan kultura egoki bat ere nahitaezkoa da. Euskaldunok beti izan dugu langile onen ospea: leialak, saiatuak, zintzoak... Azken hamarkadetan, ordea, gizartearen eboluzio azkar eta sakona pertsonengan eta hauen kulturarengan eragin nabarmena izaten ari da, eta bereziki gazteenengan. Gehiegizko babes eta gura diren ondasun material guztiak eskuragarri izateak, esfortzu eta lanaren baloreak sustatu ordez, erosotasunarenak sendotu ditu, gure gizartearekiko ekarpena ahulduz.

Gure Herriak pertsonak ez diren beste aberastasun iturririk ez duenez, pertsonen ekarpenaren gaia funtsezkoa da ongizate maila on bat izaten jarraitu nahi badugu. Horregatik, formazio teknikoaz gain, ondo egindako lanaren eta esfortzuaren kulturak berreskuratu beharra dauzkagu nahitaez. Eta hau guztion zeregina da: guraso, irakasle, agintari, etab.

## USTEAK USTE

**EDU MENDIBIL** | 'emendibil@goiena.com'

# Hezibide kontuetan, 'kate'

San Martzialgo erromerian, domekan, ingurumena zaintzeko dei egin du Bergarako Udaltzaingoak. Hainbat aholku eman dizkiete herritarrei. Gomendio onak sekula ez daude soberan, baina pena da holakoak behin eta berriz errepikatzen egon behar izatea, ingurumenari dagokionez, gainera. Antza, Europako beste herrialde batzuen mailara iristeko bide luzea dugu aurretik. Ikusi besterik ez dago gure kaleak eta parkeak (eta *txutxe* denda inguruak) zelan egoten diren eguna amaitzean. Zer esanik ez Agorrosingo igerilekua udan, ateak ixtean. Susmoa dut gaurko belaunaldiek *kateatu* egingo luketela hezibide kontuetan eta eskolako eta etxeko lana ez dela hain eragingarria gaur.

## MARRAZKIZ

**ALEX UGALDE** | 'http://goiena.net/iritzia/'




## HANDIK ETA HEMENDIK

# AEBetan hiru gune atomiko larrialdian

**Pello Zubiria**
http://argia.com/erredakzio-mahaia/

Gaur Ameriketako Estatu Batuetan ez bat, hiru zentral edo biltegi nuklear daude larrialdian.

Eta gezurra dirudien arren, albistea hain garrantzia handikoa izanik eta irudiak benetan ikusgarriak (ikusi *ABCnews* eta *NBC* zerbitzuen erreportajeok), gurean ez zaie oihartzunik eman oraino. Baina begira:

-Nebraska estatuan Missouri ibaiko urak, azkeneko hamarkadetako uholderik handienean, Fort Calhouneko zentral nuklearraren barruraino sartu dira. Honetaz informazio gehiago eman genuen atzo hemen bertan. ABC kateak irudi berriak eskaini ditu gaur.

-Missouri ibaian beherago, egoera hobeagoan dirudi Cooperreko zentral nuklearrak, nahiz eta urak hurbildu zaizkion. (North Dakotan Minot herrian hirugarren zentral nuklear bat dago urez inguratua baina antza denez hor arriskua txikiagoa da. Albistegietan aipatu egiten dute, bertako uholdeen irudiak eskaini ere bai, baina ez Minoteko zentralarenik bat ere).

-Askoz kezkatuagorik daude New Mexico estatuko Los Alamos herrian dagoen laborategi atomikoaren inguruetan, Bigarren Mundu Gerraz geroztik famatu egin den gune nuklearrean. Laborategiez gain hondakin nuklearren biltegi handia dago Los Alamosen eta inguruetan piztu den sute erraldoia inguruetaraino hurbildu da; agintariek herritarrei alde egiteko agindu diete. Beste erregaien artean, zehaztu gabeko plutonio kopurua dago gordeta hainbat bonba atomiko ekoiztu diren Los Alamosen.

# Txangoa

**Anjel Lertxundi Esnal**
http://berria.info/blogak/lertxundi/

Bi nortasun ditugu (gutxienez).

Lehena, azalekoa da, itxurarena, modu jakin batean mintzatzen eta janzten dena, ideia eta gustu jakin batzuen arabera manifestatzen dena, zinemara joateari aspaldi utzi ziona, lagunekin aldian behin basoerdi batzuk hartzea gustatzen zaiona...

Modu nahiko berdinean agertzen da ia beti, eta, horrexegatik, besteek ere modu nahiko berdinean ikusten dute eta identifikatzen.

Bigarrena, geure baitakoa, ilunagoa da, gorabeheratsuagoa, joan-etorri askokoa.

Zalantza eta desadostasunak ditu azaleko nortasunak manifestatzen duenarekin, atsegin ez zaizkion aldeak aldatu nahi lituzke.

Ez baitu ikusten duten bezalakoa izan nahi, kontzientzia erre horrek bizi du bigarren nortasuna.

Nortasun azalekoak eta geure baitakoak ez dute sekula bat egiten, bi nortasunon arteko lehia da bizitza.

Uste dut hurkoaren azaleko nortasunetik bere baitakora txango egiten saiatzea dela, besteak beste, literatura.

goiena"
KOMUNIKAZIO TALDEA

**Argitaratzailea** Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkartea
E05 Basabe Poligonoa,
20550 ARETXABALETA
**Lehendakaria** Estepan Plazaola
**Zuzendari nagusia** Inazio Arregi

**Zuzendaria** Eneko Azkarate
**Erredaktore burua** Monika Belastegi
**Sailetako arduradunak** Xabi Urtzelai (Kirola), Iñaki Iturbe (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

**Maketazioa** Iñaki Iturbe, Imanol Soriano, Kepa Martelo.
**Publizitatea** Mireia Larrañaga, Amaia Mundiñano, Ziortza Martin, Itsaso Berezibar, Imanol Elortza.
**Testuen zuzenketa** Sergio Azkarate
**Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia
**Administrazioa** Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa.

**EGOITZA NAGUSIA - GOIENA PAPERA**
**ARRASATE 20500**:
Otalora Lizentziaduna 31 | 132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00
arrasate@goiena.com

**ORDEZKARITZA**
**ARETXABALETA 20550**: Durana 11
Tel.: 943 79 86 21 | Faxa: 943 77 18 54
aretxabaleta@goiena.com

**Publizitatea** Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
Faxa: 943 25 05 09 | publi@goiena.com
**Harpidetza** Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 08 10 50
harpidetza@goiena.com
**Lege Gordailua:** NA-3329/2000
**ISSN:** 2174-369X
**Tirada:** 20.100 ale.
**Difusioa:** 19.951 ale.

OJD erakundeak ikuskatutako astekaria.

GOIENAk ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK orrialdeetan, edo bestelako orrialdeetako kolaboratzaileek, adierazitako iritzien erantzukizunik.

LAGUNTZAILEAK
Gipuzkoako Foru Aldundia | Arrasateko Udala | Bergarako Udala | Oñatiko Udala | Aretxabaletako Udala | Eskoriatzako Udala | Antzuolako Udala | Aramaioko Udala | Elgetako Udala | Leintz Gatzagako Udala

**Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria**

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

## GUTUNAK

# Olarteko irakasleok: biba zuek!

**Juan Luis Arexolaleiba *Gatxi*, Amaia Arrieta, Nagore Iraola eta Saioa Ojanguren**
(Arizmedi ikastolako Olarte guneko gurasoak)
Arrasate

Aurreko ostiraleko GOIENAn, *Suminduta!* izenburupeko gutuna argitaratu zen. Lerro hauen bidez ez dugu helburu gutunari erantzutea; izan ere, egileak egiten dituen salaketa, baieztapen eta galderen inguruan aritzeko ez dugu uste foro publiko hau toki egokiena denik.

Lerro hauen bidez Arizmendi Ikastolako Olarte guneko irakasle guztiei gure errekonozimendu eta esker ona helarazi nahi dizkiegu. Aipatu gutuna dela eta oso minduta ikusi ditugu San Juan jai hauetan Olarteko irakasleok eta, egoera horren aurrean, honakoa esan nahi dugu: pozik, oso pozik, daude gure alabak Olarten eta, aldi berean, pozik, oso pozik gaude gu ere alabak Olarten hezten ari direlako. Bertako andereñoak bihotz eta arima ari dira egunerokotasunean, egiten duten horretan sinisten dute eta, besteak beste, euskararekiko duten jarrera eta praktika nabarmentzekoak dira.

Duela gutxi, gogo biziz, Korrika 17ren harira abesten genuen bezala: "… milioika pauso txikiz indartuz herria, Olarte ere bada Euskalakaria", eta hori guztia, batez ere, zuei esker denez, biba zuek!

# Edukiontzia, lehertuta

**Inma Beristain**
(Antzuolako alkatea)
Antzuola

Azken hilabetean Antzuolako Udalak bi alditan konpondu behar izan du pilotaleku ondoan kokatuta dagoen etxeko-olioaren edukiontzia.

Hainbat ikerketa egin ondoren, jakin dugu bi alditan lehertu dutela olio-ontzia jasotzen duen erretilua. Horren ondorioz hainbat egunetan makina izorratuta eta zerbitzua eman gabe egon da. Udalak, arazoa ahalik eta azkarren konpondu eta herritarrentzat eragozpenik egon ez zedin beharrezkoak diren gestioak egin dituela.

Oraindik susmorik ez daukagun arren, gai honen gainean gaudela jakinarazi nahi diegu herritarrei. Lasai egon daitezen eskatu nahi diegu, zerbitzua ez dela etengo.

Bestalde, horrelako ekintzen arduradunei, hartutako arriskuaren eta herritarrei sortutako eragozpenen inguruan hausnar dezatela eskatzen diegu. Jolas bat dirudien ekintzak askotan ondorio larriak ekar ditzake.

# 'Bateragune auzia'

**Maider Morras Azpiazu**
(Bildu eta Aralarko udal taldearen izenean)
Arrasate

Auzitegi Nazionalean burutzen ari den *Bateragune* deritzon epaiketaren aurrean, Bildu eta Aralarko udal taldeak honako adierazpena aurkezten du:

Epaiketa politikoa da honakoa, xede politiko nagusi bati erantzuten diona: herri honetan zabaldu den garai politiko berria oztopatzea eta garai politiko berri hau zabaltzen ahalegin berezia egin duten hainbat ordezkari politiko zigortzea. Hori da eta ez besterik epaiketa honen oinarria.

Epaiketa honen eta Auzitegi Nazionalean zain dauden beste hainbat epaiketaren helduleku juridiko bakarra Alderdien Legea da, urteotan herri honen ordezkaritza politiko eta sozial garrantzitsu baten parte hartze legalari bidea ixteko garatu izan dena, milaka herritarren eskubideak zapuztuz eta hamarnaka ordezkari politiko atxilotu eta espetxeratuz. Estrategia honek ezezko borobila jasotzen du herri honen gehiengo erabatekoaren aldetik.

Estatu espainiarraren sakoneko defizit demokratikoa eta botere banaketarik eza erakusten du epaiketa honek; izaera antidemokratikoa ideia politikoen defentsa eta antolatzeko eskubidea ukatzen dizkiolako euskal gizartearen zati garrantzitsu bati; eta botere banaketarik eza, PPren eta PSOEren ideia politikoen eta estrategien luzapena baino ez delako epaiketa hau.

Udal honek interpelazioa luzatzen die eragileei guztiei, eta gizarteari oro har, garai berria oztopatu eta honen aldeko konpromiso argia erakutsi duten ordezkari politikoak zigortzea bilatzen duen epaiketaren aurrean konpromiso aktiboak har ditzaten.

Udal honek, era berean, Estatu espainiarrari dei egiten dio errepresioaren ildoa behin betikoz alde batera utz dezan eta herri honek egin beharreko eztabaida demokratikoari oztoporik jar ez diezaion.

Hau horrela, jarraian aipatzen diren erabakiak hartzen ditu Alkatetzak:

1-Udalak, gatazkaren irtenbidea sustatzeko, dagokion jarduera instituzionalean urratsak emateko konpromisoa hartzen du.

2-Epaiketa politikoak behin betikoz alde batera utz daitezen eskatzen dugu, zabaldu den garai berriari jarri nahi zaizkion oztopoekin amaituz.

3-*Bateragune* auzian inplikaturik dauden kide guztien berehalako askatasuna eta absoluzioa exijitzen dugu.

4-Aldarrikapen horiekin bat eginez, uztailaren 1ean, 19:30ean, Herriko Plazan, kontzentrazioa deitzen dugu, *Eskubide zibil eta politikoen alde, epaiketa politikorik ez!* lelopean.

**Atal honetan argitaratzeko diren gutunek, gehienez izan behar dituzte 1.900 karaktere (hutsuneak barne) edo 50 lerro. GOIENAk eskubidea du gutuna laburtzeko.**
Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Ibarra 6, 20570 Bergara | papera@goiena.com | Faxa: 943 25 05 13

Debagoieneko
**PROFESIONAL LIBERALAK**

**ABOKATUAK**

**BERNARDINO MAIZTEGI**
Bergara / Irizar 5
T: 943 76 10 81

**JUAN ANTONIO SIERRA**
Bergara / Irizar 2
T: 943 76 03 35

**BEGOÑA LASAGABASTER**
Arrasate / Iturriotz 15, 1 A
T: 943 79 98 86
F: 943 77 01 08
*blasaga@conet.es*

**RAFAEL ARANBURU**
Bergara / Irizar 5
T: 943 76 10 81

**ROSA BEITIA / ATXEN MUNGIA / NAIARA MENDIBIL (ZENBAKI)**
Aretxabaleta / Basabe ind. f-0-10-pab.
T: 943 71 21 12
*zenbaki@zenbaki.es*

**AHOLKULARITZAK**

**AIERDI AHOLKULARITZA**
Bergara / Artekale 1
T: 943 76 03 50

**ANDRA MARI AHOLKULARITZA**
aretxabaleta / Andra Mari auzunea 3
T/F: 943 79 29 26
*andrama@arrakis.es*

**ASEGI AHOLKULARIAK**
ARRASATE / Otalora Lizentziaduna 4
T: 943 71 25 49
F: 943 71 17 79
*asegi@asegim.com*

**TBG AHOLKULARITZA**
BERGARA / Matxiategi 36
T: 943 76 90 83

**ZENBAKI AHOLKULARIAK**
ARETXABALETA / Basabe ind. F-0-10 pab.
T: 943 71 21 12
F: 943 71 22 68
*zenbaki@zenbaki.es*

**ARKITEKTO TEKNIKOAK**

**JESUS LASKURAIN PEREZ**
BERGARA / Zurradero 4
T: 943 76 53 53

**ETXE ADMINISTRAZIOAK**

**URIBESALGO ADMINISTRAZIOAK**
ARRASATE / Otalora 16, solairuartea esk.
T: 943 79 51 25
F: 943 71 19 85
*uribesalgo@telefonica.net*

**PROKURADOREAK**

**JOSE M. BARRIOLA ETXEBERRIA**
DONOSTIA / Easo 57-3 esk.
T: 943 45 27 26 / 656 41 55 49

Iragarkia jarri nahi baduzu, deitu **943 25 05 05** zenbakira.

**Iñigo Alberdi** | Euskadiko Orkestra Sinfonikoko zuzendari nagusia

# "Euskadiko Orkestra Sinfonikoaren izatekoa da zerbitzu publiko kulturala izatea"

▸ Oso gertuko erakundea da gurea, nahiz eta, askotan, gorbatadunekin lotu izan den"

▸ Iñigo Alberdik bost urte eman ditu datorren urtean 30 beteko dituen orkestrako buru

ENEKO AZKARATE | BERGARA

Bost urte eman ditu Euskadiko Orkestra Sinfonikoko buru. 25 urte bete berri dituen Bergarakoan ere ibilia da, musikari. Iñigo Alberdi soraluzetarra da jaiotzez; Bergaran bizi izandakoa; gaur egun Donostian bizi da.

**Donostia izendatu berri dute 2016-ko Europako Kultura Hiriburu. Berri pozgarria, ezta?**

Bai, bai, Donostiarendako ez ezik, baita Gipuzkoa eta Euskal Herri osoarendako ere. Eta baita guretako ere. Izan ere, Euskal Herri osorako orkestra da gurea, baina egoitza Donostian du. Hortaz, uste dut sinergia eta dinamika oso interesgarriak sor daitezkeela.

**Bost urte eman dituzu Euskadiko Orkestra Sinfonikoaren (OSE) gerente. Zer moduz?**

Pozik. Gauza asko egiteko aukera izan dut. Batzuk beste batzuk baino hobeto. Lortu dugu orkestraren proiektuari beste dimentsio bat ematea.

**Alemanian egon berri zarete. Zer egin duzue han?**

Gurea orkestra europarra dela esaten dugu eta bira hau da horren erakusle. Lau emanaldi izan dira. Horietatik hiru Düsseldorfen. Izan ere, Düsseldorfeko orkestrarekin elkartrukea egin dugu. Lanean gaude Europa mailako beste proiektu batzuekin. Orain, gainera, Europako Kultura Hiriburuaren kontuarekin, aukerak irekitzen zaizkigu eta gehiago aldarrikatu beharko dugu, beharbada, gure europartasun hori. Aipatu nahi dut 2012an Vienara joango garela.

**Sarri irteten zarete nazioartera**

1982an sortu zenetik 14. bira izan da azkeneko hau. Bi urtetik behin -edo egiten dugu. Ekonomiak ahalbidetzen badu, urtean behin ere bai. Europan ez ezik, Amerikan, Txilen, Argentinan eta Brasilen ere egonak gara.

**Non du egoitza OSEk?**

Donostian, Miramonen. Euskal Herri osoko orkestra gara. Donostiako Kursaalen, Bilboko Euskaldunan, Gasteizko Printzipalen eta Iruñeko Baluarten jo ohi dugu. Orkestra ibiltaria da gurea. Hori da ezaugarri nagusia.

**Zenbat musikari ditu?**

Lantalde osoa 105 lagunek osatzen dugu. Horietatik, 95 musikariak dira eta beste hamarrekoa administrazioko eta bestelako pertsonal teknikoak osatzen du. Estatuan, abonatu kopuruari dagokionez, lehen orkestra gara. 7.000 abonatu dauzkagu. Urte normal baten, 150.000 ikus-entzule izaten ditugu. Jendartean errotuta dago.

**Batez besteko adina?**

Orkestra nahiko gaztea da, kideen batez bestekoa 45 bat urtekoa da-eta. %55 gizonezkoak eta gainerakoak emakumezkoak dira.

**Jatorriari buruz?**

Oposizioak egiten dira gure orkestran sartzeko. Entzuketak egiten dira horretarako: teloi beltzaren alde baten musikaria eta bestean epaimahaia. Hauek ez dakite nor epaitzen dihardute eta aintzat hartzen dute, bakarrik, entzuten dutena. Horren arabera aukeratzen dira musikariak. Plazak konbokatzen dira libre geratzen direnean. Jeneralean, urteko erretiratze bat edo bi izaten dira. Musikarien jatorriari dagokionez, hiru multzo daude: herena Euskal Herriko zazpi lurraldeetakoak dira; beste herena, Frantzia eta Espainiakoak; eta beste herena, Europako beste herrialde batzuetakoak. Azkeneko urteotan bertako gero eta jende gehiago sartzen da. Hasieran, ostera, Europako ekialdetik etorritakoak ziren.

**Euskadiko Gazte Orkestra ere hor dago. Zeuen ardurapekoa da?**

Organikoki ez. Beste elkarte batekoa da. Baina harreman oso estuak ditugu. Elkarrekin jarduten dugu sarri. Hitzarmen bat daukagu haiekin eta Euskadiko Gazte Orkestrako kide asko geurean aritzen dira kontzertu batzuetan. Musikenerekin, Euskal Herriko goi mailako musika ikastegiarekin ere badugu hitzarmena.

**Zein da OSEren ohiko jarduera?**

Abonu kontzertuak egiten ditugu Hego Euskal Herriko lau hiriburuetan; ganbera edo kontzertu txikiak; grabazio asko, gehienbat euskal konpositoreen lanena… Opera ere egiten dugu Bilboko ABAOn eta Donostiako Musika Hamabostaldian; nazioarteko birak… eta, azkenaldian, musika gelak edo jarduera hezigarriak.

**Elitekoa ez da OSE?**

Ez. Sarri musika klasikoa eliteekin lotzen da. Baina ez da horrela. Gurea da orkestra publikoa, denon diruekin ordaintzen dena. Gure izatekoa da, zerbitzu publiko kulturala izatea. Abonatu jarraitzaileei eta egiten ditugun kontzertu eta bestelako jarduerei erreparatuta, esan genezake, oso gertuko erakundea dela. Hori izan nahi du, nahiz eta gorbatadunekin lotu izan diren, askotan, orkestra sinfonikoak eta musika klasikoa. Herri honen ondarea da eta bere arrazoia da ahal den eta jende gehienak erabiltzea.

**Ze izen, ze ospe du OSEk gure mugetatik kanpo?**

Europa mailan ezaguna da, zirkuitu sinfonikoan. Jakina, gu ez gara Vienako edo Berlingo Filarmonika. Estatu mailan puntan dago. Hiru onenen artean dago. Ramon Labaien zen Kultura sailburu OSE sortu zenean. Eta hark zioen, preziatzen den herri batek bi erakunde eduki behar dituela: orkestra sinfoniko bat eta hegazkin konpainia bat. Bigarren oraindik ez daukagu.

**Helburuak bete ditu OSEk?**

Sorrerako izpirituari eusten dio oraindik ere. 1982ko eta gaur egingo egoera, kultura aldetik, ez dira bateragarriak. Gainera, hasierako helburuak lortzeko, gaur egun erronka berriak ditugu.

**Sortu zenean, Bilboko Orkestra Sinfonikoa ere bazen eta zalantzak sortu zituen, premiarik ba ote zegoen beste orkestra sortzeko...**

Bilbokoarekin batera Nafarroakoa ere bazen, Bilbokoaz gain. OSE sortu zenean, ba egon omen zen errezelorik, baina denborak erakutsi du bateragarriak direla orkestra sinfoniko horiek. Oso harreman onak ditugu, bai goi mailan eta baita musikarien artean ere, hiru orkestren artean.

**Orkestra ez profesionalen artean, Bergarako Orkestra Sinfonikoak 25 urte bete berri ditu...**

Bai, eta asko pozten naiz, ze oso oroitzapen onak ditut. Tronboi jotzaile moduan aritu nintzen han eta, tarteka, teklatua jotzen ere bai. Inongo etekin ekonomiko barik, denbora librean, instrumentuak jotzeko orduak eta orduak ematen dituenak, herriaren kultura eskaintza aberasten duelarik…, sekulakoa iruditzen zait. Txapela kentzekoa. Berdin abesbatza edo bandei dagokienean, baina orkestra gutxiago daude. Arrasate Musikalek ere badauka.

**Egon zinen zapatuko emanaldian?**

Bai, hunkitu egin nintzen. Besteak beste, orkestrako kide asko lagun minak ditudalako. Oso polita izan zen kontzertua.

**Ze harreman du Euskadiko Orkestra Sinfonikoak herrietako musika eskolekin–eta?**

Musika eskolekin abonu eta prezio aldetik, lerro berezia daukagu, ikasle eta irakasleak etor daitezen gure kontzertuetara. Miramonen, egiten ditugu entsegu irekiak eta musika eskoletatik ez ezik, beste ikastetxeetatik ere etortzen dira. Azken urteotan hasi gara material didaktikoa sortzen euskaraz orkestretarako-eta. Horiek banatzen ditugu musika eskoletan-eta.



Iñigo Alberdi, Arrasaten, martitzenean. | ENEKO AZKARATE

**"Orkestra nahiko gaztea da, kideen batez bestekoa 45 bat urtekoa da-eta"**

**"OSE Europan ezaguna da, baina ez gara Vienako Filarmonika"**

**"Urte normal baten, 150.000 ikus-entzule izaten ditugu"**

**"Asko pozten naiz Bergarako Orkestraz, oso oroitzapen onak ditut-eta"**


Ate berezi bat.


Atarietako ateak.


Itxiturak askotarikoak izan daitezke.


Begiratokiak eskaintzaren barruan daude.


Begiratokiak. | ARGAZKIAK: ION LEIHOAK


Kanpoko barandak eta ateak.


Eskailera tradizionalak eta tarima.


Eskailerak, egurra eta metala konbinatuta.

# Leihoetatik haratago doan enpresa, berton

**Leihoak egiteaz gain, etxe barruko bestelako lan asko ere egiten ditu Ion Leihoak enpresak** | ASIER ALKORTA

Leihoak eta ateak egiteagatik ezagunak badira ere, euren eskaintza zabalagoa da. Gaur egun bezeroek dituzten beharrei erantzunez, Ion Leihoak enpresak leihoak, ateak, behegainak, eskailerak eta bestelako produktuak eskaintzen ditu. Oro har, eskaintza "zabala" dutela diote Ion Leihoak enpresako arduradunek.

"Etxebizitza barruan egiten diren lanak dira gure egitekoa", diote Ion Leihoak enpresako arduradunek. Eskaintza guztiaren gainetik, kalitatea da nagusi Ion Leihoak enpresan.

Kalitate handi horren barruan, leihoetan, PVCzkoak, aluminiozkoak, egurrezkoak, poliuretanozkoak eta mistoak eskaintzen dituzte. "Itxiturak ere modu askotakoak dira".

Ateei dagokienez, horretan, CPL material berria da Ion Leihoek eskaintzen duten azken joera.

**BEHEGAINAK ETA GEHIAGO**

Behegainak ere ez dira atzean geratzen. Oholtza erakoak, sintetikoak, parket flotatzaileak, parketak.... Material guztiak lantzen ditu enpresak. Eta armairuetan ere eskaintza ez da murritzagoa. Horma-armairuak dira Ion Leihoek egiten dituztenak eta aukera zabala dutela diote.

Hori guztiori gutxi balitz, barandak ere egiten dituzte. Horretan ere material ezberdina da nagusi: aluminiozkoak, egurrezkoak, altzairu herdoilgaitzezkoak,...

Egurrezko eskailerak ere eskaintzaren barruan ditu enpresak. Eta horretaz gain, lapurreten aurkako pertsianak ere jartzen dituzte. "Pertsianetan motorizazio lana ere egiten dugu; edozein motatakoetan, gainera".

Eskaintza horrekin batera, egurrezko, aluminiozko eta PVCzko leihatilak ere egiten dituzte.

Horrenbestez, argi dago leihoen esparruaz gain Ion Leihoek beste eskaintza zabalago bat ere badutela. Kalitatezko materiala erabiliz hainbat lan egiten dute.

ION leihoak
ZORUAK
LEIHOAK
ATEAK
HORMA ARMAIRUAK

**ARRASATE**
Telleria kalea 4 • Pab. 11
Aramaioko bidea
(Markulete Ind. inguruan)
Tel.: 943 79 11 35

**GASTEIZ**
Olagibel 51
Tel.: 945 25 71 73

ion.a@euskalnet.net • www.ventaion.com

KÖMMERLING®
K21 KALITATEA



## DUELA 10 URTE

2001-07-06

### Fagorrek lantegi berria eraiki

Fagor Automotion kooperatibak lantegi berria eraiki behar zuen Eskoriatzako industrialdean, Fagor Ederlanen aurrealdean hain justu. 5.000 metro koadroko lursaila hartuko zuen lantegi berriak.

Hil hartan lortu zuten eraikitzeko baimena, eta, behin baimena lortuta, seguru asko abuztua baino lehen hasiko ziren obrak. Bi urte baino lehen fabrika berria prest egongo zela adierazi zuten.



Fraileak eta bisitariak. | GOIENA

2001-07-06

### Arantzazuren 500. urteurrena

Urte hartan 500 urte bete ziren frantziskotarrak Arantzazuko santutegira iritsi zirenetik, eta, hori ospatzeko, hainbat ekitaldi egin zituzten abuztuaren 15ean hasi eta hurrengo urteko irailaren 9ra bitartean. Martitzenean aurkeztu zituzten ekitaldiok santutegian bertan. Ospakizunetan herritar guztiek parte hartzea nahi zuten. Horregatik, Arantzazuko Adiskideen Elkartea izeneko taldea sortu gura zuten.

## DUELA 5 URTE

2006-07-07

### Leze Txikiko lanek 50 urte

Arrasateko Leze Txiki kobazuloko indusketa lanak aste hartan hasi ziren. Urte hartan, Euskal Herriko, Malagako, Portugalgo eta Australiako 15 lagunek baino gehiagok jardungo zuten. Urte hartako berezitasuna izan zen indusketa lanek 50. urteurrena zutela. Hala ere, modu jarraituan lan egiten 1996an hasi ziren.

## HERRITARRAK

ARRASATE

**Nestor Maidagan** Sanjuanetako danborradan bere aitaren oinordeko izan da azken 12 ureteetan; eta zuzendaria izateaz gain, txikitatik musikarekin bizi izan da | JAIONE CARPINTERO

# "Denbora luzeen daraman danborradako zuzendari bihurtu naiz"

Danborradako zuzendaria, antolatzailea eta txikitatik musika munduan murgildurik bizi da Nestor Maidagan.

**Noiz hasi zinen danborradako zuzendari?**

1999. urtean hasi nintzen. Urte hartan talde asko sartu ginen batera. Gure aita lehenengo zuzendaria izan zen, 1961ean sartu zen eta lau urte jarraian egon zen. Nik danborrada txikian urte askoan jo izan dut, baita handian ere. Aurten, denbora luzeen daraman zuzendari bihurtu naizela uste dut.

**Orduan, aitaren pausoak jarraitu dituzula esan daiteke.**

Bai, hala da. Hala ere, ez nuen aita zuzentzen ikusi, nik 4 urte besterik ez nuen hark azkenekoz jo zuenean.

**Aurten danborradak 50 urte bete ditu; ilusio berezia sentituko zenuen, ziurrenik.**

Bai, nahiz eta ilusioa baino lana izan den gehiago; guztia ondo antolatzeko, dena behar den moduan lotuta izateko... Baina ilusioa eta emozioa ere bai, oso hunkigarria izan zen, beti gogoan izateko modukoa.

**Lan handia da danborrada antolatzea?**

Lana aurten edo beste urte batzuetan antzekoa da. Aurten lan handiagoa izan da, alegia, banda berria izan delako. Hala ere, nik musika aldekoa soilik antolatzen dut. Lana baino gehiago, urduritasuna dela esango nuke, zerbait gaizki irtengo den beldurra.

**Horrenbeste urte danborradan, izango duzu anekdotaren bat edo beste.**

Bai, badut. Beti kontatzen dut berdina: duela urte batzuk, danborrada amaitzera zihoala, plazan, erredoble bat jotzen dute guztiek eta nik salto egiten dut. Saltoan lurra ikusten dudanean, guztiak batera isiltzen dira. Urte hartan, lurra bustita zegoen eta lurrera zutik jauzi beharrean, labandu eta etzanda geratu nintzen. Jende guztiak barre egin zuen, baina ni segituan jaiki nintzen.

**Nola gogoratzen duzu zure lehenengo urtea?**

Oso urduri nengoela gogoratzen dut. Jende guztiaren aurrean zerbait gaizki egingo nuen beldurra ere sentitzen nuen. Zorionez, guztia ondo irten zen.

**Musika munduan guztiz murgilduta bizi zara...**

Bai, txikitatik. Arrasate Musikaleko Orkestran klarinetea jo nuen urte askoan zehar. Estatu osoan orkestra gazte bakarra ginen, eta, beraz, asko bidaiatzen genuen.



Nestor Maidagan. | JAIONE CARPINTERO

### "Ilusioa baino gehiago, guztia ondo antolatzeko lan handia izaten da"

### "Musikarekin lotuta denetarik aurki daiteke Arrasaten"

Gero, klarinetea alde batera utzi nuen eta urte batzuetan saxofoia jotzen ibili nintzen Berakatzband deituriko berbena talde baten.

Hori amaitu, eta RIPeko abeslariarekin lau lagun batu ginen, horietako bat nire anaia, eta bi urtez talde berri batean jotzen ibili ginen: Elkorobarrutia taldean. Oso ezagun egin ginen, eta oraindik ere gure abestiren bat entzun izan dut tabernetan.

Baina hori ere amaitu zen, eta Goikobalu korura sartu nintzen, gaur egun arte. 20 urte inguru daramat bertan.

**Beraz, klarinetea eta saxofoia jotzen badakizu?**

Jakin ez, jo izan dut, dagoeneko ahaztuta ditut. Pianoa ere jotzen nuen aitarekin, eta txistua ikasten ere egon nintzen. Orain, abestu bakarrik, eta oso gustura. Bitan izan gara Argentinan, Italian ere izan gara...

**Nola ikusten duzu Arrasate musika aldetik?**

Oso ondo, musikarekin lotuta denetarik aurki daiteke Arrasaten. Nondik hasi ere ez dakit; gaiteroak aipatzen hasiko nintzen, ez dut -eta sekula horrelako gaiterorik entzun. Gauza oso zailak jotzeaz gain, oso ondo egiten dute.

Banda ere oso ona da, orkestrak ere oso ondo jotzen du... jende asko dago musikatik bizi dena.

**Musikarekiko zaletasun handia izanik, dantzatzea atsegin duzu?**

Bai, asko gustatzen zait, betidanik izan naiz dantzaria, baina hori ere ahaztuta dut. Danborrada egunean dantzatu nuen zerbait aspaldiko partez, oso gustura.

**Eta musikaz gain, zer gehiago egiten duzu?**

Ez dut denbora libre askorik izaten. Erizaina naiz; lehen, Elgetan egiten nuen lan; eta orain, Arrasateko ospitalean nago.

## NIRE HERRIAN

**:) EROSOA DA, DENETIK DAGO**

"Denetik du Arrasatek. Ez duzu oso urruti joan behar gauzak topatzeko. Oso herri erosoa dela uste dut; ni, behintzat, oso gustura nago. Ni, gainera, herri erdialdean bizi naiz eta dena gertu izatea abantaila handia da. Ume txikiak ditut eta haiek bakarrik uzteko oso ondo dago. Nire ustez hori da Arrasatek duen onena".

**:( OSO HERRI ZATARRA DA**

"Herri zatarra da. Inguruko herriak ikusten ditut nik, eta, dudarik gabe, Arrasate zatarrena iruditzen zait. Polita jartzeko aukera izan dute, baina ez dute lortu. Azken urteetan asko hobetu da, baina, nire ustez, beti izango da zatarra. Arkitekturari erreparatuz gero, zatarra da oso, gauzak gaizki pentsatuta daude".

# HERRIAK

ARETXABALETA

# Ibilbide berria du autobusak, gaurtik, baina herritarrak ez daude gustura

- Sinadurak batzen ibili dira Loramendi eta Lausitta kaleetan aldaketa horren aurka
- Udalak Pesarekin adostu zuen atzo geltoki nagusia Azbekoa izatea berriro hilaren 11tik

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETA

Gaur, uztailak 1, hasita ibilbide berria dute autobusek Aretxabaletan. Geltokiek ere aldaketak izan dituzte, eta hiru izango dira noranzko bakoitzean. Geltoki nagusia Azbe lantegi parean beharrean Txarapea ibilbidean dago gaurtik –hilaren 10a arte–, eta bertan geratuko dira Donostia eta Gasteizera doazenak. Araba ibilbidekoa dagonetan utzi dute eta beste geltoki bat egongo da Lausitta kalean.

Hona hemen ibilbide berria (bi noranzkoetan berdina): Araba ibilbidea-Loramendi-Nafarroa-Txarapea-Lausitta-Murubide-Otalora.

## Markesina modernoak

Geltoki horietan guztietan markesina berriak jarri dituzte, punta-puntako teknologia dutenak: ukimen pantaila, argi artifiziala eta irratia. Hala, informazio interesgarria izango dute herritarrek eskura, tartean autobusen joan-etorrien eta osasun etxeko telefonoen berri. Eta autobusa noiz iritsiko den ere jakinaraziko dute.

Bestalde, uztailean sartzearekin bat autobus zerbitzuen ordutegietan aldaketak egin dituzte. Era berean, txartela garestitu du Lurraldebusek, %1,8.

**Hilaren 11tik aurrera Azbera**

Herritar asko, baina, ez daude batere konforme aldaketokin eta sinadurak batzen ibili dira azken asteotan, batez ere Lausitta eta Loramendi kaleetan.

Lanean hasi berri den Ana Bolinaga alkatea herritarren kezka eta haserreen jakitun da, eta beste irtebideren bat topatzeko asmotan Pesa autobus zerbitzuko arduradunekin elkartu zen atzo eguerdian. Hala, Gasteiz eta Donostiarako autobusek berriro ere Azbe lantegi parean izatea geltokia adostu zuten. Uztailaren 11tik aurrera izango da hori, herritarrei behar bezala jakinarazi ostean.

**Zarata eta arriskua**

Loramendi eta Lausitta kaleetako bizilagun askok uste dute okerreko erabakia izan dela berriro autobusak herrian sartzea. Izan ere, astegunetan 135 bat autobus ibiliko dira egunero joan-etorrian, astean 700 baino gehiago. Eta horiek zalaparta eta arriskua ekarriko dutela diote: "Loramendi kale lasaia da; alde batean umeen parke bat dago eta bestean kiroldegia. Hortaz, jende asko ibiltzen da atzera eta aurrera. Autobusek arriskua ekarriko dute gure kalera".

Ibilbidea aldatzeko erabakia aurreko agintaldiko Udalak hartu zuen, eta arrazoia izan zen herriko iparraldeko bizilagunak –Otalora, Santa Kurtz, Bedarreta, Lausitta... kaleetakoak– geltoki barik zeudela. Hala ere, Lausittako bizilagun guztiak ez daude gustura etxe aurrean jarritako geltokiekin: "Zalaparta handia ekarriko du, arriskua, zarata...".




Lausitta kalean dagoen geltoki berria, gaurtik aurrera abian. | M.A.



**LOLI BOYERO**
LANGILEA

"Ez nago konforme, Lausittara zalaparta handia ekarriko duelako. Dagoenetan utziko nuke Azbeko geltokia, batez ere gauetako eta Gasteizera doazen autobusendako".



**PAULA ESTRELLA**
LANGILEA

"Pozik nago aldaketarekin, etxetik gertu izango dudalako geltokia. Lehen, oso urrun geratzen zitzaigun Lausitta inguruan bizi garen herritarroi".



**MAIER ETXEBARRIA**
LANGILEA

"Oker handia deritzot autobusa berriro herrigunera ekartzea. Bizitza duen auzoa da Loramendi eta autobus mordoa pasatuko da orain, kutsadura eta arriskua ekarriz".



**MARIELA ROJAS**
LANGABEA

"Niri ederto datorkit aldaketa, Lausittan bizi naizelako. Dena den, zergatik ez dira geratuko Donostiara eta Gasteizera doazenak gure geltokian, bertatik pasatu behar badute?".

URBIETA
Zeramikak, bainuak eta orain baita sukaldeak ere!

Zatoz eta ezagut itzazu
sukalde eta bainuetan azken joerak!

Sukalde eta bainuen zaharberritzeak ere egiten ditugu, gremioen koordinazioa barne.

Ibargarai kalea 11-13 • BERGARA • Tel./Faxa.: 943 76 14 50



# Uraren freskuran irakurri eta ondo pasatu, euskaraz

Txatxilipurdiren 'Freskura!' ekimenari esker, igerilekuan euskara hutsez irakurri ahalko da



Azkarraga-Urizar eta Barberena, ekimenaren aurkezpenean. | TXOMIN MADINA

**JOKIN BEREZIARTUA** | ARRASATE

Udako oporraldi giroan eta uraren freskotasunean euskara hutsez irakurri eta ondo pasatzea. Hori da *Freskura!*, Txatxilipurdik Udalaren eta Aukearen laguntzaz abiarazi duen ekimena. Izan ere, freskura bila joaten dira herritar asko eta asko igerilekuetara, eta izen horixe jarri dio Txatxilipurdik gaur martxan jarriko duen egitasmo berriari. Laburbilduz: Musakolako kanpoko igerilekuetan euskara hutsezko irakurgaien eta mahai jolasen doako mailegua da *Freskura!*

Egitasmoaren aurkezpena eguaztenean egin zuten, Kulturateko Jokin Zaitegi aretoan. Han izan ziren Eneko Barberena Txatxilipurdiko zuzendaria eta Inazio Azkarraga-Urizar alkatea. Barberenak adierazi zuenez, udan igo egiten da irakurtzeko ohitura. Hala, jende asko igerilekura joaten denez, pentsatu dute leku egokia dela bezeroei era erosoan euskarazko irakurgai eta jolasak eskuragarri jartzeko. Bestalde, Inazio Azkarraga-Urizar alkateak adierazi zuen begi onez ikusten dutela egitasmoa, eta euren babes osoa emango diotela.

**Abuztuaren 5era arte**

*Freskura!* ekimenaren postua aldagelen bukaerako pasilloan jarriko dute, erabiltzaile guztiendako leku ikusgarri eta egokian. Bertan dinamizatzaile bat egongo da, eta postutik irakurgai edo mahai-jolas bat hartzeko igerilekuko karneta edo beste karnet bat utzi beharko da. Identifikazio txartel hori maileguan hartutakoa itzuli ostean bueltatuko zaio haren jabeari. Egunkari, aldizkari eta gaztetxoendako liburuez gain, Gazte Bulegoko informazioa ere egongo da eskuragarri eta Debagoieneko kultura agenda ezagutzera emateko ere baliatuko da ekimena. Gainera, ekintza sorpresak ere iragarri dituzte astean behin.

Ekimena, esandako moduan, gaur bertan jarriko da martxan, eta abuztuaren 5era arte iraungo du. Astelehenetik egubakoitzera, 15:30etik 20:30era egongo da postua jarrita.

Txatxilipurdik Udalaren eta Aukearen laguntza izan du egitasmoa aurrera eramateko, baina baita *Goiena, Berria, Hitza, Irrien lagunak, Argia, Gaztezulo* eta *Aizu* argitalpenena ere.

## Udaleku irekiak, uztailaren 4tik aurrera

Asteon egin dira gurasoekin bilerak eta beraz, dena dago gertu datorren astelehenean, uztailak 4, hasiko diren udaleku irekiendako. Hilaren 22ra arte luzatuko dira aurten, eta urtero moduan, Arrasaten bertan egingo diren ekitaldi guztiak 2 eta 10 urte arteko haurrendako izango dira. 259 haurrek eman dute izena eta eurekin 27 hezitzaile eta sei praktikagile egongo dira.

Mirari Arando Txatxilipurdiko Haurren saileko arduradunak adierazi duenez, erronka potolo bat markatu dute aurten: "Zenbait gurasok esan digute kalean haur gutxi ikusten direla eta horregatik ekintza gehienak kalera aterako ditugu". Goizetan zaintza zerbitzua ere egongo da aurten erdigunean, San Andresen eta Musakolan, 09:00etatik 10:00etara. Udalekuak 10:00etatik 13:00etara eta 15:30etik 18:30era izango dira.

## Urbanoan bidaia bakarra egitea, bost zentimo garestiagoa

Aldundiak Lurraldebusko linea erregularretan prezioak igo ditu, eta urbanoan ere igarriko da. Bidaia bakarreko txartela 1,40 euro ordaindu beharko da gaur ezkero, atzo baino bost zentimo gehiago. Gainerako tarifak honakoak dira: hilean bidaia bat eta 40 bidaia artean egiten dutenek 0,74 euro bidaia bakoitza –atzo, 0,73 euro–; 41 eta 70 bidaia artean egiten dutenek 0,37 euro –atzo, 0,36 euro– eta 71 bidaiatik gora egiten dutenendako ez dago igoerarik: 0,12 euro.

## Emakume Txokorako dinamizatzailea eta beste lanpostu batzuk

Udalaren Emakume Sailak dinamizatzaile bat behar du, bitarteko funtzionario izaeraz. Lanpostuaren titularra aldi batez ordezkatzeko kargua da eta eskatuko zaio unibertsitate diplomatura eta hirugarren hizkuntza eskakizuna izatea. Atzo amaitu zen izen-ematea epea eta izena eman dutenek uztailaren 13a baino lehen aurkeztu beharko dute memoria. Informatikari laguntzailea eta Aukeako mantentze-lanetako arduraduna ere behar dira.



# Inoiz baino giro beroagoa izan dute aurten San Juan jaiek

Udala eta Jai batzordea pozik daude ekintzek oro har izan duten harrerarekin

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Kaleko giroa beroagoa eta beste urte batzuetan baino jende askoz gehiago ibili dela. Hori da Jon Garai Kultura teknikariak San Juan jaietako balorazio eskatzerakoan esandako lehen hitzak. Jaiak horren arrakastatsuak izateko eguraldia lagun izateak –eguraldi onegia izateraino– eta jaiak asteburuan izateak eragin zuzena izan duela uste du Garaik: "Ekintza guztiak ondo irten dira, jendeak parte hartu du eta parte hartzerakoan gustura egon direnaren sentsazioa geratu zaigu. Benetan arrakastatsuak izan dira".

Ekitaldi zehatzen gainean galdetuta, hainbat aipa daitezkeela dio, baina Monterronen Golden Apple Quartet-en kontzertua nabarmendu du: "Ez nuen espero horren arrakastatsua izango zenik, sorpresa atsegina izan zen. Monterronera kontzertua hasita zegoela heldu eta zeharo harrituta geratu nintzen jendearen berotasunarekin. Harrituta geratu nintzen ere saioa amaitzean jendea zutitu zenean. Eurak ere oso pozik geratu ziren, izan ere, munduan ez daude Monterron moduko leku asko eta udako halako gau baten giro magikoa sortzen da". Ohiko ekintzak ere are arrakastatsuagoak izan dira: zezenekin lotutako ekitaldiek jendetza bildu dute eta herritarrak fideltasunez jarraitzen duten errementari dantzaren hitzordua ere bereziki azpimarratu du kultura teknikariak.

Kultura Sailekoek udal korporazio berriko kide batzuk lankide izan dituzte eta eurekin ondo moldatu direla deritzo Garaik.



Suaren beroak herriko giroa ohi baino gehiago kutsatu du aurten. | IMANOL SORIANO

**Txosnetan ere giro beroagoa**

Joannes Irizar Jai batzordeko kidearen arabera, jaiak asteburuan izateak asko lagundu du. Eurendako ekintza arrakastatsuenak bezperako bazkaria –350 lagun aurten eta 150 iaz– eta zapatu gaueko kontzertuak –bereziki Kañeria 13 taldearen saioa– izan dira. Bi txosna egoteak jende gehiago erakarri duela uste dute eta txandak bete badira ere, hobetu daitezkeela. Oro har, pozik.

# Photomiradas: kanpoko eta bertako irabazleak

J.B. | ARRASATE

Arizmendi ikastolak jakinarazi ditu Kutxarekin elkarlanean antolatu duen Photomiradas argazki lehiaketako irabazleak. Ekimenaren helburua da Erizaintzako Laguntzaile lanbidearen garrantzia azpimarratzea.

**Publikoaren saria Arrasaten**

Epaimahaiak emandako sariak kanpora joan dira eta publikoaren saria, berriz, Aritz Gordo arrasatearrak irabazi du, ondoko argazkiari esker.

23 lagunek eman dute izena lehiaketaren lehen edizioan, eta astelehenean eman ziren aditzera irabazleak: lehen saria Onileko (Alacant) Jordi Perezek irabazi du, bigarrena Abantoko (Bizkaia) Alberto Martinez de la Fuentek eta hirugarrena Baenako (Kordoba) Antonio Castrok. Beste era batera, baina datorren urtean ere egingo da.



Publikoaren saria. | ARITZ GORDO

## Gaur hasi eta irailaren 12ra bitartean Udal Liburutegiak udako ordutegi berezia izango du

Ekainaren 30era arte, hots, atzora arte, 10:00etatik 20:30era eten barik egon da zabalik Udal Liburutegia. Bada, gaur hasi eta 31ra arte honakoa izango da ordutegia, astelehenetik egubakoitzera: 10:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 20:00etara. Abuztuaren 1etik 31ra, berriz, goizez bakarrik: 09:30etik 14:30era. Azkenik, irailaren 1etik 8ra 10:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 20:00etara egongo da zabalik eta irailaren 12tik aurrera, berriz, bazkalorduko eten barik: 10:00etatik 20:30era.





Mari Jose Gil. | X.U.

## "Txapelketa honen ostean atseden hartuko dut"

**X.U.** | ARRASATE

Mari Jose Gilek beteranoen txapelketa jokatu zuen aste bukaeran Aguilasen. Hiru domina lortu zituen bi egunetan: zilarra 800 metrotan, 3.32 denbora eginda; urrea 1.500 metrotan, 6.57 denborarekin; eta urrea 5.000 metrotan, 25.53 denborarekin.

"Oso gustura itzuli naiz han lortutakoarekin, eta izugarri poztu naiz, 77 urte dituzten atletak oso sasoi onean ikusi ditudalako. Horrek animatu egiten nau. Orain, baina, atseden hartuko dut".

**Jonathan Perezek urrea**

Bestalde, Avilesen jokatu zituzten Espainiako txapelketa autonomikoetan pertiga jauziko bigarren kategorian urrea irabazi zuen Jonathan Perezek (4-80). Castellon, berriz, kadeteen Espainiako txapelketan zilarra lortu zuen Istar Dapenak (3,80). Marka pertsonala gainditu zuen Dapenak.

# Arrasatek eta Durangok ez dute batera jarraituko

Iaz egin zuten hitzarmena, baina desadostasunak izan dituzte bi taldeek




Duela urtebete Mojategin batu ziren Arrasateko eta Durangoko ordezkariak, hitzarmena sinatzeko. | GOIENA

**XABIER URTZELAI** | ARRASATE

Urtebete pasa da ondoko erretratutik, Arrasateko eta Durangoko errugbi taldeetako ordezkariak elkarrekin, proiektu bateratu baten alde. Neurri handian, bi taldeek –nork bere kategorian– zituzten beharrek bultzatuta erabaki zuten bat egitea, baina emaitza ez da nahi modukoa izan, eta elkarri eskerrak emanaz, bertan behera utzi dute hitzarmena.

Asmo onenarekin egin zuten hitzarmena, baina emaitza onak eman zitzan hainbat zailtasun zituen. Durangok Arrasate harrobi-talde moduan nahi zuen, helburu nagusia durangarren taldea sendotzea izanda. Eta hori onartuta ere, Arrasatekoek Kanpanzar Harrobiak talde lehiakor egin nahi zuten; hor egon dira desadostasunak. Hala, aurrerantzean talde bakoitzak bere bidea jarraituko du.

**Balorazio positiboa**

Ikasturtea amaituta, ARTtik denboraldiaren gaineko balorazio "oso positiboa" egin dute. Kategoria guztietan ordezkariak izatearekin batera –gazteenek Hernanirekin jokatzen dute–, errugbi eskolak eman dituen emaitzekin pozik azaldu dira.

## 'Tropela.net' eta Xantiniren porra, Tourra jarraitzeko bi modu

**X.U.** | ARRASATE

Bihar hasiko da Tourra, eta lasterketa jarraitzeko eta posturak egiteko aukera eskainiko dute bi porra horiek, *Tropela.net*-ek sarean eta Xantiniren porra ezagunak Monte eta Estrella tabernetan. Tropela Elkartea irabazi asmorik gabeko elkartea da. Euren helburua euskara eta teknologia berriak uztartzea da, eta txirrindularitzarako afizioa erabiltzen dute aitzakia modura. Aurten errekorra gainditu nahi dute, 11.500 kiniela gaindituta –doan da.

Bestalde, Monte eta Estrella tabernetan sekulako arrakasta duen porra egingo du Xantini taldeak. Domekan 14:00ak arte hartuko dituzte apustuak.



Alberto Contadorren alde egiteak segurua dirudi. | 3.BP.BLOGSPOT.COM

## Gorka Kintanak Sustrai-Aloñan jokatuko du

**X.U.** | ARRASATE

Gorka Kintana jokalari arrasatearrak elastiko zuri-morea gorriagatik aldatuko du, Arrasatekoak Oñatin jokatuko du-eta datorren denboraldian.

Hala, Arrasateko antolatzailea da EBAn izango duten urte exigentearen aurrean Sustrai Aloñak egin duen lehen fitxaketetako bat. Kintanak badaki kategoria horretan jokatzea zer den, Azpeitian –Iraurgin– egon zen duela bi urte, baina azken denboraldian talde zuri-morea sendotzeko ezinbesteko jokalaria izan da MUn.

Talde zuri-moretik onartu dute Kintanak hutsune handia utziko duela taldean, eta denboraldi gogorra dutela aurrean.



TXOMIN MADINA

## Saskibaloi campusean

Astelehenean hasi zuten, Ointxe! Saskibaloi Taldeak antolatuta, saskibaloi campusa. Eta, asteleheneko sargoriak atzean utzita, eguaztenean Iturripen harrapatu genuen neska-mutiko koadrila galanta, giro freskoagoaz saskibaloian jokatzen baino gehiago, saskibaloiko baloiekin jolasean. Ez da–eta gauza bera. Izan ere, campuseko arduradun Gorka Zurututzak onartu zuen egun hauetan gazteekin jolas egitea dela helburua.

## Antiguoko torneoa irabazi berri du Ibai Bolinagak, eguaztenean

**X.U.** | ARRASATE

Ibai Bolinaga pilotari arrasatearrak denboraldi ederra darama, dagoeneko lau final poltsikoratu ditu-eta. Eta, gutxigatik ez dira bost izan, eguaztenean Antiguon gailendu bazen ere, egun batzuk lehenago, eta kontrario berak aurrean izanda, galdu egin zuen-eta Añorgan finala.

**Donostian, txapela**

Eguaztenean jokatu zuten Ibai Bolinagak eta Lizartzako Jakak Antiguoko txapelketako finala. Aurrean Etxaniz eta Aizpuru azpeitiarrak izan zituzten, esandako moduan, egun batzuk lehenago aurrean izan zuten bikote bera.

Harmailetan Arrasateko zale asko batu ziren, Bolinagaren jarraitzaileak, eta etxeko ordezkariak jokatutako partidu serioaren testigu izan ziren, tanto bakarra galdu zuen-eta –hiru errebote eramateko gauza izan zen.

Arrasatekoak hartu zuen partiduaren pisua, aurrean zuen bikoteak tanto politak egin zituelako, baina baita hainbat akats ere. Oraingoan, baina, Añorgan galdutako finalaren arantza atera ahal izan zuten (22-16).

**Añorgan eskuko arazoekin**

Añorgako torneoko finala joan den zapatuan jokatu zuten, hilak 25. Partidu horretan Bolinagak Elgoibarko Arribillaga izan zuen bikotekide, eta partiduan ondo aurreratu baziren ere, Bolinaga justu ibili zen eskuetatik, eta kontrarioak markagailuari buelta emateko gauza izan ziren (22-20). Zorionez, egun gutxitan errekuperatu zen.



Arrasate Musikaleko musikariek 10. urteurreneko kontzertua eskainiko dute gaur. | ARRASATE MUSIKAL

# Arrasate Musikaleko Big Bandek estreinatuko du Udazabal egitaraua

- 10. urteurrenaren harira egingo du saioa taldeak
- Udazabal 2011 programan sartu dute ekitaldia

**ARANTZAZU EZKIBEL** | ARRASATE

Arrasate Musikaleko Big Band taldeak 10. urteurreneko kontzertua eskainiko du gaur Monterronen, 22:30ean, *A.M. Big Band Festibala 10 urte* izenarekin. Modu horretan, Udalak antolatzen duen Udazabal 2011 programari hasiera emango dio talde arrasatearrak.

Azken egunotan Alemanian izan dira Big Band taldeko kideak. Hain zuzen, martitzenean etorri ziren Munichetik. Bi hitzordu izan dituzte Alemanian. Zigor Martinez Big Bandeko zuzendariarekin martitzenean egon ziren irratiko lankideak, Municheko Europako Eskolako auditoriumean eskaini behar zuten kontzertuaren aurretik. Aurrez, domekan, Freies Musik Zemtrum auditoriumean izan zuten saioa.

**Gustura egindakoarekin**

Domekan eskaini zuten kontzertuaren gainean galdetuta: "Oso ondo joan da eta jendea gustura geratu da. Maila oneko taldea garela esan digute", azaldu du Martinezek. Gainera, Arrasateko musikariak eurak ere oso gustura geratu dira han egindako lanarekin. Behin kontzertua amaituta, gitarra hartu eta euskal kantuak jotzen ibili ziren, ikusleek horrela eskatuta: "Beste tonu bateko bisak", dio.

Eskainitako bi kontzertuak berdintsuak izan dira, errepertorioa ondo gertatuta eraman dute eta horixe izan da Alemanian eskaini dutena.

Egunotan izan dituzten ordu libreetan beste ekitaldi batzuk ikusi eta hiria ezagutu dute. Adibidez, big band profesional baten kontzertuan izan ziren, eta baita BMWren museoa ikusten ere. "Gainera, Mundumiraren antza duen merkatu baten ere izan gara", azaldu du Martinezek. Hortaz, musika zaletasuna aprobetxatu dute musika eskaini eta era berean musika kontsumitzeko ere.

**Musikariak gogotsu daude**

Gaurko kontzertuak kurtsoari amaiera emateko balioko du. Arrasateko musikariak oso motibatuta daude, eta pilak kargatuta etorri dira Alemaniatik. Oso ondo gertatu dute emanaldia: "Ondo jo eta ondo pasatzeko asmoarekin gaude", dio Martinezek.

Gaur egun taldean dauden musikariak eta aurreko 10 urteotan taldekoak izan direnak ere igoko dira taula gainera gaur Monterronen. Egitaraua aldetik azkeneko 10 urteetan jo izan dituzten pieza esanguratsuenak interpretatuko dituzte.

10 urte hauetan Big Band taldeak hiru zuzendari izan ditu: Jose Ramon Elkoro, Iker Olazabal eta Zigor Martinez.

**Udazabal 2011 egitaraua**

Urtero uda partean Udazabal egitaraua prestatzen du Udalak. Hala, dagoeneko gertu dute uztailean eta abuztuan herrian eskainiko dituzten ekitaldiak.

Musika, antzerkia, dantza... denetariko ekitaldiak izango dira. Gainera, eraikinetatik kalera atera dute aurten ere kultura: hala, Monterron parkean, Herriko Plazan eta Jose Letona plazan izango dira emanaldiak.

Datorren astean Kukai dantza taldeak *Karrikan* ikuskizuna eskainiko du Herriko Plazan. Ikuskizuna 20:00etan izango da, eta sei dantzarik eta DJ batek parte hartuko dute. Estilo, erregistro eta hizkuntza koreografiko berriak ikusteko aukera paregabea izango da Kukaik Herriko Plazan eskainiko duena. Gainera, euskal ikuskizunik onenaren saria lortu du *Karrikan* ikuskizunak.

Hurrengo aste bukaerari begira, egubakoitzean, zapatuan eta domekan izango dira emanaldiak. Eskaintza zabala izango da!

# Al-Andalus elkarteak errozioa ospatuko du

Egun osoko jaia antolatu du andaluzen elkarteak domekarako Arruena parkean

**A.E.** | ARRASATE

Urtero moduan, Arrasaten bizi diren andaluziarrek euren eguna ospatuko dute domekan. Errozioko erromeria egingo dute, Nuestra Señora del Rocio kofradiak antolatuta.

Egun osoko egitaraua prestatu dute, eta, gainera, antolatzaileek erroziorako bereziki gertatutako arropekin joateko dei egin dute.

**Ongietorria elkartean**

Goizeko bederatzietan ongietorria egingo diete Andaluziako hainbat elkarteri Al-Andalus elkartean bertan. Hara joandakoendako, gainera, salda egongo da.

09:45ean salbea abestuko du Al-Andalus abesbatzak eta ondoren Errozioko Ama Birjina aterako dute elkartetik Santa Teresa elizara eramateko. Zaldiek lagunduta egingo dute bidea. 10:15ean lore eskaintza egingo dute eta ondoren meza nagusia izango da. Mezatan Al-Andalusko abesbatzak abestuko du, eta Sueños de Andaluzia taldeak sevillar giroa jarriko du.

**Erromeria Arruenara**

Mezaren ondoren hasiko dute erromeria. Zaldiek eta Sueños de Andaluzia taldeak lagunduta Arruena parkeraino egingo dute erromeria.

Arruena parkean ospatuko dute errozioa; han egingo dute arratsalde pasa andaluziarrek. 19:00etan Errozioko salbea eskainiko dute Arruena zelaian eta Ama Birjina elkarte guztien mahaietatik pasako dute. 19:30ean amaitutzat emango dute ospakizuna. Gainera, egun osoan, Andaluziako jakiak jarriko dituzte hara joandakoek dastatzeko.



Al-Andalus elkarteak egindako ospakizuna. | GOIENA

## Arrasate Margo Taldeak erakusketa zabalduko du gaur

Gaur hasi eta uztailaren 15era arte Arrasate Margo Taldeko kideen lanak ikusgai egongo dira Harresi aretoan, 18:00etatik 20:00etara. Margo taldeko 15 lagunek jarriko dituzte eurek egindako lanak Harresin ikusgai. Gaur egingo dute irekiera, 19:00etan hasita.

## Punk-oi! doinuak nagusi izango dira zapatuan gaztetxean

Kontzertu indartsua antolatu dute gaztetxeko lagunek biharko. 21:00etan hasita, punk-oi! doinuek hartuko dute gaztetxea. Lau talde igoko dira taula gainera: BC Bombs (Bilbo), Aggressive Combat (Arrasate), Ultima Sacudida (Galizia) eta The Kates Maniacs (Arrasate).





# Bergararren beharrei begira egindako akordioa

Bilduk eta Aralarrek Udal Gobernurako adostutako oinarriak azaldu dituzte; batzordeak ere onartu dira

MONIKA BELASTEGI | BERGARA

Udalak badihardu forma hartzen. Bilduk eta Aralarrek osatutako Udal Gobernua eratuta dago eta akordio horren oinarri politikoak aurkeztu dituzte asteon. Horrekin batera, lehenengo osoko bilkura ere egin du udalbatzak astelehenean, ezohikoa, eta, besteak beste, batzorde informatzaileak eta alkateordeak onartu zituzten.

**Gobernu akordioa**

Prentsaurrekoan eman dute Bilduk eta Aralarrek gobernu akordioaren berri. Haien esanetan, bi alderdiek ordezkatzen dutenetik harantzago, "bergararren beharrei erantzungo dien" gobernu-akordioa nahi dute. Bestalde, lanerako elkartu izana "aberasgarria" dela uste dute, "elkarrizketa eta akordioaren bidez egin behar delako lan bergararrentzat".

Bergarako pentsamendu, sinesmen eta ohitura aniztasuna aintzat hartuta, "guztion elkar-ulertzetik" abiatzen da Gobernu Taldearen lana eta "guztion arteko errespetua eta elkarlana bultzatzea" izango da euren eginkizuna. Hartutako konpromisoen harira, "Udal demokratikoa eraikitzeko konpromisoa" hartu dute, eta "Udaleko ordezkari guztien ikusmoldeak errespetatzekoa".

Horrekin batera, udal irekia eta aurreratakoia nahi dutela azpimarratu dute. "Batetik, Udala herritarrei eta herriko eragileei zabaltzeko helburuarekin parte-hartzea bultzatuko dugu", esan dute, eta horretarako tresnak jarriko dituztela. Bestetik, "berdintasunean, gizarte justizian eta ingurumenarekiko errespetuan oinarritutako politika garatzeko konpromisoa" hartu dute.

Euskal Herriak bizi duen gatazka politikoaren aurrean, "prozesu politikoa bultzatzeko konpromisoa" hartzearekin batera, Euskal Herriak "indarkeria guztien desagerpena bideratuko duen agertoki demokratikoa behar" duela uste dute eta "indarkeriazko adierazpen guztiak desager daitezen lan egiteko konpromiso tinkoa" hartu dute. Helburu horiek lortzeko, euren egiten dituzte Gernikako Akordioan jasotzen diren oinarriak.

**Ardurak banatuta**

Hamaika batzorde informatzaile eratu ditu Udal Gobernu talde berriak eta asteleheneko osoko bilkuran onartu zituen udalbatzak, aho batez. Ondoko taulan ikus daiteke zeintzuk diren batzordeok, eta baita batzordeburuak ere.

Alkateordeari dagokionez, hori ere onartu zuten astelehenean. Lehenengo alkateordea Maren Belastegi izango da.

Era berean, Jesus Elortza alkatea eta Maren Belastegi zinegotzia liberatzea eta jardun berrian izango duten soldata –orain arteko lanbideetan zuten berbera– ere onartu zituen udalbatzak, aho batez.

Gai-zerrendako puntu horretan hitza hartu zuen EAJko ordezkari Aintzane Oiarbidek. Batetik, esan zuen liberazio eta soldatekin ados daudela, baina zehaztu zuen "jauzi kualitatibo bat" gertatu dela aurreko agintalditik, "soldata batekin bi liberatu" zeudelako; "orain, aldiz, bi liberatu bi soldatarekin". Bestetik, Udalaren egoera ekonomikoaz kezkatuta daudela azpimarratu zuen eta Udal Gobernu taldeari eskatu zion "gai hori sakon aztertzeko bilkura monografiko bat". Elortza alkatea, berriz, ados azaldu zen bilkura hori egiteko eta baita Udalaren zorra jaisteko "proposamenak eta ideiak batzeko eta elkarlanean jarduteko ere".

**Udaletik gaindiko ardurak**

Udalak beste erakunde batzuetan izango dituen ordezkariak ere izendatu zituzten: Mankomunitaterako, Jesus Elortza, Lauri Askargorta eta Maren Belastegi; Mendi nekazaritza elkarterako, Ariane Kareaga; Ur Kontsorziorako, Jesus Elortza; Suradesarako, Jesus elortza eta Maren Belastegi; eta Debagoieneko Industrialderako, Jesus Elortza.



Udalbatza berriaren lehen ezohiko osoko bilkura, astelehenean. | MONIKA BELASTEGI

## Batzorde informatzaileak



**Lurralde Antolamendua eta Ingurumena**: Jesus Elortza, Maider Arregi*

**Ogasuna**: Lauri Askargorta

**Kultura eta Jaiak**: Leire Iruin

**Obra eta Zerbitzuak**: 'Piti' Madariaga

**Gizarte Zerbitzuak**: Jabi Bengoa, Maren Belastegi*

**Barne Batzordea**: Jesus Elortza

**Euskara**: Maren Belastegi

**Kirola**: Lauri Askargorta

**Turismoa eta Ondarea**: Juanje Amasorrain

**Gazteria eta Hezkuntza**: Maren Belastegi

**Auzoak eta Landa Garapena**: Ariane Kareaga

**Partaidetza eta Komunikazioa**: Ez da berezko batzordea; Jaione Isazelaia

*Batzordeburuarekin hainbat zeregin partekatuko ditu.

NIRE USTEZ



JON SUINAGA

## Garai onak Euskal Herriarentzat

Zortzi urte baino gehiago kolaboratzen komunikabide honetan noizean behin iritzi zutabea idazten, eta sekula ez nuen aukera izan kontatzeko gauzak ondo doazela gure Herrian. Urrutira joan gabe, orain ez hainbeste, artikulu baten izenburua justu oraingo honen kontrakoa zen: *Garai txarrak Euskal Herriarentzat*.

Zorionez, azken gertaerekin gauzak asko aldatu dira eta 180 graduko biraketa bat egon da, denon mesederako. Oraindik asko falta da situazioa guztiz normalizatua izateko, zeren eta ezin baitugu ahaztu oraindik pertsona eta ideia askok ilegalizatuta jarraitzen dutela, edo mehatxu terroristak hor jarraitzen duela edo beste hainbeste eredu... Baina garbi dago zabaldutako bidea oso itxaropentsua dela.

ETAren bukaera sekula ez da hain gertu eta garbi ikusi. Ezker abertzalea bide bortitzagatik desmarkatu egin da eta apustu hori sendoa eta atzeraezina da. Azken hauteskundeetan abertzaleen emaitzak ilusio handia sortu du. Zoritxarrez, eszenatoki berri honetan alderdi espainolistek ez dute maila ematen eta iraganean ainguratuak jarraitzen dute.

Nor izango da gai euskaldun guztiak elkarrekin, bakean, eta norabide berdinean geratzeko?... Esandakoa, garai onak Euskal Herriarentzat.

**"Alderdi espainolistek ez dute maila ematen"**

PATXI CASTRO
Era guztietako aulkien konponketa
• Tapizatu lanak
• Zumezko eta kanaberazko artikuluen salmenta
• Besaulki, mahai, saskiak e.a
943 78 71 65
639 01 69 69

Mujika gozotegia
Bizkotxoak
Erreilenoak
Tostoiak
Artekalea 3 BERGARA
943 76 10 34

SANTOS
TIEN 21
Etxetresna elektrikoak eta argiztapena
Masterreka 2. BERGARA
Tel.: 943 76 26 10

GOIERRI
Autogidarien Eskola
Gidabaimena euskaraz zein gazteleraz atera dezakezu
Informa zaitez
Fraiskozuri plaza 5 Tel.: 943 76 41 50 BERGARA

## Lanerako prestakuntza ikastaroak langabeentzat

M.B. | BERGARA

Lanbide zerbitzuarekin elkarlanean langabeendako lanerako prestakuntza ikastaroak antolatu ditu Udalak. Lau ikastaro dira eta izena emateko Arrasateko Lanbide zerbitzura deitu behar da, 943 79 71 45 zenbakira.

Batetik, elektrizista industrial ikastaroa antolatu du. Urriaren 14tik 2012ra arteko martxoaren 9ra arte izango dira eskolak, guztira 420 ordu, 14:30etik 19:30era. Parte hartzeko beharrezkoak dira eskola ziurtagiria, elektrizitatean oinarrizko ezaguerak izatea eta lan baimena eguneratua izatea.

M-H CNC prestatzaile-programatzaile ikastaroa azaroan 7tik 2012ko otsailaren 9ra izango da, guztira 335 ordu, 08:00etatik 14:30era. Parte hartzeko beharrezkoak dira eskola ziurtagiria, tornu eta fresatzeko makinetan oinarrizko ezaguerak izatea eta lan baimena eguneratuta izatea.

Tornulari-fresatzaile ikastaro bi egongo dira: bata irailaren 30etik abenduaren 22ra izango da; 260 ordu dira guztira, 14:30etik 19:30era. Bestea abenduaren 16tik 2012-ko apirilaren 13ra izango da; 14:30etik 19:30era. Bietarako ala bietarako beharrezkoak dira eskola ziurtagiria eta lan baimena eguneratuta izatea.



Herritarrak dantza saioa ikusten. | JOSETXO ARANTZABAL

# Dena prest herriko erromeria jendetsuena ospatzeko

### Aurreko agintaldikoei lekukoa hartuta, Gobernuko kideek aurreskua egingo dute

MONIKA BELASTEGI | BERGARA

Ohiko igoerak abiatu zituen atzo, eguena, San Martzial jaiak. Ohi bezala, herritar asko igo ziren San Martzialera, letania errezatuz, eta, meza entzun eta gero, San Joxepeko erretiratuek prestatutako txokolatea hartu zuten.

Bihar, zapatua, jarraituko dute jaiek: 19:00etan umeendako bonba japoniarrak jaurtiko dituzte San Martin plazan eta ekitaldi hori bukatu eta gero, buruhandi eta erraldoiek kalejira egingo dute erdigunean barrena.

Egunik handiena, baina, domekako erromeria izango da. 09:30ean Alborada izango da Lizarrako gaitariekin, Zumarragako trikitilariekin, Bergarako Udal Txistulari Bandarekin eta Incansables txarangarekin. 10:00etan gurdia abiatuko da San Martzialerantz eta 11:00etan meza nagusia egongo da. 12:00etan, berriz, dantza saioa egongo da, eta baita Juan Mari Narbaiza eta Jose Luis Gorrotxategi bertsolarien emanaldia ere. Aipatzekoa da, bestalde, kantina eta txosna Aranzadi ikastolak kudeatuko dituela aurten eta batutako dirua ikastetxea egokitzeko egingo dituzten lanetarako izango dela.

**Ohiko aurreskua**

Bertsolariek saioa amaitu eta gero, ohiko aurreskua egingo da eta udalbatza berria estreinatu egingo da zeregin horretan. Hain justu ere, udalbatza berriko bost kidek egingo dute ohiko aurreskua: Jesus Elortza alkateak eta Lauri Askargorta, Leire Iruin, Maren Belastegi, Justina Elexpuru eta Jaione Isazelaia zinegotziek, hain justu ere.

16:00etan jolasak eta herri kirolak egongo dira ume zein gaztetxoendako eta 17:30ean irrintzi lehiaketa egongo da. Iaz antolatu zuten lehenengoz lehiaketa hori eta herritar askok hartu zuten parte. Hori ikusita, aurten ere antolatzea erabaki dute. Bada, horretarako zein 18:00etan egongo diren sokatira eta txinga lehiaketetarako izen-ematea 17:00etan irekiko dute, ohi bezala, zelaian.

Herri kirol txapelketarekin batera, erromeria hasiko da 18:00etan, Unsain taldearekin. 19:30ean Lizarrako larrain-dantza egiteko aukera egongo da Lizarrako gaitariekin eta Incansables txarangak eta Zumarragako trikitilariek ere saioa egingo dute.

Ohi bezala, jaitsierak emango dio amaiera erromeriari. 21:00etan jaurtiko dute jaitsiera iragartzeko txupinazoa eta Askatzun eta Santa Marina parean fandango eta arin-arina dantza egin eta gero, San Martin plazan bukatuko da jaitsiera.

**Autobus zerbitzua egongo da**

Erromeria egunerako dohaineko autobus zerbitzua jarriko du Udalak. 09:30etatik 14:00etara eta 16:00etatik 20:30era egongo da zerbitzua. Gorako geltokia Oxirondo plazan egongo da; beherakoa, San Martziago ziburuen parean.

Egun horretan ezingo da zelaira autorik sartu, bertara jan-edanak eroateko ez bada. Hala, materiala laga ondoren, ibilgailua kendu egin beharko da handik. Bestalde, autoek, Santa Marinatik igoko diren arren, jaitsi Surratik egin beharko dute.

**Ingurumena zaintzeko deia**

Udalak erromeria egunean landa eremua zaintzea eskatzen du oinarrizko arau batzuk kontuan izanda. Beste batzuen artean gomendatzen du landatutako zuhaitzekin kontu berezia izatea, zaborrak jasotzea, iturria eta bestelako elementuak zaintzea eta, ahal den neurrian, autorik ez erabiltzea.

Kontuan izanda Udalaren jabegoko lursailak ez ezik beste partikular batzuenak ere erabiltzen direla, lursail horietan aipatutako neurriak bereziki betetzea eskatzen dute.

## 'Bateragune'-ko inplikatuak askatzeko eskatu du Udalak

M.B. | BERGARA

Astelehoneko osoko bilkuran, *Bateragune*-rekin lotutako Bilduren adierazpen instituzionala eztabaidatu zuten eta aurrera egin zuen Gobernu Taldearen aldeko botoekin, EAJren abstentzioarekin eta PSE-EEren kontrakoarekin.

Bilduren arabera, epaiketa hori epaiketa politikoa da eta haren helburu nagusia da "zabaldu den garai politiko berria oztopatzea eta garai hori zabaltzen ahalegin berezia egin duten hainbat ordezkari politiko zigortzea". Era berean, "Espainiako Estatuaren sakoneko defizit demokratikoa eta botere banaketarik eza erakusten du".

Horrekin guztiarekin, "auzian inplikatuta dauden kide guztien berehalako askatasuna eta absoluzioa exijitzen" du Udalak eta "epaiketa politikoak behin betikoz alde batera utz daitezen" ere eskatzen du.

EAJk bere botoaren azalpena emateko orduan esan zuen adierazpenak dioen gehienarekin ados egon arren, testua alderdien artean adostu ez izana dela abstentziorako arrazoia.

## Bilkura deitu dute martitzenerako Eleak ekimenaren barruan

Eskubide guztien defentsan jarduteko herrian abian jarritako Eleak ekimenak mobilizazioa deitu du uztailaren 5erako, martitzena. 19:30ean, San Martin plazan. Etzi, domeka, San Martzialen ere egongo dira atxikimenduak batzen, 11:00etatik 13:00etara, zelaian.

## Xabalote gaztelekutik Gamarrara irteera uztailaren 9an

13 eta 17 urte arteko gazteendako da irteera. 10:30ean abiatuko dira autobus geltokitik eta 19:00etan itzuliko dira. Izena emateko kultura etxera edo Xabaloteko gaztelekura joan behar da. Irteeraren prezioa bost euro da eta izen-ematea uztailaren 6an itxiko dute.

25 URTE SENTIMENDUZ

GOIENA TELEBISTA | BERGARAKO ORKESTRA SINFONIKOAREN 25. URTEURREN KONTZERTUA

UZTAILAK 2, 14:35 ETA 22:00

UZTAILAK 3, 10:30 ETA 23:25



DEBAGOIENDARROK DIOGUNA goiena

# Aristi: "Sekulako babesa eman didate taldekideek"

## Mikel Aristik astelehenean irabazi zuen Gipuzkoako Itzulia; eguenean Bizkaikoa hasiko du

**XABIER URTZELAI** | BERGARA

Bergarako Lokatza Ziklismo Eskolako historian lehen aldiz, bertako txirrindulari batek Gipuzkoako itzulia irabazi du.

Astelehen jaso zituen Mikel Aristik Zarauzko helmugan besoak, etapan ihes-lagun –eta itzuli osoan kontrario gogor– izan zuen Grant Ferguson eskoziarra atzean utzi ostean: "Izugarria izan da, eta kanpotik etorri diren ziklistek gogortasuna gehitu diote probari; lautadan tropelean ezkutatzen ziren, baina ikustekoa zen aldapa gora zelan egiten zuten tira".

Hala, Aristik behar den moduko amaiera eman dio itzuliari, lider egonda maillota defendatzeaz konformatu barik, azken etapa ere irabazita –Aian eta Olaberrian bigarren egin zuen, eta Andoainen eta zarautzen irabazi. Eta, garaipen horrekin Aristik duela urte batzuk beste debagoiendar batzuk egindakoa errepikatu du; Markel Irizar oñatiarrak, eta Mikel Roldan aretxabaletarrak ere Gipuzkoako Itzulia irabazi zuten-eta.


Aristi, helmugan. | LOKATZA

### Taldekideen lana

Azken bi etapa horietan, baina, maillot horia janzteko gogotik egin behar izan zuen lan, bai Aristik, eta baita Sumoficeko taldekideek: "Garaipena ez da Mikelena bakarrik izan, taldeak sekulako lana egin du, Jon Aranzabal, Beñat eta Jokin Etxabe, Xabier Gallastegi, Andoni Lasa, Eneko Lizarralde, Hodei Orobengoa, Asier Taboada eta Andoni Rico-k, gazte mailan gutxitan ikusten den lana egin dute-eta", adierazi du guztien entrenatzaile Iker Sanchezek". Eta Aristik gaineratu: "Halaxe izan da, azken bi etapetan sekulako babesa eman didate, eta horri esker irabazi dut".

Gipuzkoako Itzulia irabazita, datorren eguenean Bizkaiko Itzulian izango da Bergarakoa, Markinako talde batekin korritzen, utzita: "Urtero ziklista bat eramaten dugu, eta aurten Mikel dago ondo". Han ere ziklista kanpotarrekin egingo du topo Aristik: "Eskoziarrekin batera errusiarrak ere egongo dira, eta Bizkaian ez dut hemen bezain talde ona izango, hori seguru".

Benetako saria, baina, uztail erdian iritsi daiteke, uztailaren 16an Italian korrituko dute-eta gazte mailako Europako Txapelketa: "Esperantza baino ilusioa daukat, baina oso zaila izango da aukeratuen artean egotea, Espainiako hautatzaileak sei ziklista baino ez dituelako eramango".


TXOMIN MADINA

## Bainua hartu eta gero, ipuinak

Bergarako Jardun euskara elkatea euskarazko irakurzaletasunaren astea egiten dabil bigarren urtez, eta ekimen horren barruan, astelehenean Amaia Etxeberria bergarararren eskutik ipuin kontaketa egin zuten Agorrosingo kanpoko igerilekuan. Egiten zuen beroari aurre eginaz, ez ziren gutxi izan ipuin kontalariarengana hurbildu ziren neska-mutikoak.

## Emilia Nogalesen margo erakusketa ikusgai dago, uztailaren 17ra arte, Aroztegi Aretoan

Elgoibarko artista Emilia Nogalesen (1966) margo erakusketa egongo da ikusgai Aroztegi aretoan uztailaren 17ra arte. *Beraientzat* izenburupean aurkeztu ditu Emiliak Aroztegin ikusgai jarri dituen margolanak. Ordutegiari dagokionez, aretoa zabalik egongo da martitzenetik egubakoitzera (18:00-20:00), eta zapatuetan: (12:00-14:00 eta 18:00-20:30). Domeketan, berriz (12:00-14:00). Emilia Nogalesek 2004an jarri zuen lehen erakusketa, jaioterrian, eta izandako arrakastaren ostean egun estudioa du, Elgoibarren.

# Pedro Rico beste lau urtez izango da Bergara KEko presidente

**X.U.** | BERGARA

Martitzenean egin zuen Bergara Kirol Elkarteak batzar orokorra, eta egun hura zen, hain zuzen, Bergara Kirol Elkarteko presidente izateko hautagaitzak aurkezteko azken eguna: "Baina inork ez du hautagaitzarik aurkeztu eta horren aurrean jarraitzea erabaki dut", adierazi du Pedro Ricok. "Astelehenean azalduko ditugu zuzendaritza taldea osatuko dugunon izenak. Gertu nago beste lau urtez lanean jarraitzeko, baina garbi daukat azkenak izango direla".

Batzar orokorrean kuoten igoera ere onartu zuten bazkideek, 5 euroko igoera bazkideendako (65 euro) eta 10 eurokoa gurasoendako (180 euro).

### Zuzendaritza taldea zabaldu

Batzarrean hartu zen beste erabakietako bat zuzendaritza taldera kirol elkarteko gainontzeko sekzioak batzea izan zen: "Pilota, eskubaloia, saskibaloia... horiek Bergara Kirol Elkarte barruan egon dira beti, baina ez dute zuzendaritza taldean ordezkaritzarik izan. Hori aldatu egin dugu, eta hilero batzartu egingo gara denak, herriko kirol taldeen jarraipen hobea egiteko helburuaz".


EGAÑA

## Le Mans-en, euskaldunen artean bigarren

Azken urteotan moduan, Hanka Labanka patinaje taldekoek ezin izan diote Le Mans proba esanguratsuan parte hartzearen tentaldiari eutsi. Joan den asteburuan, erretratuko 13 lagunak egon ziren, bi taldetan banatuta. Talde baten helburua ez zen lehiatzea, baina bederatzi lagunez osatutako beste taldeak aurreko edizioetako denbora hobetzea zuen helburu. Eta lortu egin zuten: 102. sailkatu ziren, 600 talderen artean.



# Gurean ere ospatuko du 25. urteurrena Orkestra Sinfonikoak

Gaur egun Antzuolako lau herritarrek parte hartzen dute Bergarako Orkestra Sinfonikoan

USOA AGIRRE | ANTZUOLA

Duela 25 urte, 1986an sortu zuten Bergaran Orkestra Sinfonikoa Antzuolako eta Bergarako musikariek. Joan den zapatuan eskaini zuten urteurrena ospatzeko kontzertu berezia Bergaran; eta gaur, egubakoitza, Antzuolan izango dira. Izan ere, orkestraren sorreratik egon dira Antzuolako musikariak bertan eta antzuolarrena ere bada, modu batera edo bestera.

1986ko uztailaren 5ean eskaini zuen lehen kontzertua orkestrak. 45 lagun ziren orduan eta horien artean zeuden Eli Ena, Jesus Mari Amasorrain, Nerea Garitano, Belen Azkarate, Patxi Olabarria eta Gurutze Toledo antzuolarrak. Gaur egun lau musikari antzuolar daude taldean: Oihana Jauregi, Tzeitel Martin, Eider Tapia eta Andoni Iparragirre.

**Egitaraua**

Gaur, egubakoitza, 22:00etan eskainiko du Bergarako Orkestra Sinfonikoak kontzertua Torresoroan. Alfredo Gz. Chirlaqueren gidaritzapean, honako hauek joko dituzte: Synphony (J.C. Bach), Patrizia (A. Gz. Chirlaque), Carmen (G. Bizet), The Mision (E. Morricone), Close to you (Carpenters), Urdiroz (A. Gz. Chirlaque), Salbadorren heriotzean (X. Lete), Avatar (J. Horner) eta Bost lerro (A. Gz. Chirlaque).




Lau musikari antzuolarrak, Bergarako kontzertuaren aurretik. | PATXI OLABARRIA

## San Martzial eguna pasata, jaiak jarraitu egingo du aste bukaeran Lizarraga auzoan

USOA AGIRRE | ANTZUOLA

Atzo izan zen San Martzial eguna eta zapatuan jarraituko du Lizarragan jaiak: 11:00etan plater jaurtiketarako frogak; arratsaldean ohe elastikoa eta gaztelu puzgarria; 16:30ean plater tiraketa txapelketa; 18:00etan txokolatada; 20:00etan trikitilariak; 21:00etan bertso-afaria Ander Lizarralde eta Unai Muñoarekin; ondoren suzko erruberak; eta bukatzeko erromeria Unanue, Agirre eta Biteririrekin.

Domekan 11:30ean txirrindulari igoera; 12:00etan meza eta ondoren salda; 13:00etan txirrindularien sari-banaketa eta dantzariak; arratsaldean erromeria; 21:00etan bukatuko dira jaiak.

NIRE USTEZ

IÑIGO RAMIREZ DE OKARIZ



## Nora goaz

Bilduk herrietan izandako hauteskunde emaitzekin harritu gara, eta denok galdetzen dugu zerk bultzatu duen hainbeste herritar Bildu bezalako koalizioari botoa ematera. Antzuolako kasuan, hipotesiak ugariak izan daitezke: Sortu legeztatu ez izana, bakegintzari bultzada bat ematea, talde erakargarria aurkeztea... edo herri-programa atsegina izatea. Aurreko hipotesiak erantzuteko jendearekin egon behar denez, dagoeneko esku artean dudan froga fisikoari helduko diot, hipotesitako bati erantzuna eman asmoz; hau da, hauteskundetarako partidu desberdinek aurkeztutako herri programak aztertuz. Hala, ezker abertzaleak aurreko legealdietan aurkeztutakoena baino apalagoa iruditu zait oraingoa, herri programa baino egun bizi dugun egoera berri honen inguruarekin lotuta dago gehiago, herri-ereduari buruz aipamen generikoak eginez. EAJrena, ahula, azalekoa, eta oinarrizko printzipio batzuk soilik adieraziz. Eta PSErena, ostera, zuzena, egunerokotasunean eta ekintzetan oinarrituz. Beraz, azterketa sinple honetatik ze ondorio atera dezakegu? Agian herri-programari esker irabazi dituela hauteskundeak Bilduk? Kontua da, nire ustez, Antzuolaren etorkizun laburrerako benetako herri-eredu programarik ez dugula oraindik, nahiz eta norbaitek esan lezakeen bezala, bakegintzan oinarritutako herrigintza ez ote den nahiko. Eta agian hasteko, ez dago gaizki. Zorionak Bilduri, eta jaixak eta oporrak ondo pasatu herritar denok!

**"Herri-eredu programarik ez dugu oraindik"**



ANTZUOLAKO UDALA

## Udaleku irekiak, gaur hasita

Gaurtik uztailaren 14ra bitartean udaleku irekietan izango dira herriko 110 bat ume. Horiekin batera ibiliko dira koordinatzailea eta 14 begirale. Goizero elkartuko dira eskolan 9:30ean eta 13:00ak bitartean jolas ugari egingo dituzte. Jaietako eguenean bukatuko dituzte udalekuak, ohiko bazkari eta jaiarekin.

OHARRAK

**ERRETIRATUEN BAZKARIA**

Uztailaren 10ean erretiratuen bazkaria izango da eta izen-ematea uztailaren 4an eta 5ean egin beharko da erretiratuen elkartean, 16:00etatik 18:00etara. 5 euro ordaindu beharko dira.

**JAIETAKO HERRI-AFARIA**

Uztailaren 16an herriko jaietan txosnetan egingo den afarirako txartelak salgai daude Arin, Mox eta Larrea tabernetan, 15 eurotan. Erosteko azken eguna uztailaren 10a izango da.

**ERAKUSKETA**

Eskulan erakusketa egongo da aste bukaeran Olaranen.

## Bi alditan lehertu dute olio-ontzia jasotzen duen erretilua

Udalak jakinarazi duenez, azken hilabetean bi aldiz kondondu behar izan dute pilotaleku ondoan dagoen etxeko olio erabilia jasotzeko edukiontzia. Udalak jakin duenez, bi aldiz lehertu dute olio-ontzia jasotzen duen erretilua, petardoekin. Oraindik susmorik ez duten arren, "gai honen gainean" daudela jakinarazi nahi izan diete herritarrei, eta "lasai egoteko, zerbitzua ez dela etengo". Bestalde, ekintzen arduradunei, "hartutako arriskuaren eta herritarrei sortutako eragozpenen inguruan hausnar dezatela" eskatu diete.




| MGEP | OÑATI Gestio Heziketa |
|---|---|
| • Sistema Elektroteknikoak eta Automatizatuak<br>• Erregulazio eta Kontrol Sistema Automatikoak.<br>• Sareko Informatika Sistemen Administrazioa.<br>• Fabrikazio Mekanikoko Diseinua.<br>• Fabrikazio Mekanikoko Produkzioaren Programazioa<br>• Industri Ekipoaren Mantenimendua. | • Administrazioa eta Finantzak<br>• Idazkaritza<br>• Merkataritza, Kudeaketa eta Marketing-a |
| Kontsulta pertsonalak: | |
| 943 71 21 91<br>E-posta: aarriaran@eps.mondragon.edu | 943 71 80 09<br>E-posta: enpresagintza@enpresagintza.mondragon.edu |

LARREA
TABERNA
Kalebarren 17
ANTZUOLA

GAILUR
taberna eta gozotegia

Buztinzuri 13 ANTZUOLA
Tel.: 943 78 70 32

ANTZUOLA
Apainketak eta solamenduak
•
Pladurrezko dibisioak
Kalegoi 21 ANTZUOLA
676 997 400
Biltegia: 943 78 70 40

# Azken txanpan sartuta

## Euskal Jaiarekin agurtuko dituzte gaur gauean aurtengo sanpedroak

**E.MENDIBIL/M.BITERI** | ESKORIATZA

Amaitzera doaz gaur San Pedro jaiak. Aurretik, baina, ekimenez josita datorren Euskal Jaia dute eskoriatzarrok; askoren ustez, festetako egun politena.

Martitzen arratsaldean hasi zen guztia, Beñat Herce alkateak botatako suziriarekin; lanbroarekin lagunduta egon zen hori. Afaldu ostean, helduen danborrada egin zuten. Aurten, lihogintza gogorarazi gura izan zuten karrozan; iraganean inguruko baserrietako emakumeendako zeregin garrantzitsua zena. Lihoa egiteko erabiltzen zituzten tresnak erakutsi zituzten.

San Pedro eguna ere freskotasunarekin ospatu zuten. Eguerdian, mezan izan ziren batzuk; etxeko txikienak, ostera, Oihulari Klownen mamu txikiekin txundituta geratu ziren; musika bandako kideak ere jo eta su ibili ziren agertoki gainean. Arratsaldean, batukada taldeak hartu zuen lekukoa, plazan.

Atzo, arratsaldean, urteroko haurren danborrada eta Eskoitzako I. Banderia lortzeko koadrilen arteko jokoak egitekoak ziren, besteak beste.


Udalbatza berriko hainbat kide jaiak ospatzen.

### Jaien amaierako egitaraua

**EGUBAKOITZA**

**1**

- **11:00** Txistulari eta buruhandiekin kalejira.
- **12:30** Talogileak eta sagardoa plazan.
- **13:00** Herri kirolak plazan.
- **13:30** Trikitilari eskolako ikasleekin kalejira.
- **14:30** Herri bazkaria.
- **16:30** Apar festa Gorosarrin.
- **18:00** Kantu txapelketa plazan.
- **19:30** Errefuxiatu eta presoen aldeko ekitaldia.
- **19:30** Anje Duhalderen kontzertua plazan.
- **22:30** Pilota partiduak.
- **23:00** Deabru beltzak taldearen kalejira.
- **00:00** Jaiei bukera emateko bandera jaitsiera.
- **00:00** Drindotsekin dantzaldia.
- **00:00-03:00** Borondatezko alkoholemia kontrola.

**ZAPATUA**

**2**

- **18:00** Gimnasia erritmikoko erakustaldia Gorosarrin.


Zezentxoekin ederto moldatzen direla erakutsi dute hainbatek.


Abesbatzak ez du hutsik egin.


Txistulariak jo eta su ibili ziren San Pedro egunean lanean.


Musika bandakoak ere antzera dabiltza.


Umeek mamu txikiak beldurtu zituzten.


Los Estramboticos taldekoek Gorosarri bete zuten eguazten arratsaldean.




REHABILITACIONES IKERRA S.L.

ERAIKUNTZAK - PROIEKTUAK

Aranburuzabala 27 - ESKORIATZA
Tel.: 943 53 38 31. Mugikorra.: 630 087 071
E-posta.: re-ikerra@hotmail.com


Mariatxiak ere etorri dira herrira.

# Birusen kontra borrokatuko dira etzi, Errekan Goran

## Toni La Salek 'Birusen kontraerasoa' ikuskizunarekin emango dio hasiera jaialdiari

**MIRIAN BITERI** | ESKORIATZA

Etzi, domeka, hasiko da Aitzorrotz kultura elkarteak antolatutako Errekan Gora jaialdia, Toni La Sal artista gasteiztarraren *Birusen kontraerasoa* emanaldiarekin. Herriko Plazan izango da umeei zuzendutako ikuskizun hori, 19:00etan.

Elkarreraginezko ikuskizuna ikusteko aukera ederra. Gure bizitzetan eragina izateko asmoz, toki guztietatik iristen dira birusak, hala nola airetik edo ordenagailuen kableetatik. Baina zeintzuk dira birus horiek? Eskolara doaz? Zergatik dira horren txikiak? Toni La Sali hori guztia ez zaio askorik inporta. Kontu-kontalaria dirudi, baina ez da halakorik, nahiz eta motorista-kaskoa buruan jarri bere garbiketarako orga gidatzeko; ezta modan dauden umorezko bakarrizketa horietako bat ere, hemen ikusleek ez dituzte barre eta txaloak bakarrik egingo; batzuek txotxongilo antzezlan baten aurrean daudela esango dute.

Bost urte daramatza Antoine Bastero Toni La Sal antzezten; hain justu, 2006a ezkero. Baina txotxongiloekin urte asko daramatza lanean. 1980. urtean, Antzezkizuna antzerki konpainia sortu zuen, eta nazioarteko txotxongilo jaialdi askotan parte hartu izan zuen horrekin.

Aurtengo egitarauko berrikuntzetako bat da umeei zuzendutako ekitaldiak antolatzea. Horren harira, honakoa esan du Aitzorrotzeko Iñaki Kortazarrek: "Erronka moduan hartu dugu umeei lekua egitea".


Toni La Sal izango da domekan. | GOIENA

### Ikusgai daude Santa Marina eta Gaztañadui etxe tasatuen zerrendak

Dagoeneko argitaratu dituzte etxebizitza tasatuak zozketatzeko behin-behineko zerrendak; hain justu ere, Santa Marinako Visesak sustatutako udal etxebizitza tasatuen eta Gaztañadui kaleko 27. zenbakiko bi etxebizitzaren gaineko zerrendak dira horiek. Zerrendak Eskoriatzako Udaleko (*www.eskoriatza.net*) webgunean kontsultatu daitezke, eta baita udaletxeko iragarki oholean ere.

Kontsulta egitearekin batera, horien aurkako erreklamazioak aurkeztu ahal izango dira uztailaren 8a baino lehen udaletxean; 13:00etan itxiko da horretarako epea.

### Irailean okindegi berria zabalduko dute Jose Arana kalean

Eskoriatzak okindegi eta urdaitegi berria izango du udako oporren ostean. Bolintxoko Iñigo Muxikak jakinarazi digu dagoeneko lanean dabiltzala eta asmoa dela irailerako zabaltzea, Jose Arana kaleko 20. zenbakian; hain justu ere, Eduardo Gorosarri konposatzailearen jaiotetxean.

Muxikak azaldu du labeak jarriko dituztela eta han bertan egingo dutela ogia; horretaz gainera, askotariko hestebeteak eta bestelako jakiak ere salduko dituzte denda berri horretan. Aretxabaletan duten antzekoa izango dela aipatu du Muxikak.


Suziria, irteteko gertu.


Maria Angeles Arkauz, balkoietako loreen lehiaketako saria jasotzen.


Danborren burrunbak ozen entzun ziren martitzen gauean.




Batukada taldekoak plaza girotzen.


Barrakak, urteroko hitzordua.



**ESTHER KORTAZAR**

"Ahal dudan ekimen guztietara joango naiz semeekin, festetako giro ederraz gozatzera. Jaietan kalean ibiltzeko ohitura daukagu eskoriatzarrok".



**PABLO BEREZIBAR**

"Ondo-ondo pasatzen dut jaietan. San Pedro bailarako festa onenak dira niretako, besteak beste, danborrada dagoelako. Egun guztia ematen dut kalean".





**TERESITA ARROIABE**

"Guk ere jaiekin asko disfrutatzen dugu. Asko ibilitakoak gara eta orain zaintzen bagara ere, gustuko dugu jaien bueltan ibiltzea. Festetan beti alai".



**EDORTA LEGAZPIA**

"Ikasturtea ondo joan da eta orain jaiez gozatzea da kontua. Lagunok barraketan ibiltzen gara, batik bat, eta gauean bueltatxo bat ematen dugu, 01:30ak arte edo...".

ARGAZKIAK: E.MENDIBIL/A.AGIRIANO/I.SORIANO/M.BITERI



Zea Mays taldearen kontzertua. | GOIENA

# Zea Mays, Sorkun eta Anai-arrebak barikuan

Euskal Herri mailan indartsu dabiltzan taldeak gurean izango dira jaietako giroa alaituz

JAIONE CARPINTERO | ARAMAIO

Musika estilo guztietara egokitu nahi izan dute aramaioarrek. Horrela, jaietan zehar, hainbat estilotako taldeak izango dira jaietako protagonistak.

Sorkun, Zea Mays eta hasi berriak diren Anai-arrebak, Euskal Herri mailan momentu honetan oso indartsu diharduten taldeak izanik, jaietako egitarauan izango dira. Kontzertuokin, jaietara kanpoko jendea etorriko dela espero da, jende asko mugitzen duten taldeak dira-eta.

Kontzertu indartsu horiek uztailaren 1ean, egubakoitza, izango dira, 23:00etan, kultura etxearen eta kiroldegiaren artean kokatutako txosnetan.

Baina egun horretan, beste musika estilo bat gustuko dutenek ere atsegin duten musikaz gozatzeko aukera izango dute; izan ere, Herriko Plazan erromeria ere egongo da, 23:30etan, Erromeria.com taldearekin.



Sorkunen kontzertua. | GOIENA

**Zapatuan ere kontzertu ugari**

Kontzertuekin jarraituta, zapatu gauerako, hilaren 2a, alderantzizkoa antolatu dute: egun horretan, erromeria txosnetan izango da, 00:00etan, eta gainontzeko kontzertuak Herriko Plazan izango dira, 23:00etan.

Rock estiloa izango da protagonista egun honetan, Aramaioko El Exterminio de la Raza del Mono, Arrasateko Galerna eta Santurtziko Subversion X taldeak izango dira plazako agertokian joko dituztenak.

# Jaietako egitaraua

**EGUBAKOITZA**

## 1

**16:00** MUS TXAPELKETA, erretiratuen elkarteak lagunduta.

**19:00** PREGOIA.

**19:05** Trikitixa Eskolakoekin KALEJIRA.

**19:05** Bertso TRIKI POTEOA..

**19:30** UME TAILERRA, plazan.

**20:00** PAPARGORRI, kultura etxean.

**23:00** KONTZERTUAK: Anai-arrebak, Sorkun eta Zea Mays.

**23:30** ERROMERIA, plazan: *erromeria.com.*

▶ Gauean barrena droga *testing*-a.

**ZAPATUA**

## 2

**12:00** UMEENDAKO TAILERRA: Ponpaz ponpa.

**12:30** Patata tortilla LEHIAKETA. Patatak, gatza, olioa eta arrautzak antolakuntzak jarriko ditu.

**12:30** Biotzatarrak TXARANGA.

**17:00** PLATER TIROKETA, Kurtzegain elkarteak antolatuta.

**17:00** BRISKA TXAPELKETA erretiratuen egoitzan eta euren elkarteak lagunduta.

**18:00** TXIRRITOLINPIADAK, Txirritola elkarteak antolatuta.

**19:30** KALE ANIMAZIOA, Skandalue taldearekin.

**23:00** KONTZERTUAK, plazan.

**24:00** ERROMERIA, txosnetan.

▶ Gauean barrena, alkohol *testing*-a.

**DOMEKA**

## 3

**11:00** DIANA herriko txistulariekin.

**12:00** MEZA.

**13:00** Lagun Arteko DANTZARIEN emanaldia.

**16:30** JOLAS PARKEA, parkean.

**18:00** Iparraldeko HERRI KIROLAK, plazan.

**19:00** Otxandategi DANTZA TALDEA herrian barrena.

**22:15** GAUEKO IKUSKIZUNA, Deabru Beltzak.

**23:00** "#akanpadaramaixo. Eguraldi onarekin elizako eskaileretan; bestela, Sastiñan.

**00:00** BERBAPASIE.

**ASTELEHENA**

## 4

**11:00** UME JOLASAK, Gazte Asanbladak eta gazte lokalekoek antolatuta.

**13:30** Ttinbili Ttanbalan-en eskutik, umeendako IKUSKIZUNA, plazan.

**16:00** Koadrilen arteko PIKEA.

**19:00** Arrasate Musikalen EMANALDIA, kultura etxean.

**21:30** HERRI AFARIA. Afaldu eta gero, Beriba sanba eskolakoekin animazioa.

**01:00-05:00** DJ MIKEL.

▶ Gero, Urrezko Gibelaren sari ematea.



GOIENA

**HERRI KIROLAK** | DOMEKA | PARKEAN |18:00 Urtero egiten bada ere, aurten bereizitazun bat izango dute herri kirolek; Iparraldeko kirolak izango dira.

ARAMAIOKO UDALA
ARABA

"Aramaioko Udalbatzak
Jai zoriontsuak
opa dizkizue
aramaioar guztioi,
eta bereziki etxetik
kanpo zaudetenoi!"



AHTgelditu! ELKARLANA

Bizente Goikoetxea plaza 1 • ARAMAIO • Tel.: 945 44 50 16
E-posta: *udala@aramaio.org*

EUSKAL PRESOAK EUSKAL HERRIRA


Deabru Beltzak taldearen ikuskizuneko irudi bat. | DEABRU BELTZAK

# Deabru Beltzak taldearen 'The Wolves', domekan

## Kale ikuskizuna da, 22:15ean egingo dutena

**EDU MENDIBIL** | ARAMAIO

Deabru Beltzak taldearen eskutik, *The Wolves* gaueko kale ikuskizuna izango da bihar, zapatua, 22:15ean. Talde beteranoa da Deabru Beltzak: hainbat antzerki taldetan jardundako aktoreek sortu zuten 1996an eta ordutik hona hamar antzezlan aurkeztu dituzte han eta hemen.

Aramaiora ekarriko duten *The Wolves* lanari dagokionez, Hamelingo txirula-jotzailearen istorioa oinarritzat hartu dute Deabru Beltzak taldekoek.

**Hamelingo... piano-jolea**

Jakingo duzuenez, orain dela 800 urte inguru, txirulari batek Hamelingo arratoi inbasioa geldiarazi omen zuen. Arazoa bukatuta, beldurrak bidea eman zion ahanzturari eta haserreari ondoren. Gaur, 800 urte geroago, pasartea errepikatzear dago. Piano-jolea da oraingoan, gizaki bitxia eta ezkerrekoa, bere musikarekin hiria otsoen erasotik askatuko duena. Gainerakoa berdin gertatzen da: hiritarrak gertatutakoarekin ahanzten direla ikusita, piano-joleak mendekua hartuko du, otsoak hirira bueltan ekarriz, kaosa eta nahasmena pizteko...

Efektu berezi ugari dituen lana da. Era berean, txotxongilo artikulatu handi eta sofistikatuek hartzen dute parte. Esan bezala, musika-ikuskizun ibiltaria da gaur Aramaiora ekarriko dutena. Haur zein nagusiendako aukera aproposa izan daiteke. Eta kontuz gero herrian zehar ibiliko diren otsoekin... Bilboko taldeak eskaini duen ikuskizunak 45 minutu inguruko iraupena dauka.

# Bilduk eta Aramaioko Alkartasunak banatu dituzte udal batzordeak

**E.M.** | ARAMAIO

Hiltegi zaharreko esleipena eta Gorrien bideko konponketak onartzeaz gain, Udal Gobernua aurkeztu zuten asteleheneko ezohiko bilkuran: Ramon Ajuria alkatea izango da Ogasuneko batzordeburua eta gainerakoak Andoni Solupe (Hirigintza eta Gazteria-Migrazioa-Berdintasuna), Jose Ramon Uribe (Zerbitzuak), Ane Miren Etxebarria (Euskara eta Hezkuntza eta Ingurumena-Nekazaritza), Martin Etxabe (Mendia), Edurne Uribarren (Ongizatea) eta Lierni Altuna (Kultura eta Kirola eta Parte Hartzea-Auzoak). Altuna izango da lehen alkateordea eta Etxebarria bigarrena.

Batzordeak herritarrei irekiak izatea da helburua. Udal Gobernuko bozeramailea Lierni Altuna izango da. Osoko bilkurak hileko azkeneko eguaztenetan egitea adostu zuten.


Ekainaren 11n udalbatza osatu zeneko irudi bat | GOIENA

# 'Ponpaz ponpa', adin guztikoendako proposamena zapatu eguerdian

**E.M.** | ARAMAIO

Nork ez du xaboi-burbuilekin gozatzen? Gutxi izango dira horrelakoekin inoiz jolastu ez direnak. Horrelakorik bada, bihar, zapatua, *Ponpaz ponpa* ikastaroan parte hartzeko aukera izango du. Antolatzaileen arabera, 2 eta 99 urte bitarteko guztiei zuzendutako ekitaldia da zapatukoa. Bizpahiru ordu iraungo du eta 12:00etan hasiko da. Parte-hartzaileek forma ezberdineko burbuilak egin ahal izango dituzte, begiraleen laguntzarekin. Beraz, xaboi-burbuilen gaineko sekretu guztiak ikasiko dituzte haur, gazte eta nagusiek.


Burbuilekin jolasean. | GOIENA

## Murugaineko indusketen aurkezpena eguaztenean Sastiñan

Eguaztenean, uztailaren 6an, Murugaineko indusketen gaineko aurkezpen hitzaldia izango da Sastiñan, 19:00etan. Bestalde, uztailaren 17tik 24ra trintxeren mapa osatzeko auzolana deitu dute. Izen-ematea udaletxean egin daiteke, 945 44 50 16 telefono zenbakian.

## Adineko pertsonen 14. topaketa uztailaren 8an Gasteizen

Zuiako Koadrilak antolatuta, adineko pertsonen 14. topaketa egingo da Gasteizen egubakoitzean, uztailaren 8an. Aramaiotik autobusa 09:15ean aterako da, ikastolatik. Gasteizen bisita egin ondoren, bazkaria Fundacion Estadio jatetxean izango da eta ondoren bingoa eta dantza.

BEHI-ALDE
ERKOP
**BEHI-ALDE, koop. e.**
Olaeta-Aramaio (Araba)
**Zuzenbide postala**
Apartado 44
20500 Mondragon
GIZATASUNA LANEAN MONDRAGON
Tel.: 945 45 01 00
945 45 03 15
Faxa: 945 45 01 00
945 45 03 15

EKI TABERNA


**Razioak**, **ogitartekoak**, **hanburgesak** eta **entsaladak** ostiral eta larunbat gauetan
•
Aurretik enkargatuz gero **bazkari** eta **afariak**.
ondo pasatu jaixek!
Pedro Inazio Barrutia 9 • ARAMAIO
Tel.: 945 44 59 88

dukiena
JATETXEA
ONDO PASATU JAIXETAN!
Azkoaga auzoa. Tel.: 945 44 50 86
ARAMAIO




Eguzki plakak Oñatiko osasun etxearen teilatuan. | MIREIA BIKUÑA

# Merkatuko eta kiroldegiko eraikin berriko 168 eguzki plaka saldu dituzte

## Oñatiarrek 98 erosi dituzte eta kanpotarrek 70

MIREIA BIKUÑA | OÑATI

Foru Aldundiko kideek martxoan Oñatira egindako bisitak erantzun ona jaso du. Energia fotovoltaikoetan inbertitzeko "garrantzia" azpimarratu zuten orduan. Udalak herritarren eskura jarri zituen kiroldegiko eraikin berriko eta merkatu plazako eguzki plakak. 750 eurotan jarri zituzten salgai.

Baldintza horiekin 208 eguzki plaka ipini zituen Udalak herritarren eskura, eta horietatik 168 saldu dituzte: 98 oñatiarrek eskatu dituzte eta gainerako 40ak kanpotarrek. Hori horrela, 40 daude saldu barik. "Interesatuek badute oraindik plakak erosteko aukera. Informazio gehiago behar badute *www.gipuzkoafv.net* ataria kontsulta dezakete, edo 900 84 50 44 telefonora deituta eska dezakete", esan digute Gipuzkoa Fotovoltaicoko kideek. Bestalde, eguzki plaken gaineko atarian simulazio bat egiteko aukera dute interesatuek: erosi gura dituzten plakak zehaztu –gehienez, zortzi–, norberak duen nomina ipini, eta orriak zuzenean kalkulatzen du zenbateko etekina aterako dion eguzki plakari. Aldundiko kideek egindako aurreikuspenen arabera, 25 urtean %6ko etekina emango lukete eguzki plakek urtero.

### Beste herri batzuetan aukera

Foru Aldundiak Zarautzen, Oñatin, Elgoibarren eta Zegaman abiarazi ditu energia garbia sortzeko proiektuak. Euren hitzetan, Oñatiko eta Zarauzko deialdiek izan dute erantzun onena. "Zarauzko plaka guztiak saldu ditugu dagoeneko. 261 eskaera jaso genituen, eta 210 bakarrik ditugu. Dena den, eskaera egin eta plaka barik geratu direnei, beste herri batzuetan erosteko proposamena egingo diegu", esan digute. Proiektua abiarazi duten herrietan hango bizilagunek dute lehentasuna, baina guztiak saltzen ez diren lekuetan gainerako herrietakoei eskainiko dizkiete.

### Laster, lagapena

Eguzki plakak erosteko prozesua zein puntutan dagoen galdetuta, zera esan digute: "Udaletan aldaketak egon dira. Hori horrela, laster hasiko gara eurekin lanean. Aste batzuk barru egingo diegu eguzki plaken lagapena herritarrei".

# Hasi dira baldosak ipintzen Errekalden

Errekalde auzoa eraberritzeko bigarren faseko lanak erritmo onean doaz. Goitik behera doan errepidearen ezkerraldeko espaloia zulatu ondoren, hasi dira baldosak ipintzen Errekalde Herri Eskolaren parean, eta zebra-bideak eta farolak non joango diren zehazten. Asteon hasi dira eskuineko espaloia apurtzen.



MIREIA BIKUÑA

# Sanpedroak Zubillagan eta Torreauzon

## Bi auzoetan askotariko ekitaldiak egingo dituzte gaurtik domekara arte

M.B. | OÑATI

Ekainaren 29a San Pedro eguna izan zen, eta haren omenezko jaiak ospatuko dituzte aste bukaeran Zubillagan eta Torreauzon. Askotariko ekitaldiak egingo dituzte gaurtik domekara arte.

### Torreauzokoak etxafuegokin

Torreauzoko jaiak gaur hasiko dituzte, 19:00etan, etxafuego jaurtiketarekin. Segidan, txakolin eta gazta dastatzea egingo dituzte. 22:30ean rock kontzertua izango da protagonista: Mendeku Itsua, Asfikzia eta Black River taldeek egingo dute zuzenekoa. Azken horiek, gainera, euren azkeneko zuzenekoa egingo dute.

Zapatuan auzoko txikienendako ordua izango da: 17:00etan puzgarriak izango dituzte eta 19:00etan txokolate-jana eta gozokiak. Aurretik mus txapelketa eta poteoa egingo dituzte. 20:00etan musika ipiniko dute giroa berotzeko.

Domeka etxafuegokin hasiko dute, eta 11:00etan abiaraziko dute Torreauzoko XIV. krosa. Ondoren, meza, luncha eta auzo-bazkaria egingo dituzte.

### Zubillagan bihartik

Zubillagan bihar hasiko dituzte jaiak. 17:00etan umeendako jolasak eta mus txapelketa egingo dituzte. 19:00etan, afaltzeko etenaldia tarteko, erromeria egingo du Kaixo taldeak.

Domekan auzoko bi erretiratuei omenaldia, meza nagusia eta bertso emanaldia egingo dituzte. Jaiak bukatzeko zinta lasterketa egingo dute, 17:30ean.



Parte-hartzaileak iazko Torreauzoko kroseko irteeran. | JULIO CALLEJA

## Marisol Ramosek bi proba irabazi zituen Murtziako beteranoen espainiako txapelketan

Korrikalari oñatiarra bi dominarekin itzuli da hilaren 24tik 26ra Aguilasen (Murtzia) jokatutako beteranoen Espainiako txapelketatik. W50 mailako probetan parte hartu zuen; alegia, 50-55 urte artekoekin, eta lehenengoa izan zen 800 (2.41.62) eta 5.000 metroko (19.18.90) probetan. Bietan ere, alde nabarmena atera zien bigarren sailkatuei.

## Gaur hasiko dituzte udalekuak 340 neska-mutikok: 10:00etan bilduko dira San Lorentzoko ETEOn

*Milakolore martxan* udalekuak gaur 10:00etan hasiko dituzte. 4-10 urte arteko 340 neska-mutikok askotariko ekintzak egingo dituzte uztailaren 29ra arte. Hainbat berrikuntza dituzte aurten: alde batetik, umeak San Lorentzoko ETEOn utzi eta jaso beharko dituzte; eta beste alde batetik, adin tarte bakoitzerako ekintza egitarau ezberdin bat osatu dute.

## Txanda txartela erabiltzen dutenek diru-sariak irabazi ahal izango dituzte uztailean zehar

Txanda dendarien elkarteko kideek kanpaina berezia abiaraziko dute uztailean. Txanda txartela erabiltzen dutenen artean sariak banatuko dituzte. Hain zuzen ere, 10, 20, 50 eta 100 euroko sari zuzenak eskura ditzakete ordainketa dendarien elkarteko txartelarekin egiten dutenek. Guztira, 136 sari banatuko dituzte, eta dirutan 2.000 euro. Sariak Txandako dendetan gastatu beharko dira.

# Euskal Herriko arku-tiroketa txapelketa jokatuko dute etzi

M.B. | OÑATI
Txantxiku Arkulariak taldeko kideek antolatuta –Gipuzkoako eta Euskal Herriko arku-tiroketa federazioekin batera– Basoko Euskal Herriko arku -tiroketa txapelketa jokatuko dute etzi, domeka, Oñatin. Arantzazu auzoan egingo dute proba, Zozopase gunean, 09:30ean hasita.

Antolatzaileek ez dute zehaztu zenbat tiratzaile egongo diren, baina 60-70 bat espero dituzte: besteak beste, Kantabria, Burgos, Errioxa eta Euskal Herrikoak. Horien artean egongo dira Txantxiku Arkulariak taldeko kideak: Koldo Elortza, Lander Elortza, Joseba Astondoa, Oihana Marzan, Rafa Ugarte eta Gorka Bikuña.



Txantxiku Arkulariak taldeko kideak. | TXANTXIKU ARKULARIAK

## OHARRAK

**ARAOTZEKO ZOZKETA**
Trinitate jaietako zenbaki sarituak hauek izan dira: lehen saria –landetxe baten aste bukaera bat–, 2.898 zenbakia; bigarrena –bildotsa eta urdaiazpikoa–, 1.040 zenbakia; eta hirugarrena –bildotsa–, 1.529. Hilabeteko balioa izango dute. Irabazleek Jai batzordeko kideekin jarri behar dute hartu-emanetan.

**IKASTAROAK KZGUNEAN**
Askotariko ikastaroak egingo dituzte KZgunean uztailean. Besteak beste, *Gmail, Metaposta, Writer, Doodle, Flickr, Wipideia* eta *QR kodigoak* ikastaroak. Interesatuek 943 08 16 34 telefonora deitu dezakete edo tutor.onati@kzgunea.net helbidera mezua idatz dezakete. Aldez aurretik izena eman behar da.

# Rock kontzertua, bazkaria eta manifestazioa egingo dituzte bihar 'Fan hemendik!' eguna ospatzeko

Egitarau zabala prestatu dute; bazkarirako txartelak Arranon, Bogan, Xagun eta Onan

M.B. | OÑATI
Herriko gazteek *Fan hemendik!* eguna ospatuko dute bihar. Musika, bazkaria eta manifestazioa egingo dituzte, besteak beste.

Festa 13:00etan hasiko dute. Trikipoteoa egingo dute, Arrano tabernan hasita. 15:00etan bazkaltzeko elkartuko dira plazako frontoian. Gainera, *Fan hemendik!* zapiak salduko dituzte bost eurotan.

18:00etan manifestazioa egingo dute kalerik kale *Fan hemendik, utzi bakean Oñati* lelopean, eta jaia bukatzeko, 19:00etan, musika izango da protagonista. Herriko hainbat taldek egingo dute zuzenekoa: Berri Tzaarrak, Intraba, eta Reaccion 912. Horiekin batera, rocka eta ska dantzagarria egiten duten D-Pintxos legazpiarrek parte hartuko dute. Gaua borobiltzeko, Miren, Agur eta Gorkak erromeria egingo dute.

**"Errepresio gogorra"**
Oñatiko gazteek azken urteotan uztaileko lehen aste bukaera erabili dute gaztetxea aldarrikatzeko: "Eta urtez urteko lanaren ondorioz, lortu dugu", diote. Hori horrela, aurtengo aldarrikapena aldatzea erabaki dute. "Egun Oñatiko gazteok arazo askori egin behar diogu aurre, baina bat nabarmendu behar dugu: indar okupatzaile espainiarrek gure herrian duten presentzia, eta horrek dakarren eskubide urraketa zuzena. Guardia Zibilak, urtez urte, errepresio gogorra erabili du", diote antolatzaileek.

Susana Arrese | Korrika Txantxikutarrak taldeko sortzailea

# "Korrika egiten disfrutatu gura dugu, ez dugu lehiatzeko grinik"

- Korrika Txantxikutarrak taldea sortu zuten orain dela bi hilabete
- Lehen aldiz talde moduan parte hartuko dute domekan, Torreauzon

MIREIA BIKUÑA | OÑATI
Lagunekin korrika egiteko helburuarekin Korrika Txantxikutarrak taldea sortu berri du Susana Arrese oñatiarrak. Zarauzko Triku taldea oinarri hartuta, GOIENAn idatzitako iritzi artikulu baten deialdia egin zuen. Dagoeneko 15 emakumek osatzen dute taldea. Olatera bueltatxoa egiteko egun baten izan ginen eurekin, erretratua egiteko eta taldearen kontuak ezagutzeko.

**Zergatik erabaki zenuen korrika egiteko taldea sortzea?**
Buruan nuen ideia, baina ez nekien martxan nola ipini. Martxoan *Lotsak baztertu eta animatu* delako iritzi artikulua idatzi nuen GOIENA paperean. Han azaltzen nuen Oñatin geroz eta jende gehiago ikusten nuela korrika eta gehienak, bakarrik. Askotan leku beretan ibiltzen ginen. Elkar ez ezagutu arren, berba egiten genuen.

Korrika bakarrik egitea aspergarria da oso, eta erregularrak izatea oso zaila da. Binaka edo taldeka egitea dibertigarriagoa da, esfortzu sentimendua txikitu eta motibazioa handitu egiten delako.

Iritzia idatzi ondoren, emakume batzuk hartu-emanetan egon ziren nirekin, taldeka korrika egiteko asmoarekin.

**Zeintzuk dira helburuak?**
Taldean gaudenok korrika egiten asko disfrutatzen dugu, baina orain askoz gehiago. Korrika egiteaz gain, kontu kontari ibiltzen gara, barre egiten dugu... Gehienok ez genuen elkar ezagutzen.

Probetan parte hartzen dugunean denborak hobetzea ez da gure helburua, lehia zentzu bako filosofia daukagu. Guk bi kontzeptu ditugu: errealista izan eta malgutasuna. Nork bere gorputza ezagutu eta ahal duen erritmoan korrika egin.

Taldea gomendagarria da korrika inoiz egin ez dutenendako, korrika egin nahi baina ausartzen ez direnendako eta, oro har, beste pertsona batzuekin entrenamenduak, esperientziak, aholkuak eta beste partekatu gura dutenendako.

**Triku taldea hartu zenuten erreferente moduan?**
Bai. Egun 50 emakume eta bi mutil gaude. Facebook eta Google Group erabiltzen dugu elkarrekin hartu-emanetan ipintzeko. Taldeko kide gehienak donostiarrak dira eta oso zaila da eurek egiten dituzten ekitaldi guztietan parte hartzea. Trikukook egiten dugun moduan, Korrika Txantxikutarrak taldekook irteera egiten dugun bakoitzeko, errepasoa egiten dugu sare sozialetan.

**Lasterketetan talde moduan egingo duzue korrika?**
Domekan, uztailaren 3an, Torreauzoko krosean parte hartuko dugu. Gure artean komentatu dugu, akaso, bakarrik ez ginatekeela apuntatuko. Proba azkarra da, baina guk antzerako erritmoa daukagu eta talde moduan parte hartuko dugu.

**Zenbat lagun zaudete taldean?**
Taldea orain dela bi hilabete sortu genuen, eta dagoeneko adin guztietako 15 emakume gaude.

> **"Taldea orain dela bi hilabete sortu genuen eta 15 lagun gaude"**

> **"Behin taldea sortuta, beste ekintza batzuk antolatuko ditugu"**

Gure asmoa da kopurua handitzea, ordutegi eta ekintza aldetik taldea aberasgarriago egiteko.

**Astero elkarrekin korrika egiteko hainbat deialdi egiten dituzue. Nolako harrera dute?**
Facebook eta Google Group bidez egiten ditugu deialdiak: eguna, ordua eta elkartzeko lekua zehazten dugu. Parte hartu gura dutenek erantzuna botatzen dute, eta badakigu, gutxi gorabehera, zenbat lagun elkartuko garen.

**Noraino joaten zarete korrika?**
Kiroldegi aurrean elkartzen garenean erabakitzen dugu. Baina, jeneralean, Olate aldera joaten gara.

**Elkarrekin korrika egiteaz gain, beste ekimenen bat antolatzeko aukerarik ikusten duzue?**
Bai [Barre]. Giro polita daukagu eta zailena egin dugu: lotsak baztertu, animatu eta elkar ezagutu. Torreauzoko krosean urdaiazpikoren bat irabazten badugu, bazkari ederra egingo dugu. Elkar ondo ezagutzeko aitzakia bikaina!

**Taldearen aurkezpena egingo duzue?**
Oraingoz, ez. Gure asmoa da ahoz ahoko publizitatea egitea. Korrikarena taldea sortzeko aitzakia izan da, baina ez ditugu beste kirol batzuk baztertzen: bizikletan ibili, mendira joan, paseatu... Baina beti laguntzarekin, bakarrik inoiz ez.

Garbi utzi gura nuke taldeko kide egiteak ez dakarrela inongo konpromisorik. Egiten diren deialdietan gure dutenek bakarrik parte hartzen dute.

**Taldean parte hartu gura dutenek zer egin behar dute?**
Facebooken gaude. Han bertan egin daitezke gure lagun, edo, bestela, mezu bat bidali niri, *susana.arrese@gmail.com* helbidera. Guztiak animatu gurako nituzke, ez bakarrik emakumeak, baita gizonezkoak ere.



Josune Bikuña, Susana Arrese, Jasone Elortza, Lukene Igartua eta Susana Azpitarte, taldeko kideak. | MIREIA BIKUÑA

# 280 neska-mutiko ibiliko dira udalekuetan astelehenean hasita

- Gaztetxoek Udaero egitasmoa dute, datorren astetik, irteera askorekin
- Futbol eskoletako neska-mutikoendako campusa egiten dabiltza

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETA

Aukera asko eta hainbat eratakoak dituzte neska-mutikoek uztailean. Arrakasta gehien duenetakoa udaleku irekiak dira, aurreko urteetan legez, eta aurten inoiz baino neska-mutiko gehiago izango dira, 280 hain zuzen.

Astelehenean hasi eta uztailaren 22a bitartean egunero elkartuko dira 4 eta 12 urte arteko neska-mutikoak Herriko Plazan. 31 begirale izango dituzte lagun eta dagoeneko egitarau dotorea dute gertatuta inor ez dadin aspertu. Betiko ekintza eta jaialdiak izango dira nagusi, horiek dituztelako gustuko umeek: eskulanak, uraren eguna, altxorraren bila jolasa, jinkana, azken eguneko jaialdia… Baina berrikuntzaren bat ere iragarri dute Gazteria Zerbitzuko antolatzaileek: "San Fermin eguneko ohiko egitaraua aldatu eta ezustekoren bat edo beste sartuko dugu. Uztailaren 8an izango da hori".



Udalekuetako neska-mutikoak azken jaialdia ikusten, iaz. | M.A.

Nagusienek txikiekin batera ospatuko dituzte jaialdiak eta egun bereziak, baina irteera gehiago izango dituzte: inguruko mendietara, igerilekura eta Galartzara gaua pasatzera, besteak beste.

**Gaztetxoendako Udaero**

Bestalde, 12 eta 16 urte artekoendako Udaero egitasmoa antolatu dute bosgarren urtez. Eskoriatzako gaztelekuko kideekin batera egun-pasako sei irteera, azken eguneko jaia eta lau egunetako irteera iragarri dituzte. Datorren astean, hain zuzen, hiru irteera dituzte zehaztuta: astelehenean, Lekunberrin dagoen Beigorri abentura parkera; eguaztenean, orienting lasterketa Urkulu urtegian; eta eguenean, Albiña urtegira egun-pasa.

**Futbol campusa lehenengoz**

Eta futbol eskolan dabiltzan neska-mutikoendako campusa antolatu dute lehenengoz. UDAk antolatu du Realarekin elkarlanean, eta Arizmendi Ikastolako Almen ikastetxean eta Ibarra futbol zelaian dabiltza egiten. Martitzenetik gaur arratsaldera arte, 2001ean jaiotako Debagoieneko neska-mutikoak daude elkartuta, 48 inguru. Datorren astean, ostera, 2000n jaiotakoen txanda izango da eta hurrengoan 2002koena.

NIRE USTEZ



NURIA FERNANDEZ DE ARROIABE

## Atxur edarra merke-merke

Oin arte pentsau izen dot, dirua apur bat neurtuta alkoholerako sarbidia eragotzi (zailddu bai, gutxienez) eggiten gutsela gure seme-alabai; izen be, konbinau bat hartzeko, esate baterako, 5 euro inguru biher dittuie. Gaiñera, adin txikikuai ezin dutse ustez iñok alkoholik saldu, eta tabernetarako sarbidia be galarazitta daukie, legez.

Oker ninguen, iñundik be! Gure gaztetxuok nehikua daue supermerkauren batera edo txinuen dendetara fatia, trankil-trankil eta diru gutxiren truke, botillakadak erosi eta litruak egitteko. Adibide bat ipiñiko dotsuet. Pentsau daigun 10 laguneko taldiak Beefeater botillia (12,94 euro), Peche botillia (6,75 euro), piruleta-likorra (7,54 euro) eta litro biko Kas botillia (euro bat) erosten dittuela. Bakotxak 3 euro ipinttia nehikua dau, 21 cl alkohol papuen sartzeko.

Adin txikikuai alkohola saltzeko eta tabernetan sartzen ixteko debekua, barrez, ez dau iñok errespetetan.

Horren aurrien, nora arraixo begiraketan dogu neskatilla-mutikuai supermerkauetan alkohola saltzen dotsienien, kale-kantoietan edaten ikusten dittugunien, tabernetan ikusten dittugunien…? Eta, beste alde batetik, nun demonio dauz danon dirutik janda legia bete eragitteko betebiherra daukienak?

Zeozer egin biherra dau, ez dozue uste? Gure gaztiak geruago eta gaztiago hasten die eta alkoholagaz (eta beste substantzia batzuekin) jolasien.

**"Bakotxak 3 euro ipinttia nehikua dau 21 cl alkohol papuen sartzeko"**

## Aretxarteren ekaineko zenbaki saritua 99.207 izan da

M.A. | ARETXABALETA

Aretxarte merkatarien elkarteak egin du udako zozketa eta zenbaki saritua 99.207 izan da (Txiki Zoo dendan banatua). Txartelaren jabeak uztailaren 10a arte du agertzeko epea, eta, bestela, lehenengo ordezko zenbakia duenarendako izango da: 104.087 (Gemes edertze aretoa; epea: uztailak 17). Eta hura agertu ezean, bigarren ordezko zenbakia duenak jasoko du: 100.538 (Anitua farmazia; epea: uztailak 24).

Irabazleak jasoko duen saria edertze txartela izango da nork bere burua zaintzeko, eta 500 euro izango ditu herriko hainbat denda eta zerbitzutan erabiltzeko: Lie opari-denda; L10 eta Irudi ile-apaindegiak; Gemes edertze aretoa; Lasai masajeak; Anitua farmazia; eta Txilarra belar-denda.

## Ikasturte bukaerako jaia du Jaikik eguaztenean

M.A. | ARETXABALETA

Jaiki elkarteak ikasturtea agurtuko du eguaztenean, hilaren 6an, jaialdia eginda (19:00). Musika eta dantza izango dituzte ardatz, betiko legez: afro, swing, boliwood eta beste hainbat doinu eta mugimendu. Herriko Plaza inguruan elkartuko dira eta ilunkera girotzeko aparteko ekitaldia egingo dute elkarteko kideek eta herritarrek bat eginda.

Ikasturtean egin dituzte hainbat ikastaro eta erakustaldi Jaikiko kideek; besteak beste, dantza afrikarren gainekoa, sormenari eskainitakoa, contact-inprobisazioa lantzekoa eta familian dantzarekin gozatzen ikasteko saioak.



MURRUKIXO

## Tipi-tapa Txindoki gailurrera

Murrukixo Mendizale Elkarteko familia giroko taldeak Txindokira egin zuen irteera. 34 lagun joan ziren, 19 neska-mutiko eta 15 guraso, eta Segurako aterpetxean lo egin ondoren Txindokiko gailurrerantz jo zuten; baita guztiak iritsi ere. Txindokiko Kilometro Bertikaleko igoera ikusteko aukera izan zuten, gainera. "Seme-alabengan mendizaletasunaren hazia erein gura dugu, hain gurea den mendira igotzeko ohitura barnera eta goza dezaten", diote antolatzaileek.

Jon Díaz
Harakina
Loramendi 1
Tel.: 943 79 71 69
20550 ARETXABALETA

Mobiliario ARENAZA
ALTZARIAK
DISEINUA
APAINKETA
Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA

### Txalaparta ikastaroa hasiko du martitzenean Loramendi Elkarteak

Txalaparta ikastaroa antolatu du Loramendi Elkarteak uztailerako, eta gaur da izena emateko azken eguna (Loramendin, 16:00-20:00). Prezioa: bazkideek, 10 euro; eta gainerakoek, 15 euro.

Martitzenetan izango dira eskolak, uztailaren 5etik 26ra bitartean (18:00-20:00), Aitor Ziardegiren eskutik.

### Hautza mendira joango dira Murrukixoko kideak uztailaren 10ean

Baztan aldeko Hautza medira (Nafarroa) antolatu du irteera Murrukixo Mendizale Elkarteak uztailaren 10erako (07:00etan, Azbe lantegi pareko geltokian). Lau bat orduko ibilaldia egingo dute.

Izena emateko azken eguna martitzena da, hilak 5, Murrukixoren Durana kaleko egoitzan (19:00-20:00). Prezioa, 15 euro.

### Biodantza ikastaroa egingo dute datorren astean Arkupen

Hainbat ikastaro egingo dituzte uztailean Kultura Sailak antolatuta, gehienak hiru egunekoak (astelehen, eguazten eta egubakoitza, 11:00-13:00). Datorren astean biodantza landuko dute adituen eskutik: biodantzan murgildu, autoestimua indartu… Debalde da eta Arkupen eman behar da izena.

ELGETA


Mikel Beretxinaga, iazko asto karrera irabazten. | JULIO CALLEJA

# Jaien ekuatorean, baserritar janzteko eguna da bihar

Gaur, barikua, Aimar Irigoien harri-jasotzaileak erakustaldia egingo du Herriko Plazan

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Atzoko Mozorro Egunaren ostean, gaur erretiratuen eta umeen txanda da. Umeendako jolasek hartu dute Salbador kalea, eta erretiratuek urteroko bazkaria egingo dute Espaloian. Aurretik, Aimar Irigoien harri-jasotzaile errezildarrak erakustaldia egingo du Herriko Plazan. Musikarik ere ez da faltako. Gaztetxeko lautadan sei taldek kontzertua egingo dute, 20:00etan hasita. Espaloian, aldiz, 80ko hamarkadako musika izango dute protagonista. Plazan Itzel taldeak egingo du berbena.

**Bihar, baserritar jantzita**

Baserritar arropak jantzita kalera irteteko eguna izango da bihar. Herri Eguneko klasikoek ez dute kalerik egingo. Badira urte batzuk asto karrera Mikel Beretxinagak irabazten duena. Elgetako XI. saria jokatuko da bihar eta 12:00etarako irteera puntuan beharko dute parte-hartzaileek; bi eta lau hankadunek.

Paella-janak ere arrakasta handia izan ohi du. 14:30 aldera hasiko dira banatzen eta prezioa lau euro da.

Aurretik, iazko jaietatik jaio diren umeei harrera egingo diete udaletxean. Ekitaldi berria da eta aurtengoan 14 umeri jantziko diete jaietako zapi bana. Zezenen eta buruhandien ostean, 20:30ean, Intxortako Lehoiak taldekoek sardina erreak banatuko dituzte. Gaueko dantzaldia Egan taldeak egingo du, 22:30ean hasita.

**Kirol hitzorduak**

Gaur, barikua, 4 t'erdiko pilota txapelketako finalak ditugu; 22:15ean jokatuko dira, Udal Pilotalekuan. Kadeteetan aurrez aurre izango dira Altuna amezketarra eta Tolosa anoetarra. 23 urtetik azpikoetan, berriz, txapela lortzeko lehian izango dira Joseba Ezkurdia arbizuarra eta Aitor Mendizabal antzuolarra.

Eta bolarien txanda bihar, zapatua, izango da. Urteroko bolo txapelketa antolatu dute eta 23:00etan hasiko da. Kiroldegiko bolatokian jokatuko da.

**Ferixa, domekan**

Idi proba barik egingo da Elgetako Ferixa Nagusia. Gainerakoan, askotariko produktuak egongo dira salgai. Jaien amaieran umeak izango dira protagonista: *playback* lehiaketa, buruhandiak, magia ikuskizuna eta bits festa izango dituzte. Gaztetxean poesia, gitarra eta saxo emanaldia egongo da ikusgai, 22:00etan.

## Hamaika gudariren testigantza dituen liburuaren aurkezpena

L.Z. | ELGETA

Eguaztenean, uztailak 6, *Maizales bajo la lluvia* aurkeztuko dute Espaloian. Aitor Azurki kazetari donostiarraren lana da eta Alberdania etxeak argitaratu du. Testigantza liburu bat da; izan ere, hamaika gudariren bizipenak jasotzen ditu. Aurkezpena 19:00etan hasiko da kafe antzokian.

**Testigantza gogorrak**

Liburuaren nondik norakoak azaltzeko, eguaztenean Elgetako aurkezpen ekitaldian izango da Aitor Azurki. Zuzeneko testigantzak ere entzungai izango dira; Marcelo Usabiaga gudaria Espaloian izango da eta baliteke liburuko protagonista gehiago ere joatea. Gainera, ikus-entzunezko bat ere prestatu dute gudarien testigantza gogorrenekin.

**Azken gudariak**

"Liburuan parte hartu duten hamaika gudarien artean ez dago Intxortetan egon zenik", aurreratu du Azurkik. "Fronte ezberdinetan egondako jendea dago, eta 20 urtetik gora frankismoaren kartzeletan eman dituen Marcelino Usabiaga". 90 urtetik gora dute, batzuk hil egin dira eta gertatutakoak ez ahaztea nahi dute.


L.Z.

## Su, labe eta kanpaia berriak

Sukaldea berritu eta garbiketa lanak egin dituzte. Elkartea itxita egon da ia bi astean eta aurreikusita dago gaurko martxan egotea. Giltza berrien banaketa ezin izan dute egin, jaien ostean egingo dute.

## Ozkarbi mendi taldearekin Zumaia eta Deba arteko bidea uztailaren 16an

L.Z. | ELGETA

Ozkarbi mendi taldeak irteera proposatzen du uztailaren 16rako, zapatua; Zumaia eta Deba arteko bidea egitea, hain zuzen ere. Izen-ematea zabalik da udaletxean edo *ozkarbi.menditaldea@gmail.com* helbidean. Prezioa bost euro da; garraio gastuetarako dira.

**Lau bat orduko ibilbidea**

Parte-hartzaileak 08:00etan elkartuko dira Ozkarbi elkartearen aurreko aldean Zumaia aldera egiteko. Lau bat orduko iraupena duen ibilbidea egin ostean itzuliko dira Elgetara, arratsalde partean. Bost euroak egunean bertan jasoko dituzte.

## Oihana Kortazar, etzi, Espainiako kopan eta txapelketan

Elgetarren omenaldia jasota, domekan jokatuko ditu Kortazarrek Espainiako kopa eta txapelketa. Europako txapeldun da dagoeneko elgetarra eta denboraldi bikaina egiten ari da. Hurrengo helburuen artean munduko txapelketa du.

## Autobus geltokia Berraondokuako sarreran bi egunez

Jaiak direla-eta plazako bidea itxita egongo da gaur, barikua, eta bihar. Hori horrela, autobus geltoki biak tokiz aldatuko dira eta erabiltzaileak Berraondokuako sarreran igo eta jaitsiko dira autobusetik. Goizean bi autobus eta arratsaldean beste bi izan ohi dira.

## Astelehenean zabalduko dira udaleku irekiak

Uztailarekin batera eta herriko jaien ostean prest dira udalekuak. Aurten ere umeak taldeka antolatu dituzte eta programa zabala antolatu dute, baita egun osoko irteera ere. Neska-mutikoek 09:00etan dute hitzordua astelehenean.

LEINTZ GATZAGA

## San Martin eguna ospatuko dute etzi Goierriko ermitan

Urtero legez Zurtitzako San Martin eguna ospatuko dute uztaileko lehen domekan gatzagarrek. Hala, meza nagusia (12:30) Dorletako santutegian beharrean Goierri auzoko ermitan esango dute. Ondoren, mokadutxoa eskainiko die Udalak elkartutakoei, eta gero, dokean jokatzeko ohitura dute gatzagarrek.

## Banatu dituzte karguak eta Mikel Gonzalezek hartu du alkate ardura

MIRARI ALTUBE | LEINTZ GATZAGA

Ekainaren 11n udalbatzak osatu eta zinegotzi karguak hartu ostean, bakoitzak zein ardura izango duen zehaztea geratzen zen agintaldiari hasiera eman eta lanean hasteko. Dagoeneko egin dute banaketa Gatzagako udalbatzako kideek; baita erakunde bakoitzerako ordezkariak izendatu ere.

Eugenio Otsoak Mikel Gonzalezi utzi dio alkate ardura Mexikoko lanak bukatu bitartean, urtarril inguru artean. Ogasun Saileko eta Kontuen Batzorde Bereziko burua ere Gonzalez bera izango da.

Hona hemen gainerako sailen ardura hartu dutenak: Hirigintza, Asier Ugarte; Mendiak, Imanol Saez de Viteri; Zerbitzuak, Juan Luis Zabala; eta Kultura Saila eta Gizarte Zerbitzuak, Iñaki Agirreurreta.

Eta ohiko osoko bilkurak noiz egin ere zehaztu dute: hileko hirugarren eguenean (18:00), bi hilabetean behin.

**Erakundeetako ordezkariak**

Bestalde, Gatzagako Udalak ordezkaritza duen erakundeetara joango direnak ere izendatu dituzte: Debagoieneko Mankomunitatera, Mikel Gonzalez; Bideberri mankomunitatera, Iñaki Agirreurreta; Leintzargi argi banatzaile enpresara, Mikel Gonzalez –presidentea–, Asier Ugarte –idazkaria– eta Imanol Saez de Viteri –bokala–; Jakion kontserbagintza enpresara, Mikel Gonzalez; Suradesara, Asier Ugarte; Debagoieneko Landa Garapenera, Imanol Saez de Viteri; Gipuzkoako ur kontsortziora, Juan Luis Zabala; Goiena Komunikazio Zerbitzura, Iñaki Agirreurreta; Eudelera, Mikel Gonzalez; eta hiltegira, Juan Luis Zabala.

TXIRRINDULARITZA

**Iban Velasco eta Markel Irizar** | Euskalteleko eta RadioShackeko ziklistak

# "Contador ondo errekuperatzen bada, nekez egin ahal izango diogu aurre"

- Ibarrak lehen aldiz izango ditu bi ordezkari Tourrean
- Irizarrek debuta egingo du; Velasco iaz ere egon zen



Markel Irizar eta Iban Velasco, Tourrera joan aurretik egindako azken entrenamendu saioa

**XABIER URTZELAI** | ARRASATE

Tourrera joan aurreko egunak estresanteak izaten dira: "Deseatzen nago hegazkina hartzeko eta lasterketa hasteko", diosku Irizarrek, egunotan hainbat konpromiso bete behar izan dituelako; kazetariekin, taldekideekin... Velascok, berriz, azken ordura arte korritu behar izan du; domekan Espainiako txapelketan egon zen. Tarte bat hartu dute, gurekin, "Tourra hasi aurretik azken kafe lasaia" hartzeko. Bihar, zapatua, historian lehenengoz izango dira bi debagoiendar Tourreko irteera puntuan.

**Markel, Tourrera lehenengoz.**

**Markel:** Gogoz nengoen. Euskaltel-Euskadin nengoenean zail ikusten nuen Tourrera joan ahal izatea, eta, errespetu guztiarekin, RadioShack taldeak fitxatu ninduenean ia erabat baztertu nuen aukera hori, talde honetan maila oso handiko ziklistak daudelako eta oso zail ikusten nuelako aukeratuen artean egotea. Arrazoi askorengatik, aparteko ilusioa egiten dit Tourra korritzeak.

**Hasteko, horrelako talde indartsuan, aukeratuen artean zaudelako.**

**Markel:** Izan ere, ni eta *Mura* [Dmitriy Muravyev] kenduta, begira gainontzekoak zeintzuk diren... Uste dut irteera puntuan elkarri begiratuko diogula, eta zera pasako zaigula burutik... ederrean sartu gaituzu, Johan! [Barre]. Taldeko bost kidek hamar onenen artean amaitu dute Tourra, etapak irabazi dituztenak daude; oso talde indartsua dugu eta izugarria da bertan egotea.

**Iban, zuk bigarren edizioa duzu Tourrean. Eman diozu Irizarri gomendiorik?**

**Iban:** Egia esan, Tourraren gainean ibili gara berbetan, baina Markelek ondo ezagutzen ditu hiru asteko itzuliak, Giroan eta Vueltan egon delako. Egia da Tourra beste kontu bat dela, ez ibilbidea gogorragoa delako, baina bai ziklista onenak batzen dituelako, eta denek ondo prestatzen duten proba delako.

Horrekin batera, Tourrean sekulako tentsioa egoten da, lehenengo kilometrotik hasita; denek nahi izaten dute aurrean joan, ihesaldietan sartu... Tourrean dena da garrantzitsua, eta egunak aurrera joan ahala tentsio hori igarri egiten du gorputzak.

**Besteak beste, inon baino komunikabide gehiago egoten delako detaile bakoitza zaintzen.**

**Markel:** Tentsio horren zergatia garbia da, nire ustez. Liderrek ezin dute denborarik galdu, eta horretarako aurrean egon behar dute. Baliteke, esaterako, Velasco edo Amets [Txurruka] moduko ziklistak lehenengo astean tropelaren atzealdean joatea, lasaiago, eurek mendian egin beharko dutelako lan. Nire liderrak aurrean egoteko, baina, nik ere hor egon behar dut, eta arriskuak hartu. Pentsa, guk lau lider ditugu, eta beste bizpahiru gizon eurei laguntzen, dagoeneko sei-zazpi pertsona aurreko postuetan. Eta talde bakoitzean batuketa bera egiten badugu, tropelean 60 lagun inguru lasai samar joango dira, atzean, baina beste 100 ziklista aurrean egon nahian ibiliko dira; eta 100 lagun inguru errotonda baten, eta zorua bustita badago... Egia da horrela ibiltzera ohituta gaudela, baina norbaitek akats txikiena egiten badu, haren atzetik doazen 40 lagunak lurrera doaz.

**Lautadan egokituko zaio bati lan egitea, maldan gora besteari. Baina biak taldearendako lanera.**

**Markel:** Bai, gure kasa ibiltzeko aukera gutxi izango dugu. Nik lehenengo astean gogotik egin beharko dut lan, lautadan liderrak babestu beharko ditut. Imajinatzen dut mendira iritsi arte Velasco ezkutuan joango dela.

**Iban:** Samuelen ondoan egotea dagokit niri, maldan gora ondo dabiltzan ziklistak ditugu taldean, baina nik ere lan hori egin beharko dut. Eta gustura noa, Samuk adierazi digu gorputzaldi onean dagoela, ondo sentitzen dela; eta Samuk oso ondo ezagutzen du bere burua; horren fama du ziklisten artean.

**Markel, Rabobank taldeak Gesink dauka, Leopard-ek Schleck, Liquigasek Basso, BMCk Evans, Euskaltelek Samu... lider garbiak daude hor; eta RadioShack-ek?**

**Markel:** RadioShack taldeak Brajkovic, Horner, Leipheimer eta Kloden ditu.

**Eta hori ona ala txarra da?**

**Markel:** Ona da taldea zuzentzeko lider on bat daukazunean. Halakorik ez dagoenean, talde bat Pantxo Villaren ejerzito bilaka daiteke. Gure kasuan, baina, zuzendari onena daukagu taldea kudeatzeko, eta aipatutako lider horiek oso harreman ona dute elkarren artean; horrek erraztu egiten du dena. Dena dela, nahiz eta oso talde sendoa izan, Alberto Contador ondo baldin badago zaila izango da hari aurre egitea.

**RadioShackek aukera handiak ditu bigarren eguneko erlojupekoa irabazteko.**

**Markel:** Azken urteotan Bruyneel-en taldeek irabazi izan dute erlojupeko hori. Aurten ikusten duguna da motzegia dela [23km]. HTC, Leopard, Sky eta Garmin taldeak distantzia horretan gertu izango ditugu. Luzeagoa balitz aukera handiagoak izango genituzke, baina kontu handiz prestatuko dugun proba da, Tourra hasi aurretik hainbat entrena-

## "Contadorrek ez du asmatu adierazpenak egiterakoan, baina txapeldun handia da"

**Ze harreman duzue Contadorrekin?**

**Iban:** Nik oso txikia, egia esateko.

**Markel:** Nik badut harreman apur bat, eta gizon zintzoa da. Egia da egin dituen adierazpen guztietan ez duela asmatu, baina mediatikoki horrenbeste jarraitzen zaituztetenean zaila izan behar du denean asmatzeak. Gehiago esango dut, errepidean nagusi dena nekez izango da popularra, eta nik nire jefearen ondoan ikusi dut hori. Albertok sekulako dohainak ditu, txapeldun handia da.

**Tourrean okelarik jaten duzue? Zaila da atseden egunean solomilloa jan zuela sinistea.**


Velasco eta Irizar. | X.U.I

**Iban:** Bai, jaten dugu, normalean entrekota, solomilloa edo oilaskoa. Aurten, gainera, taldeak sukaldari propioa eramango du Tourrera.

**Markel:** Jaten dugu, bai, normala da. Sukaldariarena taldeak egin dezakeen fitxaketa onena da. Contadorren auzian, baina, azalpenak emateko orduan ez dakit modu onena aukeratu zuen... Nik hemengo okelan erabateko konfiantza daukat, lasai jaten dut. Baina, esate baterako, aurten Velascok eta biok Txinan korritu behar dugu, eta han klenbuterola ez dago debekatuta, Txinan horrela gizentzen dute okela. Zelan jango dugu okela han lasai? Hain zuzen, iaz Txinatik, etxetik, zetorren gure taldekide Li Fuyuk positibo eman zuen klenbuterolaz. Eta UCIk ez zuen kontuan izan bere herrialdean substantzia hori librea dela. Hori justua da? Pikutara joan da haren kirol bizitza osoa.



ren aurretik, Arrasateko kafetegi batean gosaltzen. | XABIER URTZELAI

mendu saio egingo ditugu ibilbidean, eta hor-hor ibiliko gara.

**Erlojupeko horretan maillot horia har dezakezue, baina goizegi izan daiteke liderretako batek horia janzteko. Errebotez zuri?**

**Markel:** Ederra izango litzateke! [Barre]. Baina ez dut posible ikusten, besteak beste, lehenengo etapan indarrak gorde beharko ditudalako –erlojupeko probarako– eta denbora gal dezakedalako. Eta ez litzateke ohikoa izango hurrengo egunean liderra besteendako lanean ikustea, ura batera eta bestera eramaten. Erlojupekoan, bai, lan handia egitea egokituko zait, taldeko gizonik handiena naiz-eta; pisutsuena bai, behintzat [Barre].

**Iban, sprinter handiak geratu dira etxean; inoiz baino garbiago doaz taldeak sailkapen orokorraren bila?**

**Iban:** Gure taldean ere hala geratu da, Koldo [Fernandez de Larrea] etxean geratu da. Akaso, aurtengo Tourra ez da esprinterrendako Tourra. Bazirudien lehenengo 10 egunak lauak zirela, baina ez da hala, badaude maldak. Tour gogorra da, sprinterrek izango dituzte euren aukerak, baina, akaso, beste batzuetan baino gutxiago.

**Iaz gogoan dut Tourmaleteko etapa gorriz markatuta zeneukala, zure ametsa zen mendate hori aurrealdean pasatzea. Eta porru eginda ikusi zintugun Soulour-en. Aurten ere hortik pasako zarete.**

**Iban:** Akordatzen naiz, bai... Gogoan dut egun bat lehenago topera ibili behar izan nuela, taldekako sailkapenarengatik borrokan, eta hurrengo egunean, Tourmaleteko etapan gogotik ordaindu nuen hori. Egun txarra izan nuen han...

**Arantza hori atera beharko duzu.**

**Markel:** Lasai, *Velas*, aurten ni joango naiz atzetik, inork baino itxura eskasagoaz! [Barre].

**Markel, zuri gogorrak egingo zaizkizu mendate horiek, ala?**

**Markel:** Ba bai... Badakizu zein den Velascorekin eta hauekin dagoen aldea? Hasteko, ni baino eskalatzaile hobeak direla. Eta horrekin batera, Tour hasieran ni moduko ziklistok desgaste askoz handiagoa dugu, eta mendateko etapetan ere, medatea iritsi arte aurrean joan behar izaten dugu, liderrak ahalik eta ondoen kokatzen, ura eramaten... Eta lan hori guztia egin dugunean, maldan gora hasi behar!

***Tropela.net* webgunean, jendegehiagok aukeratu du Irizar Velasco baino; nork emango ditu puntu gehiago?**

**Markel:** Velascok, seguru! Taldekako erlojupekoak ematen du punturik? Bestela, jai! Niretako Tour gogorra izango da, ez dugu lider bakarra, lau ditugu, eta denak zaindu behar...

**Iban, eskalatzaile ona zara, mendateetan Samuren ondoan egon beharko den azken gizona, baina beti zaude ezkutuan. *Tropela.net* webguneko puntuazioarena beste adibide bat izan daiteke? Komunikabideetan gutxiago azaldu izana...**

**Markel:** Ibanen ostean utzi galdera horri erantzuten.

**Iban:** Egia da ezkutuan ibiltzen naizen ziklista naizela, besteak beste, ihesaldietan sartzea izugarri kostatzen zaidalako. Etapa hasieretan sufritu egiten dut, kosta egiten zait berotzea eta horren ordaina jasotzen dut gero. Bestalde, bai, komunikabideen aurrean ez naiz Markel bezain ondo moldatzen.

**Markel:** Ibani gertatzen zaiona da taldearendako egiten duen lana ez dela batere ikusgarria, baina izugarri baliotsua da. Eta bere ezaugarriek ere ez diote laguntzen; zergatik? Diesela da, etapa hasieran kosta egiten zaio; horrenbestez, ezin aurrean egon. Baina etapa bukaeran, 30 laguneko taldea baino geratzen ez denean, liderraren ondora iristeko gauza da, hari azken bultzada emateko, baina ez etapa bat irabazteko. Gertatzen dena da Euskaltelek ez duela Tourrean tira egiteko ardurarik hartuko; horrenbestez, ez da ikusiko. Aldiz, gurekin edo Contadorrekin egongo balitz, tira egin beharko luke, eta bikoitza balioko luke.

**Markel, sinesgarria da Hornerrek Kalifornian egin duena? 40 urterekin, eta denei egurra ematea?**

**Markel:** Bai, noski, eta emango dut azalpena. Egia da txirrindularitzak daukan fama daukala, eta baliteke merezita izatea, ez naiz horretan sartuko. Baina egia da, baita ere, pasaporte biologikoarekin inoiz baino kontrolatuago dagoela dena, esango nuke aurten inork ez duela positiborik eman. Orain arte beldurrez esango nuke hau, baina orain uste dut ziklismoa kirol garbienetakoa dela. Eta orain erantzungo dut zergatik dagoen Chris Horner horren ondo.

Fisikoki oso ondo ezagutzen du bere burua, urteek eman dioten esperientzia dauka. Eta, txirrindulariak gaztetan izaten duen presio hori kendu egin du gainetik. Etxean ondo har dezake atseden, seme-alaba nagusiak ditu, eta ez zaio axola aurtengoa azken urtea badu, daukanarekin lasai bizi daiteke. Inoiz ez bezala dabil gozatzen, eta ilusio galanta du. Nik uste dut hori guztia batzen denean, eta norbera sekulako txirrindularia denean, gorputzak errespetatuz gero posible dela 40 urterekin onenean egotea.

Eta Klodenekin gauza bera pasatzen da. Iaz dena erakutsi nahi zuen, eta pasa egin zen entrenatzen, gauzak diren moduan. Mallorcan onartu zidan aurten urte txarra eginez gero utzi egingo zuela, kitto. Eta presio hori gainetik kenduta, bikain dabil. Kontuan izan txirrindularitza erresistentziako kirola dela, eta urteekin irabazten da erresistentzia. Gainera, hori izan behar da joera, ziklistak geroago eta nagusiago erretiratuko dira.

**Euskaltel-Euskadik azken urteotan neurria eman du itzuli handietan; aurtengo Giroan, iazko Vueltan, Tourrean ere aurrean ibili zen Samu... Errematatzea falta da?**

**Iban:** Batez ere Tourrean. Giroan etapen bila joan zen taldea, eta helburua lortu zen. Vueltan Igor Anton erori izan ez balitz itzulia irabaziko zuela uste dut, baina bai, Tourrean zerbait falta zaigu, podiuma lortzea, eta iaz gertu egon ginen.

**Eta aurten posible da?**

**Iban:** Baietz uste dut, gauzak ondo irtetzen bazaizkigu, bai. Samu konfiantzaz dago, eta taldean ere helburu hori dugu buruan.

**Iaz bizikleta gainean 92 ordu egin ostean 39 segundogatik erabaki zen Tourra. Eta ez dakigu Contador Girotik zelan errekuperatuko den. Andy Schleckek inoiz baino gertuago izan dezake garaipena?**

**Markel:** Ez dut uste, bi ziklista horien artean iaz baino alde handiagoa dagoela esango nuke. Suitzan, esaterako, erlojupekoan Schleckek bi minutu eta erdi galdu zituen, eta topera joan zen. Cancellarak ez, Klodenek eta Leipheimerrek atera zioten tarte hori Schlecki.

**Eta zeintzuk daude gertuen?**

**Markel:** Andy Schleck, Gesink, eta, akaso, Van den Broeck ere multzo berean sartuko nituzke. Eta ondorengo multzoan, Evans, Vinokourov, Samuel eta Radioshackeko taldekideak.

**Bota podiuma.**

**Iban:** Contador, Schleck, Samuel.

**Markel:** Contador, Gesink, RadioShack bat, berdin dit nor.

**Biok egin duzue hirugarren postuaren alde.**

**Markel:** Hori da geratzen den bakarra! [Barre].

## Iban: "Lasterketan egoten den tentsioak gogortzen du Tourra"

## Iban: "Samuk esan digu ondo dagoela; bikain ezagutzen du bere burua"

## Markel: "Lider bat beharrean lau ditugu guk; lan handiagoa da hori"

## Markel: "Zuzendari on batekin ez dago hori kudeatzeko arazorik"

PILOTA

## "Pilotari baten ametsa bete dut, profesional moduan jardutea"

Aitor Mendizabalek denboraldi biribila darama, eta pilota enpresak ere jabetu dira horretaz. Hala, Antzuolakoak hiru urteko kontratua sinatu du Asperekin: "Bete dut ametsa". Hala, Mendizabalek gaur, egubakoitza, jokatuko du amateur moduan azken partidua, Elgetako lau t'erdiko txapelketako finala, Ezkurdiaren kontra. Profesional moduan debuta, berriz, uztailean egingo du.



Aitor Mendizabal. | X.U.

MENDIA

## Oihana Kortazar Espainiako txapelketan izango da, Lleidan

Elgetarren omenaldia jaso ostean, eta atseden hartzeko asti barik Lleidara egingo du bidaia asteburuan Oihana Kortazarrek, Espainiako Txapelketa korrituko du-eta domekan, II SkyMarathon Ribagorza Romanica izeneko lasterketa. Atletek 42 kilometro eta 2.970 metroko desnibela gainditu beharko dute.

TXIRRINDULARITZA

## Dorletako Amako 34. lasterketa egingo dute domekan, Gatzagan

Goizeko 10:00etan hasita elite eta 23 urtez azpiko ziklista onenak batuko ditu Dorletako Amako lasterketak, domekan. Gatzagako proba Euskaldun torneorako puntuagarria izango da. Urtero moduan, ziklistek hirutan igo beharko dituzte Gatzagako maldak, 119 kilometro izango dituen lasterketan. 13:00ak inguruan iritsiko dira helmugara.

MENDIKO BIZIKLETA

## Aretxabaletan egingo dituzte, domekan, MTB eta enduro probak

Mendiko bizikleta zaleek eskaintza bikoitza izango dute domekan Aretxabaletan. Batetik, II. Mendiko Bizikleta Martxa egingo dute (33 km), eta horrekin batera, I. Enduro proba (23 km, eta oso teknikoa). Irteera 09:30ean izango da, eta momentuan bertan eman ahal izango da izena, plazan.

# KULTURA

# 'Anexiñua' herri antzerkia Olaitturriren eskutik


Ana Mari Markuleta, Jabier Atxa, Leire Fernandez, Gaizka Palacin eta Jabier Altube. | ARANTZAZU EZKIBEL

- San Migel egunean eskainiko dute antzezlana Herriko Plazan
- Eguenetan egiten dituzte entseguak ikastolako aretoan

**ARANTZAZU EZKIBEL** | OÑATI

Makalenako kideek sortutako Olaitturri kultura elkarteak *Anexiñua* herri antzerkia eskainiko du irailean. Azken urteetako ohiturari eutsiz, Oñatiko historia eta gertaerak gogora ekarriko dituzte. Oñatiko jaietan, San Migel egunean aurkeztuko dute herri antzerkia. Iñazio Irizarrek eta Gerardo Elortzak idatzi eta zuzendu dute testua.

Martitzenean egin zuten antzerkiaren aurkezpena. Azaldu dute oraindik ordua eta lekua zehaztu barik dutela, baina arratsalde partean eta Oñatiko plazan aurkeztea dela asmoa.

### Oñati Gipuzkoan sartu zen

*Anexiñua* lanak Oñatiko 1845. urtera eramango ditu ikusleak, II. karlistada ondorengo herri girora.

Oñati Gipuzkoan sartu zen garaia erakutsiko dute eta prozesu hura zelakoa izan zen azalduko dute. Gauza jakina da Oñati ez zela eskubide eta betebehar guztiekin 1845. urtera arte Gipuzkon sartu. Aurretik ere era askotako hartu-emanak zituzten probintziarekin, baina garai, egoera eta komenientzia politikoen arabera aldatzen zirenak. XVI. eta XVII. mendeetatik aurrera, Oñatiko kondeen eragina eta indarra ahuldu eta txikitu ahala, geroago eta erlazio estuago eta ugariagoak zituzten oñatiarrek inguruko herriekin. Gebararrak Araba aldera jotzen zuten, han ondasun askoren jabe zirelako. Baina oñatiarrak Gipuzkoara makurtzen ziren.

1845ean Gipuzkoako Juntak erabaki zuen Oñati Gipuzkoan sartzea. Oñatik erabaki hura baieztatu edo ezeztatu egin behar zuen, eta horretarako batzar nagusi bat egin zuten irailaren 11n. Auzo guztietako ordezkariek eta herritar garrantzitsuenek parte hartu zuten; hala, batzar hartan jasotakoak azalduko dituzte *Anesiñua* herri antzerkian.


2010ean *Lizargarateko Txamao* antzeztu zuten. | MIREIA BIKUÑA

### Lau ekinaldi izango dira

Antzezlanak, guztira, lau ekinaldi izango ditu eta ordubete inguru iraungo du. Ekinaldiak izango dira: *udaletxean, auzotarrekin, kaletarrekin* eta *erabagixa*.

Musika eta bertsoak ere izango ditu antzezlanak. Txistulariak Aitor Atxa eta Juan Ramon Barrena izango dira, eta musikariak Asier Alonso, Jon Astigarraga, Mikel Biain eta Unai Bikuña. Ekinaldiak elkarren artean lotzeko bertsoak erabiliko dituzte. Zortzi bertsolari ibiliko dira, eta, denera, 18 bertso botako dituzte.

Dekoratuari dagokionez, udaletxeko areto nagusia irudikatuko dute, eta taula gainean alkatea, zinegotzia eta eskribaua egongo dira denbora osoan.

### Bigarren aldia izango da

2002an aurkeztu zuten lehenengo aldiz *Anexiñua* –lehenengo plazan eta gero Zubikoan–. Makalena elkartea 1977an hasi zen herri antzerkia egiten. Lehenengo *Herri ezteia* egin zuten; 1978an *Kondearena 1500*; 1980an *Unibertsitatea 1769*; *Oñati Gipuzkoan*, Txomin Agirreren *Garoa*, *Bustinzurietako Amaia*... izan ziren ondorengoak. Gero, 18 urteko etenaldia izan zuten eta 2002an berriro hasi ziren. Sei urteko etenaren ondoren, 2009an *Oñatiko hitzarmena* eta 2010ean *Lizargarateko Txamao* antzeztu zituzten Olaitturri elkarteko kideek.

**DATUA**

**60**

LAGUN INGURU

Antzezlanean 60 lagunek parte hartuko dute; taula gainean eta atzean.

### 1845eko Oñati zelakoa zen

Olaitturri elkarteko kideek prentsaurrekoan azaldu zuten XVI. mendean sasoi onak bizi izan zituztela Oñatin: "Bidaurreta eta Unibertsitatea egin ziren urteak onak izan ziren".

Unibertsitateko ikasle eta irakasleek dirua uzten zuten herrian, batez ere kaletarren artean. Artisau asko zeuden Oñatin. Hala, unibertsitatea institutu bilakatu zenean, herrian zegoen giro hura jauzi egin zen. Oñatiko jaun eta kondeen erruz Oñatik erlazio handia zuen Arabarekin, baina oñatiarrek Gipuzkoara ere jotzen zuten.



# Aretxabaleta erdi-erdian

## Etxebizitzen 2. fasea – Prezio berriak





**2 eta 3 logelako etxebizitzak**

•

**Sukaldea jantzita**
**(altzari eta etxetresna elektrikoak barne)**

•

**Trastelekua beheko solairuan**



GRUPO ORTUIBAR

**Etor zaitez informazioa jasotzera, konpromisorik gabe:**
Iturrizar 1, behea – ARETXABALETA – Tel.: 943 79 40 00
Ibargarai 36, behea – BERGARA– Tel.: 943 76 11 18
www.ortuibar.com - ortuibar@telefonica.net

EKAINEKO SARIEN IRABAZLEAK

SKUN-FUNKEKO KAMISETA ETA POLTSA
Antoni Uribarren Egidazu
Arrasate
skunkfunk

LIBURU SORTA UMEENTZAT
Miren Lazkano Balzategi
Bergara
PAMIELA

UMEENTZAKO JOKOAK
Marga Zabaleta Lamariano
Arrasate
ELHUYAR fundazioa

DVD-A
Angel Bergaretxe Abarrategi
Arrasate
EROSKI

ZINEMARAKO SARRERAK



Miren
Anduaga Kortabarria
(Antzuola)

Maite
Beitia Abarrategi
(Aramaio)

Esteban
Barandiaran Fdez. de Jauregi
(Arrasate)

Florida Guridi

Bazkide egiteko

Tel.: 943 25 05 05
e-postaz: *kluba@goiena.com*
*www.goienakluba.com*
Urteko kuota: 48€

goienakluba
Abantailaz betetako kluba!

# Musika beltzaren plaza izango da aurten ere Bergarako Espoloia

Bermuga 2011 egitaraua antolatu dute uztailerako eta abuzturako

**ARANTZAZU EZKIBEL** | BERGARA

Bergarako Udako Musika Gauak ekimenak 11. edizioa izango du aurten. Berrikuntza izena bera izango da: BERMUGA. Aldatuko ez dena, ostera, emanaldien kalitatea izango da. Bergarako Udalak Gaztelupeko Hotsak musika promotorearekin batera antolatutako programa izango da.

**Ds Faktor Quintet**

Emanaldi guztiak Espoloian izango dira, 22:00etan. Aurtengo edizioa Rs Faktorrek estreinatuko du. Gasteiztik datorren taldeak jazz estiloa egiten du. Ruben Salvador da taldeko buru eta gainerako musikariak ere eskarmentu handikoak dira. "Talde berria da, bi edo hiru emanaldi besterik ez dituzte eskaini, baina eskarmentu handikoak", azaldu du Ubane Uzin Gaztelupeko ordezkariak.

**Musika beltzari indarra eman**

Bergarako Udalak ikusi du desoreka handia zegoela hiriburu eta herri txikietako musika beltzaren eskaintzaren artean. "Jaietan ere eskaintza txikia izaten da musika estilo honetan", azaldu zuen aurkezpenean Leire Iruin Kulturako zinegotziak. "Hala, udako gauek eta Espoloiak aukera paregabea eskaintzen dute musika beltzaren inguruan giro berezia sortzeko", azaldu zuen Iruinek.



Rs Faktor taldeko buru Ruben Salvador da. | GAZTELUPEKO HOTSAK

**Maila handiko musikariak**

Cabra Mecanica, Señor No eta Calamarorekin ibilitako musikariak pasako dira Bergarako Espaloitik udako gauetan.

**BERMUGA 2011**

| UZTAILA | ABUZTUA |
| --- | --- |
| **01** Rs Faktor Quintet | **03** The Reverendos |
| **08** Alex Caporuscio Band | **10** Xabi eta Petti |
| **15** Nao | **17** Mursego |
| **22** Rico Maclarrin& Marcos Coll Band | **24** Troublemakers |

Kontzertuak Espoloian izango dira, 22:00etan.

# Egaña erregeak eta Lipus bufoiak umorez beteko dute Santa Ana

**A.E.** | OÑATI

Oñatiko bertso eskolak *Erregea eta Bufoia* ikuskizuna ekarriko du Santa Ana aretora gaur, 22:30ean. Sarrerak 6 euroren truke egongo dira salgai.

Iñaki Olalde bertso eskolako kideak azaldu du euskaraz eta bat-batekotasunean oinarritutako ikuskizuna dela. "Aktore bat eta bertsolari bat, hitzekin jolasean, elkarren kontra, baina elkarri lagunduz, lehian baleude bezala. Ikuskizunak antzerkia eta bertsolaritza uztartzen ditu modu inprobisatuan; gertukoa, umorez betea eta era interaktiboan", dio Olaldek.



Lipus eta Egaña. | GOIENA

**Aktorea eta bertsolaria**

Aktore lanetan Ander Lipus ibiliko da eta bertsolaria Andoni Egaña izango da. Unai Elizasu izango da gai-jartzailea. Gaur egun plazarik plaza gehien dabilen gai-jartzailea da Elizasu, eta baita *www.gaijartzailea.com* atariaren egilea ere. Gaurkotasuneko gaiak jorratuko dituzte.

Bertso eskolak urtean bi bertso saio antolatzen ditu pilotalekuan. Irailean ohiko den San Migeletako bertso saiorik ez dute egingo aurten, urri erdi inguruan Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako saio garrantzitsu bat Oñatin jokatuko delako. Hala, oporren aurretik beste ekitaldi hori antolatzeko ideia izan dute. Gainera, adierazi dute aurrerantzean ere ekitaldiak antolatzea dela euren nahia.

# 'Dorleta Bibreixon' jaialdia ospatuko dute bihar, zapatua

**A.E.** | LEINTZ GATZAGA

Gatzagako lagunek badute zer ospatua bihar. Dorleta inguruan *Dorleta bibreixon* jaialdia ospatuko dute.

Arratsaldean hasiko dute jaia, 18:00etan haurrendako jolasak egingo dituzte. Hara joango diren gaztetxoek ondo baino hobeto pasatzeko aukera izango dute; izan ere, hainbat tailer eta jolas kooperatiboak izango dituzte.

**Afaria etxetik eroan**

Behin gaztetxoen jolasak amaitzen direnean *tuperware* afaria egingo dute Koktel jazz laukoteak girotuta. Afaritarakoak norberak eraman beharko ditu etxetik. Antolatzaileek esan duten moduan: "Patata-tortilla eta amandrearen manta etxetik eroan... edatekoak, ostera, han egongo dira".

Afariaren ondoren musika saioak hasiko dira. Arrasateko Ain_1 taldeak eta Leintz Gatzaga eta Gasteizko lagunek osatzen duten Malatu taldeak girotuko dute gaua. Malatu 2005ean sortutako taldea da eta Alberto eta Nando de la Casa anaiek osatzen dute, besteak beste. Arrasateko neskek, ostera, musika, dantza eta poesia emanaldia eskainiko dute. Jaia amaitzeko DJ Sound Sister eta DJ Mr. Dublinek musika jarriko dute.

# Irabaz ezazu argazki-kamera ederra Goienaren urteroko udako argazki lehiaketaren bidez!

▶ Gaurtik irailaren 16ra bitartean bidali ahal izango dituzte irakurleek hilabeteotan ateratako irudiak

▶ Uztailaren erdialdetik aurrera Asteleheneko 'Goiena' paperean eta 'Goiena.net'-en argitaratuko dira

**MIRIAN BITERI** | ARRASATE

Udako argazki lehiaketa antolatu du Goienak, zazpigarrenez. Gaur, uztailak 1, zabalduko da argazkiak bidaltzeko epea, eta irailaren 16ra arte bidali ahal izango dira. Aurten ere hiru sari banatuko ditugu. Lehiaketaren lehen saria Bergarako KB Photoestudio etxeak emango du ostera ere: hain justu ere, Panasonic etxeak emandako Lumix DMC G10 argazki-kamera ederra eta %50eko deskontu-bonua KB Photoestudio etxeak eskaintzen dituen ikastaroetako baterako.

Bigarrenak, Arrasate Bidaien eskutik, bi lagunendako aste bukaerako egonaldia irabaziko du, Kantabrian; eta hirugarrenak Leintz Gatzagako Gure Ametsa jatetxean bi lagunendako bazkari edo afari bikaina lortuko du.



Iaz Lara Gonzalez arrasatearrak irabazi zuen lehen saria, *Ispiluaren aurrean* argazkiarekin. | LARA GONZALEZ

### Gehienez, bost argazki

Parte-hartzaile bakoitzak, gehienez, bost argazki aurkeztu ahal izango ditu, eta argazkiarekin batera honakoa adierazi beharko du: egilearen izen-abizenak eta herria, harremanetarako telefonoa, argazkia noiz eta non aterata den, eta baita zer edo nortzuk agertzen diren ere.

Paperean edo digitalizatuta aurkezteko aukera dago; hori bai, digitalizatuta bidaliz gero, paperean ondo erreproduzitzeko adinako bereizmena izan beharko du. Udako argazkiak aurkeztuko dituzte parte-hartzaileek, aurtengo udan edo aurreko baten ateratakoak.

Argazkiak eta datuak *argazkiak@goiena.com* helbidera bidali beharko dira, edo Goienaren egoitzaren batera eraman: hain justu ere, Arrasaten, Otalora Lizentziaduna 31; eta Aretxabaletan, Basabe poligonoko EO5 edo Durana kalea 11 (2. solairura). Egoitzara eramaterakoan, kartazal baten sartuta, CD baten edo argazki digitalak gordetzeko beste edozein euskarritan eta JPG formatuan aurkeztu behar-ko dira.

Lehiaketan parte hartzeagatik ez da ezer ordaindu beharko, eta Debagoieneko edozeinek parte hartu ahal izango du. Irudiei dagokienez, beste inon argitaragabeak izango dira, eta zuri-beltzean zein koloreetan bidali ahal izango dira.

### Uztailaren erdialdetik aurrera

Argazkiak astero argitaratuko ditugu, uztailaren erdialdetik aurrera, Asteleheneko *Goiena* paperean eta *Goiena.net*-en sortuko dugun fotoblogean. Goiena telebistan ere erakutsiko dira jasotzen ditugun argazkiok. Dena dela, jasotako erretratu guztiak argitaratzerik ez badago, Goienak aukeraketa egingo du, egokien iruditzen zaizkion irizpideen arabera.

### Irabazleak urriaren 3an

Epaimahaia Goienako kide eta bailarako argazkilari profesionalekin osatuta egongo da, eta argazkiaren kalitatea, originaltasuna eta balio historikoa hartuko dituzte kontuan. Irabazleak urriaren 3an jakinaraziko ditugu Asteleheneko *Goiena* paperean. Jasotako argazkiak Goienako artxiboan gordeko dira.



**Ikus itzazu argazkiak, astero, asteleheneko Goiena paperean**

## UDAKO ARGAZKIEN VII. GOIENA LEHIAKETA

# Erakuts egizkiguzu zure udako argazkiak

**Bidali zure udako argazkiak eta irabazi sari bikainak!**

**Argazki guztiak fotoblog honetan: *goiena.net/blogak/argazkiak***



IDOIA ITURRALDE



LARA GONZALEZ



MIGUEL DE GANESHA

**Har ezazu parte!**

## Oinarriak

- **Parte-hartzaile bakoitzak, gehienez, 5 argazki aurkez ditzake.Argazkiarekin batera adierazi beharko dira:**
  - **Egilearen izen-abizenak eta herria.**
  - **Harremanetarako telefonoa.**
  - **Argazkia noiz eta non ateratakoa den.**
  - **Argazkian zer eta nortzuk agertzen diren.**
- **Argazkiak bidaltzeko epea: uztailaren 1etik irailaren 16ra arte.**
- **Argazkiak aurkeztu ahal izango dira paperean edo digitalizatuta (paperean ondo erreproduzitzeko adinako bereizmenarekin).**
- **Udako argazkiak izango dira: berdin da aurtengo udan ateratakoak izatea edo beste uda batekoak.**

- Bidali argazkiak eta datu GUZTIAK e-postaz: *argazkiak@goiena.com* helbidera, edo Goienara ekarri: ARRASATE: Otalora Lizentziaduna 31, 20500 Arrrasate ARETXABALETA: Basabe poligonoa EO5 edo Durana 11-2 solairura, 20550 Aretxabaleta.
- Debagoieneko edozeinek parte hartu ahal izango du (ez da adin mugarik izango).
- Egoitzara ekartzekotan kartazal batean sartuta, CD batean, edo argazki digitalak gordetzeko beste edozein euskarritan eta JPG formatuan.
- Parte hartzeko ez da ezer ordaindu beharko.
- Beste inon argitaragabeak izango dira argazkiok.
- Argazkiak izan daitezke koloretan zein zuri-beltzean.
- Argazkiak argitaratuko ditugu astero uztailaren erdialdetik aurrera asteleheneko Goiena paperean eta Goiena.net-n sortuko dugun foto-blogean. Goiena telebistan ere erakutsiko dira argazkiak.
- Irabazleak nortzuk diren urriaren 3an jakingo dugu asteleheneko Goiena paperean.
- Epaimahaia Goienako kideek eta bailarako argazkilari profesionalek osatuko dute eta argazkiaren kalitatea, originaltasuna eta balio historikoa hartuko dituzte kontuan.
- Jasotako argazki guztiak argitaratzerik ez badago, Goienak aukeraketa egingo du egokien iruditzen zaizkion irizpideen arabera.
- Jasotako argazkia guztiak Goienako artxiboan gordeko dira eta aurrerantzean erabiliz gero, egilearen izena adierazi egingo da.

## Sariak




**1. saria**

Panasonic LUMIX DMC G1 argazki kamera digitala eta KB Photoestudiok eskaintzen dituen ikastaroetako batean, %50eko deskontu bonoa Bergarako KB Photoestudio argazki dendaren eskutik.

- 12 megapixel.
- LUMIX G VARIO 14-42mm / F3.5-5.6 objektiboa.
- 3 hazbeteko LCD pantaila.
- Live View Dual denbora osoan.
- Flash eta guzti.







**2. saria:** Cantabrian bi lagunendako astebukaera bateko egonaldia. Arrasate Bidaiak-en eskutik.

**3. saria:** bi pertsonarendako afari edo bazkaria Leintz Gatzagako Gure Ametsa jatetxean.

**ANTOLATZAILEA:** goiena KOMUNIKAZIO TALDEA

**LAGUNTZAILEAK:** kb photoestudio www.kbphotoestudio.com · Panasonic LUMIX · GURE AMETSA JATETXEA · ARRASATE BIDAIAK

# ZURE IRAGARKIAK

943 25 05 05 | sailkatuak@goiena.com | www.goiena.net/sailkatuak

Eguazteneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak iragarriko ditugu. Hortik aurrera, ez da onartuko aldaketarik edo iragarkia bertan behera uzterik. GOIENAk ez du iragarkien ondoko operazioen erantzukizunik.

## 1. ETXEBIZITZAK

### 101. SALDU

**Bergara.** San Antonen etxebizitza salgai. 65 m2. Hiru logela, sukalde hornitua, komuna, balkoia, hall-a, miradorea. Bi aparkaleku eta trastelekua terrazarekin. Urbanizazio pribatuan. 138.200 €. 629 45 58 51.

**BERGARA**

Martokon etxea salgai

625 70 84 55

**Elgeta.** Etxebizitza 80 m2, salgai: hiru gela, egongela, sukaldea, komuna eta ganbara. Prezio interesgarria. 658 75 84 58.

**Oñati.** 68 m2ko etxebizitza salgai. Bi logela, komuna, sukalde guztiz hornitua eta egongela handia. 258.000 €. Erdigunean. Guztiz jantzia eta bizitzera sartzeko moduan. 35 m2ko garajea aukeran. 659 72 06 64.

**Oñati.** 90 m2ko duplexa salgai Atzekokalen. Hiru logela, bi bainugela, sukaldea eta egongela dauzka. Igogailua dauka. Eraikuntza berriko etxea da. Garagea aukeran. 607 58 00 99 edo 625 70 54 44

**Oñati.** Kalebarria 32an 80 m2ko etxebizitza ederra salgai. 9 urteko aintzinatasuna. Hiru logela, bi komun, sukaldea eta egongela handi bat. Igogailua eraikin berean garajeraino dauka. Kalitate handiko etxebizitza, diseinuzko altzariz hornitua. Prezio negoziagarria. Garaje itxia aukeran. 622 42 83 18.

**Oñati.** Kalebarria 54an, Etxaluzen, etxebizitza salgai. Sukaldea, trastelekua, bi balkoi, lau logela, bi komun, egongela edo jangela, ganbara, igogailua. Garajea aukeran. Prezio negoziagarria. 647 24 80 02.

### 103. ERRENTAN EMAN

**Arrasate.** Etxebizitza errentan ematen da, Udala enparantzaren inguruan (unibertsitatetik 200 metrora). Hiru logela, bainu bi, egongela. Jantzita. 669 70 85 88

**Bergara.** Berriztutako pisua ematen da errentan Bergara erdialdean. Bi gela haundi ditu. Telefonoa 685 72 51 58

**Hondarribia.** Hondarribian gela bakarreko apartamentua alokatzen da uztailean. Hondartzako lehen lerroan. Aparkalekua barne. Bista ederrak. 617 55 25 43

**Noja.** Apartamentua ematen da errentan. Hondartzatik 50 metrora. Bi logela, egongela, sukaldea eta terraza. Garajea. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 609 78 77 23

**Oñati.** Etxebizitza errentan ematen da Oñatiko erdigunean. Hiru logela, egongela, sukaldea eta igogailua ditu. Interesatuak arratsaldez deitu zenbaki honetara: 652 77 87 15

**Oñati.** Olakua 1.A-n, lau logeletako etxebizitza ematen da errentan. Jantzia. 619 18 07 44 edo 943 78 01 67

**Port Saplaya (Valentzia).** Bi logelako eta aire egokitua duen apartamentua ematen da errentan. Valentzia hiriburutik 4 kilometrora eta hondartzatik 100 metrora. Bi igerileku urbanizazioan. Interesatuok deitu zenbaki hauetara: 635 75 09 47 edo 676 51 80 58

**Torrevieja.** Torreviejan atikoa ematen da errentan. Urbanizazio lasaia hondartzatik gertu. 4-6 pertsonendako lekua. 2 logela, terraza, solarium pribatua eta elkarteko garaje eta igerilekua. Interesatuok deitu 609 07 41 27 edo 649 88 79 17 telefono zenbakietara.

### 104. ERRENTAN HARTU

**Oñatin.** Oñatin etxebizitza hartuko nuke errentan. Bi logeladuna. Deitu 630 96 39 70 telefono zenbakietara.

### 105. ETXEAK OSATU

**Aretxabaleta edo Arrasate.** Aretxabaleta edo Arrasaten logela behar dut errentan Aretxabaleta edo Arrasaten. Ikaslea naiz. Interesatuok deitu 689 18 04 19 telefono zenbakira

**Bergara.** Pertsona bat behar da etxebizitza osatzeko Bergarako Bolu auzoan. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 670 85 86 68

**Pisua osatzeko Bilbon.** Bi langile gazte gara. Uztailaren 1etik aurrera Bilboko pisuan logela bat libre geratuko zaigu eta errentan hartuko lukeen norbaiten bila ari gara. Ikusi nahi izanez gero, deitu 661 30 97 78 edo 609 25 41 72 telefono zenbakietara.

## 2. GARAJEAK

### 203. ERRENTAN EMAN

**Arrasate.** Garaje bat ematen da errentan Arrasaten. Larrea etxeen atzetik (Usaetxe enparantzan), unibertsitatik oso gertu. 60 euro hilabetean. Idatzi *soliveira@hotmail.es* helbidera edo deitu zenbaki honetara: 678 53 82 48 (Sergio)

## 4. LANA

### 401. ESKAINTZAK

**BERGARA**

Sukaldeko laguntzailea behar da Deportibo tabernarako.

629 26 88 51

**LORAMENDI KIROLAK**

Jostuna behar da. Ekarri datuak San Andresko dendara.

### 402. ESKAERAK

**Aretxabaleta.** Edozein lan egiteko gertu mutil gaztea. 610 13 54 56.

**Aretxabaleta.** Edozein lanetarako gertu mutil gaztea: garbitasun lanak, zerbitzari etab. 687 26 89 05

**Arrasate edo Aretxabaleta.** Zerbitzari lanak egingo nituzke. 685 21 24 89

**Bergara edo Arrasate.** Neska gertu umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko. 646 28 55 02

**Bergara eta Arrasate.** Esperientziadun neska nagusiak zaintzeko gertu, astelehenetik ostiralera. 637 18 07 23.

**Bergara.** Garbitasun lanak egiteko edo nagusiak zaintzeko emakumea gertu. 671 18 50 83.

**Bergara.** Neska gertu etxeko lanak egiteko goizetan. 943 76 28 12 edo 656 73 64 51

**Debagoiena.** Bergarako neska gertu uztail eta abuztuan lan egiteko: ume edo nagusiak zaindu, etxeko lanak egin eta abarretarako. 943 76 58 03 edo 634 46 66 93

**Debagoiena.** Bi gizonezko lan bila gabiltza. Edozein motatako lana egiteko gertu gaude. 632 26 22 09

**Debagoiena.** Eskarmentudun mutila nagusiak zaintzeko gertu. Etxean bertan bizi izaten edo bestela. Carmelo. 659 77 66 22.

**Debagoiena.** Nagusiak zaintzen lan egingo nuke. Erizaintza laguntzaile ikasketak bukatzear nago. 689 18 04 19

**Debagoiena.** Sukaldari edo sukalde laguntzaile moduan lan egingo nuke. Euskal sukaldaritza ezagutzen dut. Miguel. 634 40 66 47

## 5. IRAKASKUNTZA

### 501. JASO

**Debagoiena.** Uztailean zehar katalan eskolak jasoko nituzke. 685 72 61 64

### 502. EMAN

**Debagoiena.** Ingeleseko eskolak ematen ditut: azterketak gertatu zein ahozko praktika lantzeko. Maila guztiak. 610 97 49 68

## 7. ANIMALIAK

### 703. EMAN

**Katakumeak.** Debagoienean, katakumeak dohainik ematen dira. 943 79 20 40

## 8. DENETARIK

### 801. SALDU

**Bilbon Coldplay ikusteko 2 sarrera.** Uztailaren 7an Coldplay taldea Bilbon ikusteko bi sarrera salgai. Bakoitza 72 euroan salgai. Deitu 679 28 05 04 telefono zenbakira.

**Pultsometroa.** Polar CS200-cad salgai. 90 €. Deitu 635 70 30 57 telefono zenbaklira

### 806. GALDU

**Agapurni txoria.** desagertu da. Berdea eta horia da eta etxekotuta dago. Norbaitek ikusi badu edo etxean hartu badu, mesedez deitu Josemiri. 656 79 82 16

## 9. HARREMANAK

### 904. BESTELAKOAK

**Dance-Arrasate.** Dance musika eta nahasketak egitea gustoko duen jende bila nabil, musika elkarbanatzeko, nahasketak egiten ikasteko, etab. Interesatzen bazaizu, mezu bat bidali helbide honetara, harremanetan jartzeko idatzi mezu bat *i_like_dance@hotmail.es* edo deitu: 647 08 68 75 A


**Deba Garaia Inmobiliaria**

Telesforo Aranzadi 2

T: 943 76 21 80 F: 943 76 06 37

**ETXEBIZITZAK SALGAI**

**BERGARA**
- Sanantonabat, 75 m², oso ondo, eguzkitsua, lorategia.
- Aranerreka, 80 m², oso ondo. Prezio ona.
- Matxiategi, 72 m², eguzkitsua. Prezio ona.
- Zabalotegi, 54 m², eguzkitsua, oso ondo.
- Fraizkozuri, 75 m², eguzkitsua, berritua, oso ondo.
- Burdiñate, 104 m², oso ondo.
- Ibargarai, apartamentua, 40 m², berria, garajea aukeran.
- Justo Garate, 80 m², oso ondo.
- Herrilagunak, 60 m².
- Martoko, 87 m², ondo, garajearekin.
- San Pedro, 88 m², ondo.
- Ibargarai, 80 m² oso ondo eta eguzkitsua.
- Koldo Eleizalde, 87 m² oso ondo.
- Zabalotegi 80 m², eguzkitsua, berritua.
- Elorregi 70 m², terrazarekin, eguzkitsua, oso ondo.
- Urteaga 109 m², berritua, oso ondo.
- Simon Arrieta, 57 m², terrazarekin.
- Zurradero, 81 m², oso ondo.
- Zubieta, 125 m², terraza eta ortuarekin.
- Zabalotegi, 50 m², berritua. Oso eguzkitsua.
- Iparragirre, 190 m².
- San Antonio, 65 m², eguzkitsua.
- Masterreka, 46 m², eraikuntza berria.
- **Etxebizitza berrien eraikuntza Maduran, San Pedron, Masterrekan, Zubiaurren, Bidekurutzetan, Zubietan, artokon, San Lorentzon eta Lorentxokon.**
- San Lorentzon aukera ona.
- Basarte. 69 m². Oso ondo.
- Toki Eder plaza. 54 m². Apartamentua. Oso ondo.
- Artekale, 48 m². Apartamentua. Oso ondo.
- Ibargarai, 88 m². Berria. Garajearekin.
- Fraizkozuri. Aukera ona.
